# Andik eta Emendik

*Aita Santuaren bilduŕ!*

Oraintsu Toronto (Kanada'n) eŕti lan erakusketa egin dabe. Bertara batzordearen eskariz, bialdu eben, Aita Deun XI'n. Pio'ren margo-irudi txiki bat, oso edeŕto egiña. Egiḹea Inga'landa'ko margo-lan zeatz eta txikietan nagosi dan Algen Williams izan da. Aita Santuari gustiz atse izan yakon eta bere izena baŕenean ipiñi be bai. Txikia izateko gauza edeŕa be izan beaŕ, aituak miḹa bat doḹaŕ balio dabela esan dabe-ta.

Ba, ango masoyak nonbait Aita Santuaren bilduŕ dira-ta erabagi dabe, margo lan ori Erakusketan ipinten ez lagatzeko, eurentzat irain bat izango litzakela-ta.

«Gero esango dabe - diño L'Osservatore»k-masoi bazkuna, bazkun ongiḹe bat dala ta besterik ez; eta Aita Santuaren eŕti-lan irudia be ezin dabe ikusi». Ori iñori ziñestu eragiteko, pizti oŕek eŕpok agiriegi darabiz!

*Bide onera*

Poloni'tar antzerki - idazle ospetsu dan Stanislao Przybszwski, katolikotaŕ egin da. Oraintsu Eleizaren aurka idazti bat idatzi eban. Jean Fawelski abak, idazti onetzaz gogor idatzi eban. Stanislas'ek, asaŕetu beaŕean, bere aurkalariaz autu aldi batsuk izan zituan, eta eztabaida onetan bere gogoaren egoera azaldu eutson. Fawelski abade yakintsuak emondako azalbenak aintzat aŕturik, katoliko egitea erabagi dau. Ondo etoŕia, eta emen agertzen da Yaungoikoak uste gitxien dan bideetatik gogoak saŕitan beragantzen dituala.

*Lekaime monja ta osagiḹe*

Gauza bakan xamaŕa da auxe, baña apuŕ bategaitik ez gara aŕitzen. Oraintsu irabazi dau, osagiḹetzan doktor txapela, Lovaina'ko Irakastetxe ospetsuan egindako azterketa ondoren, eta epaikari gustien txaloz, eta berarizko sariaz lekaime batek. Berau Yulene Mari karidadeko monja da, gudaldian gexozain ibiḹitakoa. Edozelan be gaitasun andikoa gai onetan izan beaŕ, doktor txapela osagiḹetzan irabazteko. Batsuetan eskeŕtaŕak monjak ezertarako gauza ez dirala esaten dabe-ta, oin baŕiz danean sartzen dirala esateko kapaz dira, baña euren leloan yaŕaitu dayela...

*Sidney'ko Eukaristi Batzaŕa (1928'n) gertatzen*

Iragaŕi zanez, uŕengo Eukaristi batzaŕ orokoŕa Australia'ko Sidney uri ospetsuan egingo da. Uri onek 540.000 inguru biztanle ditu, asko katolikoak eta urte oŕetarako Maria Deunari opaldutako Gotzain-eleiza edeŕ bat egiten diardue, Batzaŕ ori egingo danean onesteko. Australia'n gustiz 8.000.000 biztanle dagoz eta eurotatik 1.500.000 katolikoak, eta gitxiago diralako, ainbesterano eldu ez aŕen be, Txikago'n egin zanen antzeko zerbait egiteko gogo biziaz lanean diardue. Len aitatu dogun gotzain-eleizaz gañera beste gotzain-eleiza edeŕ bat be egiteko asmotan dagoz. Oingandik olango suaz lan egin ezkero, uste dogu gauza edeŕa gertauko dabela.

*Luistaŕak Eŕoman*

Koldobika deunaren goralbenez Eŕoma'n egin

diran yai edeŕetara, ludiko bazteŕ gustietatik gaste asko yoan dira, eta Euskal eŕitik be talde andi bat Bilbo'ko yosulaunak zuzenduta. Eleizkizun gustiz edeŕak egin dira, eta azkenengo egunean Aita Santua ikertu eben, eta egin eutsen itzaldi edeŕean Luis deunaren garbitasun, apaltasun, otoizaletasun eta gustiak baŕuan artzen dituan maitasuna goraldu eban. 5.000 gaste bildu ziran 25 lateŕietatik Eŕoma'ra yai oŕeitarako yoan ziranak.

*Noruega'n eleiz baŕi bat.*

Oslo, Noruega'ko uri nagosian, domekataŕak oraintsu eleiz baŕi baten lenengo aŕia ipiñi dabe. Orain 700 urte (1220'n) Solomon aba domekataŕak, Nidaros, Bergen eta Oslo'n lekaretxeak iragi zituan. XVI'n gizaldirarte iraun eben, ota orduan protestanteak ondatu zituezan. Orain eleiza baŕien lenengo aŕia onetsi dabenean, aŕi onen ondoan lenagoko eleiza zaŕen eustazpietatik atarako aŕi bat ipiñi dabe. Asmo begikoa ta zerbait esan gurakoa da gero! Yaunari eskeŕak, aspaldian gure ziñestea toki oŕeitan auŕera doa.

*Gizon ospetsu bien eriotza.*

Oraintsu il da Burlington'en (Lateri batuetan) Rosenberg Iľari aba beneditaŕa gastetan, yudaŕa eta rabino izandakoa. Apurka apurka lagun bategaz erlegiñoatzaz euki zituan autu-aldi batsukaz zirkinduta, katoliko egin zan. Orduan gauza ta aŕtu-emon gustiak laga-ta, abade egin zan beneditaŕetan 1885'n sartuta.

Baita Savona (Italia'n) Guido Cliva buruñurdun izlari ospetsua, itzaldi sutsu bat egiten ziarduela, bapatean zurbildu ta yausi zan. Entzuleak zer gertatu yakon ikusteko uŕeratu ziranean, ilda zegoala oaŕtu eben. Itzaldien bizitasunaz, entzu leak adi-adi egozala gertatu zan eta ikara andi yazokun onek egin eutsoela esan beaŕik e dago. Bere eleiz otoitzetara izugaŕizko gizozte bildu zan.

*Izpaŕ txorta.*

Berlin'go agintariak lege gogoŕa emon dab irakuŕgai txaŕen aurka, gastedia batez be yolas gaiakaz, ondatzen dabena dala-ta. Lege onek 248 alde ta 158 autaŕki auŕka izan ditu. Aurka egon diranak esan beaŕik ez da nortsuk izan diran, betikoak, komunista, sosolisto ta demokratak. Zer ba, oitura onak eta zertarako? esango eben. ¡Orduan formal izan bear eta ortx loŕa!

Aita santuak 10.000 metro lautu luŕ emon dautsez Ttxekoslobakitaŕai Eroma'ko abade-ikasleai ikastetxe baŕi bat egiteko. Emokun au oso pozik ikusi eta eskar onez artu dabe Ttxekoslobakia'n.

Markoni iŕatizkin asmatzaľe ospetsuak oraintsu Aita Santua ikertu dau, eta autu-aldi luze baten onda labuŕ bidez itz egiteko era baŕia azaldautso. Aita Santuak gomutakitzat bere Aitadu Santutzako laugaŕen urteko uŕezko domiñea emon eutson.

Suiza'ko lendakari oraintsu autu dabena, M. Motta yauna, katoliko zintsoa da.

**M'Iaŕ G.**

# ZER EDO ZER

*Amasei urte.*

Urte onegaz *Yaungoiko Zale* amaseigaŕen urtean sartzen da.

Gure bizitzan amasei urte askotxo dira, baña beti bete beaŕ dan asmo on bat auŕera eroateko gitxi.

Urteak ez dira ezeŕ eginbeaŕaren ondoan, eginbeaŕa une gustietakoa da-ta, eginbeaŕari begiratu ezkero aldiari ez dautsogu yaramonik egin beaŕ. Eginbeaŕaren auŕean, gizonari ondo egiteko, luzaroan bete beaŕ dabela gogoratzea ez dagokio, irauten daben artean bete beaŕ dabela baño. Eta zintso betetatik sortzen yakon poza, da emen itxaron leiken saririk onena.

Baña egin beaŕa betetea gauza latza da, batez be emengo ezertako sari barik yokatu beaŕ danean, latzago onurarik norbere begiz ikusten ez danean, eta latzako asmorik onenak, etsayez ingurututa alde txaŕera botaten alegintzen diranean. Eta auxe samingaŕia izan aŕen, pozgaŕia be ba'da, etsayez ingururatuta ibiltea zerbait egiten danen ezaugaŕia dalako. Au gañera betiko gauza, da edestiak argiro erakusten dausku ez dala izan asmo onik auŕera eroateko eragospen asko aspiratu beaŕ izan ez dabenik.

Urteak onetarakoxe izan beaŕ dabe; eragospenaren auŕean atzera egiten ez ikasteko. Eragospena gogoŕ ikusi aŕen, burdiñezko orma lodiaren antzera ez dogu ikusi beaŕ, bere ostean argitasun andia agertu eragiten dauskun leyaŕezko orma baten antzera baño.

*Eragospenaren auŕean zer egin?*

Atzera? Orixe norbere aldetik iñoz be ez. Eragospenaren auŕka geure burua apuŕtu? Ori gitxiago. Ara eŕotako urak zer irakasten dauskun: Esi bat ipinten ba'dautse, bete arte itxaron eta gero indaŕez bota ezin ba'dau gañetik igaroko

da; eta bitartean ez uste geldi egongo danik, azpitik ala albotik, aldaben toki gustietatik auŕera yoateko al dauana egingo dau. Gustia ezin danean, aldana; aldana egin ezkero beaŕ dana egiten da, eta beaŕ dana egiten dabenari ez yako geyago eskatzen. Beste arazo gustietan au egoki da, baña Yaungoiko-Zale bazkunnaren asmoak auŕera eroateko beaŕekoa.

*Zereginik bikañena,*

*Yaungoiko Zalen* zeregiña da. Kristiñau Ikasbidea eŕian zabaltzeko sortu zan, eta oŕetan diardu era batez edo bestez amasei urte onetan. Goiko argia ziñestea giza-biotzetan zabaldu ta sustraitzen alegintzea baño zeregin bikañagorik ez dago, eta orixe dala-ta Eleiza Ama Deuna'k gai onegaz abadeoi beaŕkun astunak ezaŕi dauskuz. Zeruko bidea gizonari irakastea abade gustien beaŕkuna da, eta oraintsu Aita Santuaren aginduz, esan dan lez, «beaŕkunik lenen eta andiena» *omnium officiorum primum esse et maximum* (Epistola ad Rmos.) Ordinarios, de Catechetica disciplina in sacris seminariis excolenda; (8 Sep, 1926).

Bakoitzari bere elez eta beraz euskaldunei enskeraz, baŕiz, sentzunaz batera Eleizak agintzen dausku.

Ori olan dalarik zelan ez yaŕaitu auŕera? Etsayak ainbeste lan Kristiñau Ikasbidea baztertzeko egiten daben bitartean Kristo'ren gudaritzan gabiltzanok geldi egon? *Al dogun* gustia egin barik egon? Gure ziñestearen etsayak alde gustietatik idazti ta irakurgai bidez kalte egiten, eta gu zerbait aurka egin gura dabenari lagundu barik? Onen aurka yakiñez gañera gogo zintsodunik ezin leiteko egon, ez da, al dabela zerbait laguntasun uka-tu leikenik be.

*Zer dala-ta ba ainbeske epeltasun*

Alperkeriz? Ori ez dogu uste iza-beaŕ. Onurarik ez dakaŕelako. Onang-zereginetan sartzen danak goratxoag-begiratu beaŕ dau. Lan egiteko era a-egokia ez deritxolako? Ori uste daben-ak aldabena egiten alegintzen ba'd-edeŕto; bakoitzak bere ziyoak euki lei-kez beste bide batetik yoateko-ta. Baña ezeŕ egin ez eta besterena onetsi ez? Oŕexek alpeŕkeri edo senitarteko usaña beintzat...

Baña saŕitan epelkeri au, atara yarten ez garealako edo sortzen yaku; konturatzen ez garealako... eta orixe benetan tamalgaŕia da.

Gotzain batek esaten euskun gustiok alkaŕkaŕtu ezkero, lan edeŕa ta onuratsua egingo gendula, eta oŕetantxe alegintzeko. Alkartuta Yaunari eskeŕak asko gagoz, oin beaŕ doguna bakoitzak bizitasun geitxoago agertzea. *Zertxobait* egin, zabaldu, piztu eta bizkoŕtzeko, geldi egotetik goxeok bakaŕik sortzen dira-ta. Asmoa zabaldu, aldizkingi, oŕi eta idaztiak erosi ta erosi-eragin zabalkunde *apuŕ* bat egin...

Egiten dogun baño zerbait geyago gustiok egin geinke. Eta lana banandu ezkero, lan geyago, onuratsuago eta bizitasun geyago agertuko geunke. Urte baŕi onetan auxe egin daigun.

*Urte baŕiz ez bizitza baŕi indaŕ baŕi baño.*

Beti batek, nekatu ta gogaitu egiten gaitu, eta berez baŕi-zale izan oi gara. Baŕi-zale baŕiz okeŕ goyazanean izatea dagokigu. Baña Kristiñau-Ikasbidea za-

baltzea, dan gauza edeŕa izan ezkero, lan gairik aldatu beaŕik ez dauku, lengoari biziroago yaŕaitu baño. Gauza ona esku artean darabiĪenak, ez dauko aldatu beaŕik... Bultzia bide batetik beti yoan-etoŕika ibilteari ondo deritxogu? Bai, ba bere bidean zuzen dabiĪelako ondo ba'deritxogu eta gogaikaŕi ez baderitxogu, geure zeregin au, beti bat dala-ta, ez dogu aldatu beaŕ, beti auŕera eta geroago biziroago ta indartsuago auŕera yoan baño.

Alan ba egin dan lanari begiratu barik ¡auŕera! Egin beaŕ dogunari begiratuta be ¡auŕera!

Orain arte egin doguna, ikusi gura dabenen auŕean dago. Auŕerantzean Yaungoikoa lagun egingo doguna geure eskuetan.

Yaungoikoaren laguntzaz ba ekin eta yaŕai.....

GAMA

# KEA TA DIRU TINTIÑA

(SCHMID)

Bein bidezti bat ostatu batera eldu zan, ostalaria zerbait prijitzen ebiĪen artean.

Ostalariak itandu eutson:

—Onango zati bat zeuretzat ebatea gura dozu?

—Ez, erantzun eutson bideztiak, ke usañak be naiko betenau-ta.

—Orduan, ostalariak esan eutson, keagaitik sei eŕeal ordaindu beaŕ daustazuz.

Bideztiak eskari au yolasean aŕtu eban eta isekaz buruari erain eutson; baña ostalariak, aŕtuta epaikari juezagana eroan eban.

Epaikariak, eskatzen ebana ordaintzeko agindu eutson, eta gogo txaŕez bazan be, bideztiak dirua mai gañera bota ebala ikusiaz, epaikariak ostalariari esan eutson:

—Ostalari yauna, diru onen tiniña entzun dozu? Edeŕa e?

—Edeŕa, erantzun eutson aŕtzeko eskua luzetuaz.

Baña epaikariak esan eutson: E, geldi or!..

Eta erabagi au emon eban:

—Bidezti au, prijigayaren usañagaz bakaŕik asetu zan ezkero, bidezko ta zuzena da, zeu be diruaren tintiñagaz bakaŕik be pozik gelditzea.

Gizonaren biotza
idazti agiria,
eztabaidak epaitzeko
epaikari garbia.

G.

# GAU BALTZA

Gauza itzal ta bilduŕgaŕia
benetan gaba iĺuna,
goi eta bean ez da ikusten
ezpada iĺuntasuna.
Edeŕtasunak estaldu dira
gizonen begi auŕetik,
argi gustiak igesi dau ba
ortze-ludi zabaletik.

. . . . . . . . . . . .

Askozaz baña iĺunago da
ziñeste bako biotza,
goi-izpibako gau baltz itzala
iĺun, iŕun eta iĺotza...

GABIREL.

# Andik eta Emendik

*Yanzkordun edo kardenalak zeinbat eta non-goak?*

Oraintsu egindako kardenal baŕi Gamba eta Lauri agurgaŕiakaz, 67 dira. Gustiz V'n Sixto'ren erabagiz 70 izan leitekez; baña zenbaki ori orain arte ez da iñoz osotu.

Oraingo 67'ok onantxe banantzen dira: Italitaŕak 37; pantzetaŕak, 6; españaŕak, Merry del Val'egaz 5; alemandaŕak 4; ipaŕ-amerikaŕak 4; ingalandaŕak 2; austriaŕak 2; ungaritaŕa 1; polonitaŕa 1; olandaŕa 1; irlandaŕa 1; portugaldaŕa 1; brasildaŕa 1; txekoslobakitaŕa 1.

Iru dira XIII'n Lonek egindakoak; 22 X'n. Pio'k; XV'n Benedikto'k 18, eta XI'n Pio'k 24.

*Itzaldiak iŕatizkin (radio) bidez.*

Egiak bide gustiak zabal aurkitu bear ditu-ta, iŕatizkin-bidez be egia zabaltzea bidezkoa da. Berez txaŕa naiz ona zabaltzeko gai dalarik, txaŕak lan egiten daben lez, zer dala-ta, ona zabaltzeko bide ori ez erabiĺi? Onen eskuetan on asko egin leiken gauza da, gaiztoen eskuetan baŕiz kalte asko egin leikena. Auxe dala-ta katolikotaŕak iŕatizkiñez Kristiñau ikasbidea zabaltzen lenengotatik azi ziran, batez be Ipaŕ Amerika'n, eta berberorixe Europa aldean be zabalduez doya. Len Olanda'n, gero Lausana eta Zuritx'etik katoliko itzaldiak egiten azi ziran eta orain auxe Prantzi'ko Radio-Paris'etik egiten asi dira. Eragozpen batsuk onango gauzetan beti egoten dira-ta, arek azpiratuta Dubois Paris'ko kardenalaren baipenaz, (berau be radio-zale dala dakigu), Aita Lande geure aizkideak lenengo itzaldiak egin ditu, eta edeŕto egin be. Eleiz abesti edeŕak eta itzaldiakaz on asko egingo dabela uste dogu, batez be eleizaren itzalak bilduŕtzen dituenen artean. Yaungoikoak emondako emaitzak dira asmakixunak, eta onaren aldez erabilten onak alegindu beaŕ gara, gaiztotuta gero zuzentzea baño, gaiztotzen ez lagatzea eŕezago da-ta.

*Txiña'n asteroko katolikotaŕ baŕi bi.*

Katolikotaŕen m'xiolariei laguntzeko asteroko baŕi bi argitalduko dira, bat txineraz *Ting Min Pao* eta bestea ingalanderaz «Le catholic Observer» Baita txinataŕ lekaime gayentzat nobiziau bat idegiko da, bertako lekaime Miren Gabirele buru dala. Alan txiñaŕak eskintzak euren yayoteŕitik uŕindu barik egin al izango dabez. Etxe au Kiwang-Si'n idigiko da.

*Bide onera.*

Margarite von Gotstxall emakume alemandaŕa, antzerki ta irakuŕgai idazle ospetsua dana, oraintsu katolikotaŕ biurtu da. Suiza'ko lekaimetxe baten bere bizitza aldatzea erabagi dau, eta bere lenengo asmoa Asis eta Eŕoma'ra bidezkundez yoatea izan da. Antxe Friwürts kardenalaren eskuz Sendatsa edo konfirmaziñoko ikuŕtona aŕtu dau. Aita Santua ikeŕtuko dau, eta berak idatzi daben azkenengo antzeŕkia, «Yaunaren Bidezkundea» deritxonaren iyeki bat berari opaldu dautso.

*Seipel yaunaren biotz zabala.*

Seipel yauna Austria'ko abade bat da, lateŕi arasoetan ospetsua, eta Briand'ek esan eban lez Europa'ko gizonik yakintsuenetarikoa, gai oŕetan. Guda ostean Austria auldu ta luŕ-yota gelditua zanean, berau buru autu eben, ondamendira

yoyan eŕia osatzeko. Eta bere lanez amiltegitik bere abeŕia atara eban. Onetan oin urte bi, langiĺe batek sosialista lagunak atzipetuta, su-izkiĺuz zauritu eban, eta oso txaŕto egon zan. Gaizkiĺea, bost urterako lan neketsuetara zigoŕtu eben. Baŕiro bere agintaritzaren bear izanean Austria aurkitzen zan eta oraintsu kanziĺer autua izan da. Eta gizon benetan aundi onek, Gabon yaiz, espetxetan damutasuna agertu dabenai, parkatuteko asmoa aŕtu eban. Onein artean bera zauritu ebana egoan eta biotz zabalaz a be, bere sendiaz Gabon yayak igaro al izateko, azke itxi dau. Beraz iru urteko espetxea parkatu dautso.

*Katolikoak Ipaŕ Amerika'n.*

Gizaldi baten auŕerapen andiak egin ditu toki aretan.

1783'n. Ingalanda'gandik azkatasuna lortu ebanean Lateŕi-Batz edo Estados-Unidos'etan 25.000 katoliko egozan. 1829'n. 500.000: 1872'n ia 5.000000. 1922'n. 17 miĺoe ta erdi, 103 goteŕki ta 21.000 abadegaz. 1925'n. baŕiz, 20.738.447. Eta zenbaki onetan ez dira saŕtzen izenez izan eta eleizara yoaten ez diranak, zintso yokatzen dabenak baño. Ba, toki askotan agertzen diran antzekoak zenbatu ezkero, askozaz geyago dira. Bokaziño asko dago eta auxe da ezaugaŕi ona; abade, lekaide ta monja 60.000'ra elduko dira-ta.

*Olanda'n be.*

L'Osservatore Romano'ra bertatik bialdutako idazki baten diñonez, 1924'n 50.000.000 yaunartze izan ziran. Onek zer adirazten daben igarteko, gogoan euki beaŕ oin bots urte 5.000.000 bakaŕik izan zirala eta oin 60 urte katoliko izatea lateŕi oŕetan eragotzita egoala.

*Portugal'en.*

Lisboa'ko Beĺo yanzkoŕdun yauna Buru eta Aita Santuaren ordelari dala, lateŕi gustiko Eleiz batzaŕa ospatu da, bertako Eleiz araso ta gora-berak adiraldu eta eraltzeko.

Batzaŕ onetan 24 Gotzain bildu dira, eta lenengo egunean gotzain eleizan Yaunari argitasun ta laguntasuna eskatzeko esan zan Mesatara, gobernuaren izenean ministro bat egon zan. Batzaŕ au Lisboa'n ospatu dan lenengokoa izan da.

*Urte zaŕez Eŕoma'n.*

Eleizkizun andiak egin dira Batikano Eleizan eta, Urte Deunaren amaya ospatzeko, bai Kris o'ren Eŕegetzaren gomutaz, eta baita Luis eta Stanislao eta Gurutzeko Juan deunaren bigaŕen eun urte yayak. Bertan esan zan Mesatara gizoste izugaŕia ta 22 kardenal eta 50 obispo eldu ziran.

Baita Gabon yayetan zorionak Aita Santuari opatzeko egin zan batzaŕera 30 kardenal eldu ziran. Vannuteĺi yaunak gustien izenean zorionak emon eutsozan eta Aita Santuak oso begiko itzaldiaz erantzun eutson.

**M'taŕ G.**

---

# LORA EDEŔ BAT

Lora usaintsu, biguna,
guri eta edeŕa,
Yaun onak bialdu dausku
donokitik luŕera.

Giza-biotzen baŕuan
sustrai sakon-sakonak
emoten dituanean
zoruntzen dauz gizonak.

Lili txukunenak baño
lorategi, baratzak,
edeŕagotuten dituz,
lora onek biotzak.

Ludiko samin gaŕatzak
beronek dauz gozatzen,
arduraz donoki-lorau.
ikasten bo'gu zaintzen.

Zer dan lili zerutaŕ au
galdetzen ba'daustazu;
*kistaŕ-aizkidetasuna*
lorau dala ekizu.

GABIREL.

---

JAUNGOIKO-ZALE'ren Irarkolan, Zornotza'n.

# Andik eta Emendik

*Ipar amerika'ko katolikoak.*

Ipaŕ Amerikaŕak zabalkunde-zaleak dira, eta zabalkunde-gayetan bide baŕiak asmatzen ez dira mutil txaŕak.

Ingalanda'ko katolikoak ziñestea zabaltzeko dauken bazkun baten antzeko bat «Catholic Truth Guild» izenduna dauke. Bazkun au gure ziñestea uri andietako kaleetan eta baztertutako baseŕietan zabaltzeko sortua da.

Bazkun au sortzea 1917'n. katoliko egin ziran sozialista biri otu yaken, Dabid Golldstein eta Marte Moore Avery. O'Connell kardenalari aurkestu yakozan katoliko baŕi biok, txaŕak orixe egiten ebela - ta eurak be arein aurka zerbait egin beaŕ ebela adiraziaz. O'Connell yaunak ontzat aŕtu eban euron asmoa, eta beriala auto edeŕ bat eragin eben, Aita Deunaren margoz apaindu eta idazkun auxe ipiñi eutsoen: «Yaungoiko eta abeŕia'ren aldez». Urte aretan garagaŕilaren 4'n. (amerikaŕak azkatasun eguna gomutatzen dabenean) Kardenalaren onespena aŕtuta Boston'etik urten eta lenengo batzaŕa egin eben. Gero 90 egunean eŕirik-eŕi ibiliaz, 80 batzaŕ egin zituezan. Uŕengo urtean Kalifornia'tik zeaŕ ostera bat egin eben, Boston'era biurtuaz. Itzaldietan Eleizaren egirik garayenak azaltzen dituez, aŕgi ta garbi Eleiza Katolikoa zer dan erakutsiaz. Otoitza ta gogo-bizitza zabalkunderako beaŕekoa dala-ta, bazkideen artean Yaungoiko zale, zintso, sutsu ta yakintsuenak aukeratzen dabez. Gero idazkiz eta itzez, yudaŕ, protestante ta sozialista eta egiten dautsiezan itaunai erantzuten dautse. Batzaŕok edozein zelai, kale mustur eta tokitan egiten dira, eta itzaldiak, autoak oŕetarako daukan tokitik bertatik.

Egia zabaltzeko bide ori ango Paulataŕ lekaideak be aŕtu dabe. Lenengo Brando urian egin eben ostera onuratsua ikusirik, orain Winnipeg'en egin dabe. Iru aba ta ogei teoloji ikasle Toronto'ko ikastetxetik uri andi atara yoan ziran, eta kale mustuŕetan itzaldiak egiten asi ziran eta bitartean abestiak abestuta, igaŕi barik inguruan bildutako gizosteari astia yoaten yakon. Pozik entzuten ebezala igarteko naiko da auxe: iru ordu iñoiz iraun aŕen, entzuleak tamalez egoten ziran ain arin amaitzen ziralako. Onein asmoa ez yakiñen artean beintzat Eleiza ezagutu eragitea da, eta oŕetarako bide edeŕa dala autu dabena, esan leike. Beintzat angoak *aldana* egiten mutiĺak dirala ikusi geinke eta orixe emen txarto elitzakigu etoŕiko, *aldana* egiteori esan gura dot.

*Kanada'ko misiolariak.*

Kanada'n Mixiolari ikastetxeko nagosi Roberge yaunak esan dabenez, andik mixiñoetan dabiltzazan lekaide, abade ta monjak 7.000 inguru izango dira. Igaro dan udagoyenean 100 lekaide ta abade ta beste 100 lekaime baño geyago Apirka ta Asia'ko mixiñoetara yoan dira. Eta mixiño zaletasuna bizi dagola toki artan igarteko, auxe gogoan eukitea naiko da. Mixiolari edo belgundariei laguntzeko paŕokietan iges batu dana 500.000 doĺaŕeraño eltzen da. Ori ziñeste zintso ta sendoaren ezaugaŕi edeŕa da.

*Katoliko baltzen batzaŕa.*

Amerika'ko baltz diran katolikoen alkaŕtasunak bere bigaŕen batzaŕa Washington'en egin dau. Batzaŕ onetan aŕtu diran erabagiak betetako, Aita Santuari seme lez eskiñi yakoz eta esker ona agertu dautsoe, batez be mixiñoetan aldala bertoko abadeak izan beaŕ dabela agindu daualako.

Baita «Amerika» aldizkingiari, katoliko baltzen aldez lan egiten dabelako, eskeřak emotea erabagi dabe, eta baita berarizko eskeřak baltzen aldez lan egiten daben katolikotař bazkunai.

Gero batzorde batek Wassington'en Aita Santuaren ordelari dan Fumasoni Biondi ikertu dau, eta euren artean yoan zan, Normann Durcket abadea, baltzetatik abade egin dan azkenengoa.

*Ingalanda'n katolikotařen batzařa.*

Ingalandako katolikoak, igaro dan iral̃an, Mantxester uri ospetsuan batzar orokořa egin eben. Yaupari ta kistař-lau ugarien artean bederatzi gotzain bildu ziran. Gai gařantsitsuetzaz itz egin eben, batez be kistařak gizařtean daukezan beařkunetzaz, anglikanoetatik biurtzen diran yaupariei laguntzeko bideatzaz, eta Bourne kardenalak ikastolatzaz itz egin eban. Gai oneik adiraldu ta erabagi edeřak ařtu ziran. Bertoko agintariak batzarkideai egindako ařeraz gustiz pozik gelditu ziran eta, Bourne kardenalak esan ebanez, batzar au «garaitz aundi bat» izan da.

*Lekaretxe (konbentu) bařiak Ingalandan.*

Lekaretxeak ugaritzea eři bateko kistař bizitzaren ezaugařirik onena da. Lekaretxeak, kistař bizitzarako beař-beařekoak, izan ez ařen, bizitz au mardul dagoan tokian berez lez sortzen dira, Balmes yakintsuak bere idazti baten edeřto egiztuten daben lez. Beraz lekaretxe ugariak, kistař bizitza mardularen ezaugařiak dirala, ukatu ezin leiken gauza da. Eta Ingalanda'n, Yaunari eskeřak, ugaritzen doaz. Oraintsu Bourne kardenalak Exmouth'en karmeldař lekaimetxe bat onetsi dau, eta 19 urte onetan 21 konbentu onetsi dituala azaldu dau. Gai onetzaz egin eban itzaldi edeřean, katoliko ez yakin, eta ez diranentzat esan eban, Yaungoikoaren deya entzunda otoi bizitza egiten dabenak gořagařiak zirala, eta beraz otoi-etxeak onuratsuak, otoitza «eleiz bizitzan» eustazpi ta mamiñekoa dalako.

Bere itzaldi edeřa katolikotař ez diran izpařingiak be osorik argitaldu eben.

*Mexikotařak*

Katoliko zintsoak gogoř diardua Eleizaren eskubideak zaintzen, Kales'en bidebagekerien aurka. Ainbat ankeřkeri egunoro izpařingiak zabaldu dabez, baña ori gora bera len baño adoretsuago ango katolikotar kementsuak agertzen dira. Oraintsu, Eřoma'n batu ziran gazteen artean mexikařak bai'ziran eta Aita Santuak, ziñopa (martirien) anai eta seme lez biotz gustiaz agurtu zituan. Eta gazteok itz emon eutsoen beař ba'zan euren odola ziñeste aldez emongo ebela.

Ondiño egun gitxi dala ikertu dau ango mixiolari batsuk lagun zituala, Leon'go gotzañak, eta ango baří entzunda besařtetuaz Aita deunak esan eutson: «Ondo dago, Yaungoikoa zuekaz dago éta Eleizaren garaitza uřean da, Yaungoikoaren itzak utsik ez dau egiten eta Eleizak bere garaitza laster ospatuko dau, eta ori geuk ikusiko dogu».

Eta mixiolariei bařiro, ordua eldu daitenean euren abeřira yoateko gertu egoteko esan eutsen. Itzok poztu egin beař gaitue eta bitartean otoi gure anayen eta etsayen aldez.

*Txiña'n be.*

Sanghai inguruan dagozan emengo mixiolariak gaizki xamař ibil̃i dira an boltxebitařak zirikatuta, sortu diran naspil̃etan. Umezurtz etxeak sakabanatu dituez, eta bertakoak ostaz iges egin dabe, euren artean bilbotař lekaime bertako buru (Fu-txeu'n) izan dana. Baita Agiře'tař Prantzizko Elgoibařtařak naigabe latzak igaro ditu, Fo-kien'en ainbeste alegiñez egin daben abade ikastetxea ondatu dautsielako. Tamalgařia da, baña uste dogu Yaungoiko onaren laguntzagaz bařiro biurtu eta euren Yaungoikotiar lanetan yařaituko dabela.

Orain 27 urte be gořiak ikusi zituezan txiñar katoliko gixajoak «boxers»en itxulaskundea izan zanean, Kristo'ren gořotoz 2.419 erail zituezan eta. Alan be odol ori kristiñau bařien azi dala bai'dakigu-ta, euren aldez zerbait egiten alegindu gaitezan.

**M'tař G.**

JAUNGOIKO-ZALE'ren Irarkolan. — Zornotza'n.

*Iraupena ta aldakoŕkeria.*

Lengo zenbakiko «Zer edo Zer» itz oneikaz amaitu gendun: «Yaungoikoaren laguntzaz ba, ekin eta yaŕai...»

Gaur zerbait idatzi gurarik, beste zertxobait esatea otu yat Gauza yakiñak dira, baña gitxitan gomutau eta eŕez aztuten diranak. Eta ezer egingo ba'da, egin beaŕ dana saŕitan buruan erabiltea lakorik ez da. Egi bat buruan erabiĺiago eta biotzean eŕezago sartzen da, eta biotzean sartzen danak egiteetara eŕez bultzatuko gaitu. Iraupenatzaz be, auxe egitea dagokigu. Saŕitan buruan erabiĺi, egiteetan agertzea gura ba'dogu.

*Iraupena beaŕekoa da.*

Iraupena, zerbait egingo ba'da, beaŕekoa dala esatea, eguzkia argi egiteko dala esatea lakoxe egi argia da. Egiten diran gauzarik geyenak, iraupenagaitik osatzen dira, edo beintzat iraupen barik ez dira egiten. Trebetasuna ona da zerbait egiteko, baña iraupen barik utsa. Trebetasunak auŕera yoateko bide egokiena erakutsiko dausku, baña iraupenak indaŕ emon ta bultzatu. Trebetasunak asko al izan aŕen, iraupenak askozaz geyago al dau. Garaitza geyago zoŕ yakoz iraupenari, trebetasunari baño. Iraupenak gauzari osotasuna ta gizonari gizatasuna emoten dautsela esan geinke. Auxe dala-ta norbait trebea izan aŕen, aldakoŕa ba'da, txoriburua dala esaten dogu, eta bide zuzenean beti auŕera yaŕaitzen dabenak gustioi itzala sartzen dausku, eta beragaitik bakaŕik esango doguz itz goragaŕi oneik: «Ori benetako gizona da». Egi andia esaten eben, ba, gure asabak antxiñako esakun onetan: «Prakan-prakan ez dago gizona».

Iraupena gauza beaŕekoa izan da, baña bai gaitza be, gizonagan ba,

*Aldakoŕtasuna berezkoa da.*

Eta berezko aldakoŕtasun au beaŕeko dan iraupenagaz alkaŕtzea ez da eŕez. Berez aldakoŕak gareala Yob deunak antxiña esan eban, gizona iñoz be ser baten ez dala egoten, eta bakoitzak nor beragan ikusten dogun egia argia da. Auxe dala-ta esan beaŕik ez da, geur bizitzan beaŕkuna eten baŕik betetea al dapa-gora egiten yakula; eta zuloa dau kan ontzi bat urez beteta eukitea lez, be ti zintso beaŕkuna betetea, gaitza dala

Batsuk beste batsuk baño berez aldakoŕago yayoten gara, baña gustiok bea dan baño geyago: Oŕegaitik

Ibili gabiz geure bidean
bitzita bide latzean
ta gustiz gitxi-gitxi dakusguz
*gizonak* gizon artean.

*Aldakořkeria gurarizkoa.*

Berez gitxi aldatuko bagiña lez, asko dira euren gurariz aldakoř egiten diranak. Batsuk gauzei azaletik baño ez dautse begiratzen, eta umeen antzera, gauzea azalez aldatzen ba'da, eurak be aldatzen dira. Onangoak egunez eretxi bat eta gabaz beste bat eukiteko gai dira.

Beste batsuk, gauzai azalera be ez dautse begiratzen; euren onurari bakařik eta ¡yakiña! «eguzkia nora zapiak ara»! Onangoak *gizontxo* izaten be zeregin dauke.

Asko bařiz euren eretxiak aldatzeko aldiari begira ez dira egoten; tokiz aldatuta bakařik euren eretxiak aldatzen dira. Tokitan aña aurpegi. Onangoak betiko iñauterietan bizi dira. Onein senitartekoa izan nonbait Jibbons kardenal ospetsuak idazti baten azaltzen dauskuna:

Ipař Amerika'ko gudaldi baten, ego aldetik ipař aldera bultziz yoyan gizon bat, eta oi zan lez bakoitzaren politika eretxietzaz ekin eutsen: Onetan ze alděrdiko zan lagunari itandu eutsan. Eta besteak bereala: ¿Zein eřitan gagoz? -Pensilvania'n-erantzun eutsoen. ¡A! orduan batasun-zale edo «unionista» naz. Bai alderdi atan eretxi ořetakoak ziran geyenak eta...

*Yaungoiko-Zale*'ko arasoetan olangoentzat ez da arnasarik be, gauzak azal eta mamin beti bat diralako; Kristiñau Ikasbidea eta euskaldunai euskeraz irakastea. Araso au emengo onuraz ez da albařtzen. Eta geure tokian gagozalako ez daukagu amerikařen antzera egin beařik.

Asko dira mundua antzerkitzat ařtzen dabenak, eta eurak antzerlari lez soñekoa aldatzen dabenak. Guk gogo-arasoetan au olan dala yakin beař dogu, baña euren antzeko ez izateko.

Yaungoiko Zale'n zeregiñak eretxi ta eztabaida gustien gañetik dagoz; Yaunak ipiñitako beařkun astunetik sortzen dira. Gure leloa auxe izan beař dau ba, «Yaungoikoaren laguntzaz ekin eta yařai...»

*Ekin...*

Gogo zintsoaz gauzak ařtzen diranean, oldozkunak ez dira buruan gordeta eukiteko izaten, egiteetan erabilteko baño Beti sakelean gordeta dagoan txindia ezertarako gauza ez dan lez, iñoz egiteetan agertzen ez dan oldozkuna be utsan uřengokoa da. *Ekin* ba, eragozpenak azpiratzen, bideak zabaltzen, begiak zabaltzen, ta biotzak berotzen. Eta *ekin* eguzkiak ařgi dagienean eta ekaitza datořenean. Zintso yokatzen dabenentzat batez be, ekaitz-aldiak naitaezkoak dira, eta zerbait zirkin eragin ařen, Yaunaren bideetan auřera yařaituko dabe, beragan uste osoa ipiñiaz.

*Eta yařai..!*

Batez be au iraupenerabo beař-beařekoa da-ta. *Yařai*, Kristiñau Ikasbidea irakastea baño gauza zuzenagorik ez da-ta. *Yařai* gure anai euskaldunen artean zeruko bidea irakasten, oitura onak zaintzen, eta biotz gustiak, Yaungoikoarenak dira-ta, beraganuntz biurtzen. *Yařai...* ziñeste ta oitura onak iñoz baño etsai geyagoz inguratuta dagoz-ta. *Yařai* aldogun artean, iñoz be azpertu barik... yazokun onek erakusten dauskun lez.

Taŕtaritar-gudari Tamerlan ankeŕ eta ospetsuak bein buŕukaldi baten ain ondo ez eban urten eta, bere lagunakaz zer egin asmatzen ziarduala, txinguŕi bateri aŕetaz begira yaŕi zan. Orman gora igoten ebanean txinguŕiak, baŕiro bera botaten eban, biŕitan eta iru bidar orixe egin eta txinguŕia baŕiro gora. Orduan bere lagunei esan eutsen: «Txinguŕi onek guk baño geyago daki, eta berak geu egin beaŕ doguna erakusten dausk yausten dana, yaiki egiten da; atzera egi dabenak, auŕera, eta azpiratua izan dan ak baŕiro yokatu! Auŕera ba, eta gara tza geurea izango da!»

Ekin eta yaŕai ba, Yaungoikoa lagu dogula...

**GAMA**

# Andik eta emendik

*Olandař katolikoak.*

Olanda'k 1920'n 6.865.314 biztanle zituan. Oneitatik 2.500.000 katolikoak dira. Burutzat Utretx'en gongotzain (artzobispo) bat eta bost gotzain daukez. 1.200 pařoki ta beste 50 eleiza, onei laguntzeko. Katolikotasunak bizi dirau, lengoan aitatu gendun lez, 1924'ko 53.000.000 yaunartzek agertzen dabenez. Katolikotařak, agintariak ez diran tokietan, eta tamalez, aintzakotzat dagozan tokietan be, ikastola arazoetan gogoř yokatu beařean aurkitzen dira, Kristiñaulkasbideari ta abař bear dan gařantzirik emoten ez yakolako. Olandařak onetan auřerapide andia egin dabe. Abadeak eurak daukiez eleiz ondoan ikastolak, eta agintariak onetan beste edozein ikastola lez aintzat ařtzen dabez. Ikastola gustiei gobernuak bardin laguntzen dautse, beraz katolikoei be bai, eta agintariak ez dauke bertan aginpiderik osasunerako egokiak diran ala ez aztertzeko izan ezin.

Irakaskintza-azkatasuna lortu eben ezkero, irakaskintzako goiko maletan auřerapen andiak egin dituez. Orain 19 ikastetxe 10 gimnasium eta 11 lizeo deritxoenez gañera, saleroste, ekintza, ta lugintza ikastolak ugari daukiez... Onein artean geyen galentzen dana Nimeges'en idigi eben ikastetxe nagosia da. Oneri Udalak eta katolikoak euren esku zabalaz eutsiten dautse.

Amabitik amazortzi urterarteko gazteak bazkunetan eralduta daukiez, geyen galentzen diranai berarizko irakaskintza emoten dautse, eta gustiak pařokian inguru biltzen dira, ludiko gatxori ta irakatsi galgařietatik aldentzeko.

Eřuki arazoetan auřeratuak dagoz. Bingen deunaren bazkun ongilez gañera, maitasun-bazkunak, gexoak ikertzeko bazkunak, espetxetik urtendakoak zaintzekoak eta abař ugari daukez. Langileak oso ederto eralduta dagoz, yaupari bat buru dala, eta gustiz gaitasun andikoak izan beař, oraintsu Ginebra'n egin zan langiletza batzařean eskař eta eskumakoak autařkiz bere batzař burutzat aututeko.

Gauza gusti oneitarako asko laguntzen dautse an argitaltzen dabezan 30 izpařingi egunorokoak, katolikotař irakatsia bazter gustietatik zabaltzen dabenak. Onez gañera aldizkingi edeř asko argitaltzen dabez.

*Gudaldian austutako eleizan bařiztatzea.*

Yakiña da lengo gudaldi gogořean eleiza asko toki danetan apuřtuta gelditu zirala. Batez be Prantzi aldean, onetan kalte andiak egin zituezan. Okeřok zuzentzeko irasitako bazkunak Paris'en oraintsu batzař bat egin dau, eta Tissier gotzain eta lendakari yaunak esan dabenez, ara egin daben lan edeřa. Orain arte 22.000 000 pranko bildu ditu. 500 eleiza bařiztau, 800 egiten diardue, eta 3.000 eleiza itxita egozanak idigi dituez. Onez ganera, bazkun onek abadeai 1.000 txiřinkuts edo bizikleta emon dautsez, an igandeetan batez be, eři batetik bestera yoan beař dabenentzat beařekoak dira-ta. Baita beste 6.000 abade txirori laguntzen dautso bazkun onuratsu onek. Eralguntza gauza onak egiteko edeřa dala adirazten dausku onek, eta baita esku zabaldunak bilatzeko be.

*Oitura begikoa.*

1870'n. Aita Santua Batikano'n espetxetuta lez itxi eben ezkero, Batikano'ko Eleiza ospetsuan Kandelarioz, ezko edo kandela onesterik ez da izaten. Baña onen ordez Eřoma'ko Eleiza nagosi edo basilika gustietatik eta praile gopatzak daukiezan eleizetatik, Aita Santuari onetsitako kandela txukun eta berein-beregi apaindutakoak eroaten dautsoez.

Eta aurten be, oitura yařaituaz olantxe ospatu dabe egun ori.

*Izpař txořta.*

Haiti-lateřiak urte batsuk dirala Aita Santuagaz ařtu emonik ez dau izan eta orain lengo bidera yo dau. Egunokaz ařtu-emonok bařiztau dauz. Aita Santuak ango ordelari Karuana yauna izentau dau.

Txekoslobakiařak be urte oneitan, erdizka ibili dira-ta, bařiro itunduten asi dira, eta uste da laster lengo ařtu-emonetara elduko dirala.

Vuillermet, prantziko idazle eta izlari ospetsuak oraintsu bere lenengo yaupagintzako 25'n. urtea ospatu dau, Lille'ko Maurizi deunaren eleizan. Domekatař lekaidea da, eta *eleiz aretan 420 itzaldi* egin ditu 25 urte onetan.

**M'lař G.**

JAUNGOIKO-ZALE'ren Irarkolan.—Zornotza'n.

# ZER EDO ZER

## EGIA TA EGIZALETASUNA

LENGOAN aldakoŕkeri ta iraupenatzaz esan gendunak, egiatzaz, zerbait esatera berez bultz egiten dausku.

Egia iraupenaren sustaŕa dalako, bere senean irauteko, egiaz alkaŕtuta ibiḷi beaŕ dau. Aldakoŕkeria ostera, iraupenaren etsai dalako, egiaren etsai be bai'da, eta guzuŕagaz alkaŕtuta aurkituko dogu. Auxe dala-ta, Bossuet yakintsuak, protestanteai, buruan emoteko auxe egotzi eutsen: «Zu aldatu egiten zara; eta aldatzen dana ez da egia». Eta egiztuteko, «Protestantetaŕ Eleizen aldakuntzen edestia» idatzi eban. Onek zirkin andia eragin eutsen. Izan be, gustiok dakigu egia ez dala aldatzen... eta aldatzen dana guzuŕa dala be bai...

Egia ba, lenena, beaŕekoena, edeŕena eta maitagaŕiena da, bera barik beste ezer ez litzake izango-ta.

### *Egiaren edeŕtasuna*

Egiaren edeŕtasuna zerbait ezagutzeko, Yaungoikoagandik datorkigun Argia dala gogaldu beaŕ dogu. Egiaren Aita dalako, eta ludia argitzen daben izpiak eguzkiagandik sortzen diran antzera, egi gustiak Beragandik sortzen diralako.

Egia argia da, bere izatez Argia danagandik sortzen dana, eta gizona beste izakiegandik bereztεn daben adimena be, Bere dis-dis bat baño ez da. Egia gure gogoaren yanari ta gure bizitzaren sustaŕa da. Luŕeko landarak eguzkiaren aŕgi barik ezin leike iraun. Adimenaren, bizia, argi ta yanaria egia da. Egiaren argian bakaŕik, gizonak bere bizitza,

gizarteko bizitza ta betiko zoriona aurkitu leike. Egitik aldentzen danean, guzuŕezko il̄unpean yausten da; guzuŕa baŕiz adimenenkutsu galgaŕia da. Gizaŕteko dana guzuŕaz ba'dabil, orduan sentzundunak gizarterako duintzat be ez dabe artzen, eta guzuŕzale danagaz albait aŕtu-emon gitxieu eukitera egiten da. Ori dala-ta, zuzen egoan Diojenes ospetsua egun argiz kurtzuluegaz gizon bil̄a joanda, salerosten egozan taldea, alkaŕi nok andiagoa sakatuko eutson ebiltzazala ikusirik, esan ebanean: Oŕek ez dira gizonak, abereak baño.

Eta azkenez gizonaren emengo ta betiko zoriona be ortxe dago. Zoriona, Betiko Argian, eta zoritxaŕa, Betiko Il̄unpean.

Gizona ba, egitik aldentzen danean, gizon danez ilda lez dago; besteagazko aŕtu-emonetan egia ostikopetzen dabenean, gizarterako duin ez da, eta egiari begiak itxita bizitzau igaroten dabenean, bere eŕuz betiko il̄unpera doanean, betiko zoritxaŕeko egiten da. Alan da be

*Zelan ain egi-zale gitxi?* Gauzarik edeŕena, begikoena eta beaŕekoena eta maitagaŕiena izan da, gustiak *maitetu beaŕ leukiela* esan lei, baña geyenez besteruntz gertatzen dala dakusgu.

Zer dala-ta? Egizko diruaren ondoan guzuŕezko txindia agertzen da. Guzuŕa bere itxusikeria estaldu eziñik, egi yantziaz apaintzen alegintzen da, eta geyenez indaŕa ta ondasunak, aberastasunak alboan dituala, gizonai guzuŕezko zoriona eskintzen agertzen da. Egia baŕiz dan lez; ekaŕ, argi ta garbi, apainduri barik, ez dabelako beaŕ, eta eguzkiaren izpi bero zolien antzera toki gustiak arakatu ta bere onuraz bete gurarik dabil, baña saŕitan ostatu barik gelditzen da; *Egia neu naz* esan eban Yesus maitagaŕia, Belen'en ain barik aurkitu zan lez.

Girña naspildu galgaŕiak noraño gizona itxututen daben ziñestu be ezin leike. Eta bere igalietatik zugatza ezagutzen ba'da, gauŕko oitura, yolas, yanzkera, irakuŕgai, eta gauzarik geyenak guzuŕaren igaliak dirala igaŕi geinke. E[...] da ba aŕitzekoa, egia *gizonen* artean *umezurtz* aurkitzea.

*Zegaitik?*

Batsuk itsukeriz, beste batsuk aŕokeŕiz, eta beste askok gaiztakeriz, egia andia da, egia aintzat ez dabela artzen. Bai'dira egia maite dabenak, baña askotan latza izan eta... baita oldoztu ta ao[...] autortzen dabenak, baña egiteetan besteruntz agertzen diranak; eta baita, gau[...]za bat buruan, beste bat itzetan eta beste bat egiteetan agertzen dabenak be[...] Eta au egi tamalgaŕia ba'da,

*Egi-zaletasuna zabaltzea lan[...] onena*

dala be, egi aundia da. Gizonari egi[...] leikion onik andiena egia maitatzen ira[...]kastea da. Egia da, gizonak guzuŕare[...] ondoren doyanean be, egizale buru[...] eginda yoaten dala. Gizonak girña gora-bera, gizon lez yokatzen dabenea[...] egia berez maite dau, eta guzuŕ-za[...] agertzea iñondik ez dau gura izate[...] Egia aintzat aŕtu gura ez dabenean b[...]giak itxiko ditu, iges egingo dau, g[...]zuŕtzat etsiko dau, baña bera guzuŕ za[...] dala esan, orixe iñoz be ez. Izan be, eg[...] Yaungoikoaren irudia daroan uŕezk[...] txindia da, toki ta aldi gustietan bard[...] balio dabena, aintzat ezagutzen dab[...]nean. Gizonak bere izateagaz egiag[...]nako maitasuna aŕtu dau eta, emen E[...]

osorik aurkitzen ez dabelako, bere egaŕia aseko ba'dau, nai ta ez, Egi osoa dagon tokiruntz bere adimen biotzak yasoten ditu.

Eta berez beti olantxe izan beaŕ leuke; yatoŕizko obenaz naspildu ziran girñak, adimena lausotu ezpalebe. Argia begientzat gauza maitagaŕia da, beraz argiak begiak minduten ba'ditu, zerbait gexo dauken ezaugaŕi da.

Gure adimen-biotzetik girñak yasotako lañoak kentzen ditugunean, antzikuŕ (ispilu) eder baten lez argi egiten dau eta orduan beste toki baten (1) esan gendun lez:

«Argi onek damotso zoruna gizonari,
biotza eraldurik, zintso, zuzenzale,
adore neurgabea damotso argi onek,
gudan ez aspertzeko zuzenaren alde».

Eta orduan gizonak benetako azkatasuna lortuten dau, Yaungoikoaren seme lez dagokion azkatasuna. Eta oŕexegaitik

### *Egi-zalea Yaungoiko-Zale*

Izan beaŕ, Yaungoikoa Egi berbera dalako. Berez *Yaungoiko-Zale*'k bere beaŕkuna betetako izenen yaube izatea naiko dau. Egia norbere alde euki ezkero, iñoren bilduŕik ez da euki beaŕ, Yaungoikoa norberagaz dago-ta.

Alan ba, gure asmotik urten barik, luŕ onetako eztabaidak alde batera itxita, gustiok alkaŕtuta, Egiaren aldez, Kristiñau Ikasbidearen aldez, gogoŕ eta gogoz; geure anai euskaldunen artean egia zabaltzen alegintzen garean artean, lanik beaŕeko ta edeŕena egingo dogu. Egiaren maitasunaz bakaŕik gabiltzazan artean, berak auŕera yaŕaitzeko adorea emongo dausku, eta zuzen goazala yakiteak emoten daben poza langorik ez dago, beaŕ dan bidetik, eragozpenak gora-bera, yaŕaitzeko...

Egiaren aldez ba, Ekin eta Yaŕai...!

GAMA

---

(1) *Goi-Izpiak*, – EGIA.

# Andik eta Emendik

*Mexiko'tar gaztedi adoretsua.*

Urtarilaren 3'n. Aita Santua ikertzen yoan ziran, Luis deunaren omenez egindako yayetara eldu ziran mexikotar gaztediko talde bat. Eurekaz eldu ziran Durango'ko gongotzain Gonzalez yaun agurgaria eta Ramirez aba yosulauna, gazteen bazkunako zuzentzale dana. Aita Santuak esan bearik ez da; arerarik aitakorena egin eutsen eta itzaldi edera egin be bai, eurak txalotu ta adoretzeko. Aita Deunak bere itzaldia amaitu ebanean, Ramirez abak eskereko eskutik artu ta erdi negarez esan eutson: «Aita Deundeuna: Emen dagozan gazte guztiak, eta ez eurok bakarik, baita Mexiko'ko gaste katolikotar gustien izenean, zin-egiten dogu, geure Eleiza Ama deunaren seme zintsoak izango gareala, bere aldez geure odola emon arteraño». Orduan gaste gustiak Aita Santuaganuntz besoak luzetuta esan eben: «Bai, zin-egiten dogu».

Au zan, esan dogun lez, urtarilaren 3'n. Ba egun oretan bertan amar gaztek euren bizia Kisto'ren aldez emon eben.

*L'Osservatore Romano*'k urtarilaren 3'n, Kales'n ordelariak lau gaztedi katolikotarekoak, Leon'en arapau eta ziñopa lez il ebezan.

Aureko egunean gustiak yaunartu eben. Batek aureko egun gustian barau egin eban, eta bere oneskuna aitari eskatu eutson. Aita onek bere emazteari esan eutson, amar seme ba'lituz be gustiak Yaungoikoari eskiñiko leuskiozala.

Beste bat, «Yaungoikoaren eta bere aintzaz» esanaz il zan. Onen amari semearen gorpua ez-eutsen emon gura izan, baña ez eutson ardura bere gogoa Yesus'en Biotzari eskiñi eutson-eta.

Irugarenak, iltea gura eban, bere odola aberia gaizkatzeko bearekoa zala-ta. Bere aitak il da ikusi ebanean, zeruan egoala esan eban eta beste semeai esaten eutsen aren ikasbideari yaraitzeko

Beste sei katoliko gaste be il ebezan, eta euren azkenengo itzak ¡Gora Kristo Erege! izan ziran. Batek ilten yoyala auxe esan eban: «Kristo'ren aldez ilten naz, baña bera ilezkora da». Ori da zintso yokatzea.

*Aita Santuaren V'n. urteurena.*

Ila onetan, otsalan, V'n. urte bete dira, Aita Deun gurgari XI'n. Pio autu ebela. Bere langiletasun ta yakituri ta kemenatzaz baleiteke, urengo baten zerbait esatea.

Gaur beintzat. bost urte bete dira, Aita Santu aututa Batikano'ko Eleiza ospetsuan, txalo ta gora izugarien erdian Gustion Aita lez agertu zala. Orduan iru aldiz bere begian aurean amuko zati bat ereaz, diakono batek esan eutson: «Aita Deuna ludi onetako aintza onantxe igaroten da».

Ondo baño obeto ekian Aita Deunak ludi onetako aintza uskeri utsa zala, ta egizko aintza, bakoitzat bere bearkuna betetatik sortzen zala. Eta oretan gitxilako langile zur eta adoretsua agertu yaku. Ondo ekian bearkun astuna beragantzen ebala eta orexegaitik lonbardaren ikastetxeko buru ta ikasleen aurean. Aita Santu aututa egun bat edo bi baru esan eban: «Gaur bai, *hossana*, eta biar baleiteke *crucifige* izatea».

Eta alantxe da izan be Aita Santutza gurutz benetan astuna izan bear dabela gustiok igari geinke, baña Berak bakarik ondo ezagutu. Ainbeste naigabe, etsai, eta saritan, aizkide-buru egiten dabenak emoten dautsiez-eta, oraintsu prantzetar alderdi bateko buruak emon dautsiezan lez.

Eroma'n beronen izentatzea ospatzeko gustiz alaitasun andiz eleizkizunak egin dira, batez be

Laterano'ko Eleiza nagosian, Eŕoma'ko gotzain eleiza da-ta Te Deum bat andikiro abestu zan. Iĺaren 12'n, burestuna ipiñi eutsen egunean, Sixtina deritxon kapiĺan eleizkizuna egin zan. Eŕiak uŕengo igandean, oi daben lez, Karla deunaren al Korso deritxon eleizan izugaŕizko ostez eta alaitasun andiz egun au ospatu eban.

*Paŕoki bakana.*

Strasburgo'ko eŕi Fassenhimgo'k besterik ez lakoa, da txaunburuak ondo zaintzen. 1812'tik orain arte iru paŕoko edo txaunburu bakaŕik izan dira eŕi onetan. *Bertz* de Mayan yauna, 1812'tik 1836'arte; *Bangratz* yauna 1836'tik 1894'arte; eta *Adolf* abadea 1894'tik orain arte Ondiño baŕiz yaŕaitzeko asmoaz, 76 urte euki aŕen osasun edeŕa dauko-ta. Gauza bakana da gero! *115 urtean iru* txaunburu bakaŕik ezagutu dituan eŕia ez da eŕez biĺatzen, batez be Araba aldean. Eleiztaŕak oso onak eta eleizkoyak dira, eta nonbait naibage andirik ez dautse emoten ainbeste aldi-tan irauteko.

*Bide oneratze bat radio-uŕutizkiñez.*

Oraintsu toki onetan esan gendun iŕatizkiñak on asko egin leikela, kalte lez. Au ikusirik, toki askotan katolikotaŕak egia zabaltzeko bide ori be aukeratu ebela. Onetan lenen Amerikaŕ katolikoak izan ziran. Au lan onuratsua nai ta ez izan beaŕ, eta zerbait igaliak emoten be asi da.

Oraintsu irakuŕi dogu iŕatizkiñez egiten diran katoliko itzaldiak entzunda, H. Kementh Kinsley yauna, protestantaŕ abadea, katoliko egin dala. Len, Texas, Ipar Amerika'ko anglikanoen gotzain eleizan egoan; eta orain katoliko egin ta Oriskany'n onangoentzako dagoan katoliko abade ikastetxean dago. 24 urte bakaŕik ditu eta bere sendian lenengo katolikotaŕa da. Abade ikasten Paulataŕ lekaideen buru danaren onuz asi da. Paulataŕ oneik Ipaŕ Amerika'n itzaldiak eta egiteko dauken iŕatizkiñean egindako itzaldiakaz bide oneratu da. Orain pozez dagoz, len baño gogo geyagoz yaŕaitzeko, au azkenengoa ez dala izango ondo dakie-ta. ¡Yaungoikoagana eltzeko bide asko dira-ta, albait geyen eŕaztutea dagokigu gustioi!

*Siam'en oneratze bat.*

Siam'go idazle ospetsu bat oraintsu katoliko egin da, bere emazte ta semeakaz. Beŕogei urte ditu eta bere aldirik geyena pagoda (ziñesgeen eleiza) baten Buda'ren irakatsiak zabaltzen igaro dau. Lekaide katolikotaŕ batsuk idazle oni, bertoko izketa Siamera irakasteko deitu eutsoen, eta eurakaz aizkide egiñik, kristiñau ikasbide bat eskatu eban, bere emazte ta umeakaz iraku̇ŕteko.

Yaungoikoak biotzean ikutu eutson nonbait, sei iĺabete ondoren, gustia edeŕto ikasi ta bere emazte ta sendiagaz bateo deuna aŕtu dau,

Eta aŕezkero astero autortu ta egunoro yaunaŕtzen dau bere emazte ta alaba nagosiaz. Txikiak be yaunartzeko gertatzen diardue. ¡Yaunari eskeŕak!

*Prantzizkotaŕ umakume mixiolariak.*

Aurten Gopatz au irasi zala 50'n urtea dalako, Eŕoma'n andikiro ospatu dabe, batez be iruŕen bat andikiro egiñaz. Gopatz onek Iruña'n bere etxe nagosia dauko eta bere iraslea, Txopetin Elene (gero Nekaldiko Maria) euskotaŕ yatoŕikoa izan zan. Gopatza onek lan asko egiten dau Maria'ren mixiolari prantzizkaŕak ez diran tokirik mixiñoetan ez dira asko ta. Gopatz au ugari da, eta euskotaŕ asko berton saŕtzen dira. Gustiz 255 etxe dabez alderdi gustietan eta 5.000 lekaime dira. 1910'n. 143 etxe ta 4.315 ziran. Beraz auŕera doa bazkun onuragiñau.

Boston'en oraintsu il da amerikaŕ artean oso ezaguna izan dan Katariñe E. Konway, idazle ta olerkari bikaña. 75 urte izan ditu. Emakume au katolikotaŕ zintsoa ta buru argiduna izan da. Rooselvet Todor'ek esaten eban, katolikotaŕ idazle bikain onek «gizonen burua eta emakume biotza» eukala.

**M'laŕ G.**

# Andik eta Emendik

*Ipaŕ-Amerikaŕen lanak.*

Ango katolikoak auŕera doazala euren lan edeŕak agertzen dabe. Ointxe *Kolon'en Zaldun'ak* deritxon bazkunak, beretzako New York'en etxe baŕi bat egin dau. Eta ez edozelangoa. Etxe onek 25 oin ditu, ortik igaŕi zer izango dan. Auŕerapen gustiak dituz, eta bera egiten 4.000.000 dol̄aŕetik gora eralgi dabez.

Oraintsu Hayes kardenalak onetsi dau eta egun onetan mil̄aka katolikoen artean Mr. Zamez Walker, New York'eko endore ta katoliko zintsoa dana etxe artan izan da.

Etxe au zabaltzea, andikiro ospatu gura izan dabe, eta oŕetarako Washinton'go katolikotaŕ Ikastetxe nagosiari (Universidad) 2.000.000 dol̄aŕ emon dautsez. Ikastetxe au lendik onenetarikoa da-ta, oin aŕtu daben laguntzaz, danen gañetik yaŕiko dala uste dogu.

Ori da dirua eralgiten yakitea... eta emoten be bai! «Ozanan P.n» izendun amerikaŕ bazkunak, ointxe zoriondunen izendegian ipinteko lanean diarduen gizon ospetsu onen goralbenez, bere irudi bat ipinteko lanean diardue. New York'eko endoreak baipena ta laguntza pozik eskiñi deutsez.

Baita, protestantetaŕ ondutakoen bazkunak Newman kardenal ospetsuaren gomutaz irudi bat ipintea erabagi dabe. Batzordeko buru, Ipar Amerika'n, Ingalanda'n Ordelari dan katolikotaŕ zintsoa autu dabe.

«*Eurien Aita*».

Ipaŕ Amerika'ko Lateŕi Batuetan yosulaun Rikard Yeronimo abari izen onegaz deitzen dautse. ¿Zer dala-ta? Eguraldien gora-berak, ekaitzak eta auŕezti iragaŕi ta iragaŕteko gaitasun andia agertu daualako. Egun baten euririk egingo daben ala ez yakiteko, «Eurien Aita»gana yoten dabe, agintariak, ostikolariak ta zein egunetan eguraldi ona egingo daben ziur yakin gura daben gustiak. Oraintsu gertatu da, agintarien «teknikoak» egun izentautako baten euria egingo ebala esan eben, eta Rikard abak ezetz iragaŕi eban, eta berak esana gertatu zan.

Danak beragana yoten asi dira, ta itaunka gogait eragin ez dagioen, iragaŕi dau, eguraldi ona egingo dabela uste dabenean galtzuzko kapeleaz kalean agertuko dala.

*Itzaldiak radio edo iŕatizkiñez.*

Pantzetaŕ idazle katolikotaŕ batek radio edo iŕatizkin bidez egin leikezan lanetzaz idatzi dau. Geroago diño esaten asiko gara, Paul deuna bizi izan ba'litz radio-zale izango zala, baña au beste gauza batsuetan eta beti lez, beranduegi esango da.

Gauŕ iŕatizkiñak dauken indaŕa edonok dakus. Eta zabalkundea egiteko aukerakoa dala be bai. Auxe dala-ta idazle oŕek diño katolikotaŕen asmoa olango tramankulu baten yaube izatea izan beaŕ leukela.

Eta izpaŕingi katolikotaŕakaz alkaŕtuta lan edeŕa egingo leukie izan be.

Au igaŕirik Ipaŕ Amerika'n bide au aŕtu dabe. Baita Olanda'n eta Ingalandan ostera abade gitxi dagozan tokietan radio bidez, eldu ezin diran tokietan, itz egiten dabe. Prantzitaŕ katolikoak ez dagoz lo onetan. Paris'ko Notre Dame eleiza ospetsuan Garizima'n egiten diran itzaldiak iŕatizkiñez zabaltzeko baipena Dubois kardenalak emon dau, eta auxe dala-ta igandero Sanson aba izlari bikañaren itzaldiak entzuten doguz. Itzaldi ospetsuok entzuten dituenak 2.000.000'tik gora izango dira. Bordeaux'ko kardenalak, goizeko

itzaldiak era oŕetan zabaltzea onetsi dau. Eta baita gure aizkide ta euskalzale bikain Lande abak *Radio Paris*'tik igandero eguerdietan itz egiten dausku. «Ludiko Argia» gaitzat aŕtuta (1) Gai onetzaz Lande abaren eretxia, (J. I.) uŕengoan azalduko dogu. Beintzat egia argi egin ta zabaltzeko egiña da-ta, toki gustietan zabaldu bedi.

JAUNGOIKOAREN LEGEKO AGINDUAK
euskera eŕaz eta garbian azalduta
JAUNGOIKO-ZALE'ren etxean
saltzen da
Azal gogoŕaz 6 lauerleko—Meiaz 4,50-

*Bide onera.*

Lerd; Havasrd irakastetxeko irakasle yakintsua katoliko egin da, Bere irakaslaritza itxi ta Boston'eko abade ikastetxean sartu da. Ara zelan gertatu zan. Bere ikasle neskatiĺa bategaz, Europa'ko edestia azaltzen ziarduala, eztabaidan asi zan. Neskatiĺa katoliko zintsoa zan, eta argi ta garbi kistaŕ egiak azaldu eutsozan. Irakaslea neskatiĺaren azalbenak aztertzen gogo onez asirik, egi bidea bertan ikusi dabelako katolikotaŕ egin da. ¡Yaungoikoaren bideak asko dira-ta!

*Prantzi'taŕ osagiĺeen asmo edeŕa.*

Luka deunaren zaintzapean 1.500 osagiĺe katolikotaŕ zintsoak euren bazkuna dauke. Bazkun onek oaŕtu dau abade baŕi artean euneko bost, sei eta amaŕeraño bulaŕetik ilten dirala, eta olangoentzat ikaste aldirako osatetxe bat egitea otu yaken. Oŕetarako Maurin kardenala buru dala, iges batzoŕdea autu eben, eta onek asmo au auŕera eroateko Lerins'eko beneditaŕen lekaretxe ospetsua 1905'n agintariak kendutakoa, aukeratu dabe. Larogei gela ditu, eta 1.200 metro itxas-ertza baño gorago dago. Oŕetarako katolikotaŕen artean arpide bat idigi dabe, ta Aita Santuak edeŕto eritxirik, 1.000.000 lira emo[n] ditu.

(1) Baita ointxe iragaŕi dabe, Barzelona'tik Epaĺa'ren 28'tik Joŕaĺan 3'ra eleiza baten egingo diran gogo iñarkun itzaldiak radio-bidez emongo dabezala. Edeŕto ta auŕera.

*Asmoa da gero....!*

Garizima'n aragia izteko egunak zeintsuk d[i]ran yakiteko, bide asko dira, batez be gog[o] zintsoa dabenentzat. Baña emen ipiñiko dogun ez da txaŕa eleizara yoateko nagi zamaŕak d[i]ranentzat.

Greneble, Prantziko, aŕain zaltzaĺe bateri, us[t]e dogu geyago saltzeko asmoaz, idazkun au[x] ate buruan ipintea otu yako:

«Garizima baŕuan eguazten bariku gustieta[n] aŕain utsa yan...»

Askorentzat uste bako sermoya izango da ira[ŕ]gaŕki begiko au. Oaŕtu beaŕ da, Prantzian eme[n] baño aragia izteko egunak geyago dirala. Eme[n] gariziman, barikuak bakaŕik dira aragi iztek[o] egunak, buldadunentzat.

ASTE GURENA
Aste Santuko eleizkizunak euskera[z]
**Saneuŕia 8 lauerleko**

*Zenbat katolikotaŕ?*

Ingalanda eta Gales'erako argitaltzen da «Katholik Directorik» diñonez urtean latera ta[l]deko katolikotaŕak 10.000.000 ugaritzen dira.

Eta ludiko katolikotaŕak gustiz *335 miĺoira* e[l]tzen dira.

**M'laŕ G.**

# EŔUGEAREN NEKALDIA

GIZA-OBENEN zoŕa Aita Betikoari ordaindu beaŕ eutsola - ta, igaro beaŕko zituan neke oñaze goŕiak, eta gure eskaŕ-txaŕ eta oben gustien gomuteak, gure Gaizkatzale maitearen gogoa iguin, laŕitasun eta ituntasunez ilteko zorian ipiñi eban. Eta bere gorputza be estutasun onen indaŕez Getsemani'ko baratzean, odolezko izerdi ugariz estaldu zan. Au Nekaldiaren asiera zan. Gero Yudas zoritxaŕekoak, ludian ezagutu izan dan laztanik mingotzenaz, etsayen eskuetan ipiñi ebanean, samintasun eta nekeak, alkaŕen leyan, itxasoko uin gazien antzera, Gaizkatzale maitearen Biotza inguratu eben.

Ordu batsuk lenago ain aŕo agertzen ziran ikasle ain maiteak, koldaŕkeriz, bakaŕik itxi eben... Bildots otzana otso amoŕatuen agin aŕtean yausi zan...

Iŕi, ixeka, laido, irain, lotsari ta zigoŕak bere gogo ta gorputza bata besteen ondoren mingoztu ebezan. Baña onegaz etsayen amoŕua ez zan asetu, ez da Yesus maitearen Kurutz egaŕia be. Aldi atan izan zeitekean eriotzarik lotsagaŕiena kurutzalduta iltea zan, eta auxe aukeratu eban.

Begira ba burua arantzaz zulatuta, esku oñak untzez, gorputz gustia zauri bat egiñik, arpegi deuna txistuz, izerdiz eta odolez zikindurik, lapuŕ biren eŕdian kurutza baten zinzilik, euren buru bai' litzan, gure Gaizkatzale maitea agertzen da...

* * *

Saspireun urte lenago, Isaias igaŕleak gai onetzaz, ikusita gero idatzitakoak dirudien itzok esan zituan: «Ez dau edeŕ eta lerdentasunik, ikusi gendun, eta ez eukon zer ikusirik eta ezereztzat etsi gendun. Ezetsia ta gizonik txatxaŕena, neke-mindun giza-semea, zoritxaŕa ezagutzen ebana, arpegia eskutauta lez eta lotsagaŕi eban, eta ez gendun aintzakotzat aŕtu. Gure miñak berak benetan aŕtu zituan, eta gure nekeak leporatu; guk ustel-eridun (lepradun) etsi gendun, eta Yaungoikoak zauritu ta apaldutakotzat. Bera, baña, gure obenez zauritua izan zan, gure gaiztakeriakaitik zigoŕez eyoa. Bere zigoŕaldiak gure bakerako izan ziran, ta bere zauriak sendatu ginduezan. Gustiok, ardien antzera, bidekatu giñan, bakoitza bere bidean galduta, ta Yaunak geu gustion gaiztakeria berari leporatu eutson». (III atzalburuan).

Isaias'en itzok osoan egiztuta Yesu-Kristo'ren Nekaldian ikusten dira. Eta eŕugea zan...

* * *

Egia ta ontasuna baño gauza maita-

gaŕi ta goragaŕiagorik ez dago. Eta Yesu-Kristo Egi Ontasun eta Eŕugetasun berbera zala argiro agertu eban. Eta alan da be, kurutzean yosi eben!

Egun baten bere etsai amoŕatuei itzok egotzi eutsezan: «Zuetatik nor da egiz obenik ezaŕi leikedanik? Eta egia ba'diñotzuet zer dala-ta ez daustazue zinisten?» (Yon VIII) Beste bein aŕika egin gura eutsenai esan eutsen: «Egite on asko agertu dautzuedaz neure Aita'gandik. Zein egite onegaitik aŕika egiten daustazue..?» Neuri ziñistu gura ezpadaustazue, neure egiteari ziñistu egiozue... (Ib, X). Bere Bizitza gustia egia zabaldu ta gaitz gustiak osatzea izan zan. Itz baten esateko Prentransiit benefaciendo... (Act. X-36) ludi onetatik «on ogiten igaro zan».

Eŕugea zala Pilatus'ek berak autoŕtu eban esanaz. «Nik gizon onegan eŕurik ez dot aurkitzen» (Luk, XXIII) Erodes berberak be ez. (Ib; 15). Eta beragaz kurutzaldutako lapuŕetatik batak Yesus'en eŕugetasuna autortu eban. Besteari iñotsan: Guk geure gaizkakeriz irabazitako zigoŕa geuregandu dogu «baña onek ezertako txaŕik ez dau egin». (Luk, XXIII-42).

Egiz esan zeinkezan ba, yudaŕ eŕiari zuzendutako lez Eleizak gure agoan ipinten dituan itz oneik:

«Ene eŕi ori, zer egin dautzut? Zegaz naigabetu zaitut? Erantzun egidazu!

Zure aldez egin neikeanik egin barik itxi ete dot..?»

Eta bere ontasun eta eŕiaren eskaŕ-txaŕa azalduaz amaitzen dau; «Nik almen andiz gora yaso zindudan: zuk baŕiz, kurutzaltzeko yaso ninduzun.

Ene eŕi oŕi, Zer egin dautzut? Erantzun egidazu..»

* * *

Bizitz au egi ta guzuŕ, ontasun eta gaiztakeriaren arteko buŕuka da. Buŕuka onetan egia autsez eta lañoz eztalita une batsuetan agertzen da, gaiztakeria ta eskaŕ txaŕa nagosi dirala dirudi... baña ordu batsuetarako. Bariku guren aŕatsaldetik Berpizteko garaitz-egunera iru egun baño ez dagoz..! Eta ez osoak be..!

Eta orain aŕte, era batez edo bestez, kurutza ta kurutzalduaren aurka egin ba'dogu, auŕerantzean gure obenak kurutzan ipiñi eben Yesus maitea maitetu daigun; maitasunak maitasuna eskatzen dau-ta. Eta bere ikasle zintso lez, koskotegi mendirarte yaŕaitu dayogun....!

**Manterola'tar G.**

# AMA NEKETSUARI (1)

¡Ama Samuŕ! eldu yatzu
Nekaldiko eguna,
ba zure Seme kutuna
kurutzan zinzilik da.

Arpegia, ubeldurik,
arnasa aŕtu eziñik,
zanak be odolustuta,
begiak argi barik.

Iltamuko izerdiaz,
mosua otzik dauko,
zerua ilundu da-ta,
luŕa, naigabez dago.

Ama maite! Zeru luŕak
zure deyak entzunda,
miñez ikusiko dabe
zure bakaŕtasuna.

GABIREL.

(1) Abesti, euskeraldua.

# ZER EDO ZER

## ZINTZOTASUNA

*Egia ta zintsotasuna.*

Auŕeko yardun aldian egiak aizkide gitxi dituala, batez be zoŕotz xamaŕa danean, esan gendun, Eta ondo gogaldu ezkero, ez da aŕitzekoa. Egia maitatzeko astiro ta uŕetik begiratu beaŕ yako. Eta gizonak egiaz, Pilatus'ek egin ebana egiten dau: «Egia zer da? Jesus'i itandu eutson, eta erantzuna entzuteko asti barik aldendu egin zan... Orixe ain saŕitan egingo ezpalitz, maitale geyago izango leukez.

Eta maitasunetik zintsotasuna sortzen da, ba, «Argi onek damotso zoruna gizonari, biotza eraldurik *zintso* zuzenzale...» Zuzentasuna uŕengorako itxita, gaurko yardun aldia zintsotasunatzaz izango da.

*Zintsotasuna zer dan*

Yakiteko, egia adimenaren yanari dalako, bera aintzat aŕtzea lenen egin beaŕ dana dala, gogaldu beaŕ dogu. Egiaren edeŕtasunak ezagutzetik, maitasuna sortzen da, berez gauzarik maitagaŕiena dalako. Egiaren maitasunetik, ona berez zabalkoya dalako, itzaz eta aldan bidez egia zabaltzeko gogoa sortzen da, eta auŕera yaŕaituta egiaz bizi ta egia egitera eltzen garenean, zintsotasuna lortu dogula, zintsoak gareala, esan al izango dogu.

Ara or zintsotasunerako bidea. Egia, ezagutu, egia maitetu, egia zabaldu *egia egin* edo egia bizi.

*Egia egin*... itz onetan bizitzarik gorengoena saŕtzen dala esan geinke, oldoskun, itz eta egite gustiak edeŕtasun gustia, bizi gustia egitik aŕtzen dabela esan gura dabe-ta.

Gure euskera maitean baŕiz esakun onek ondiño indaŕ geyago daukela esan leike. Bai dirudi ba, *egia* ta *egiteak* sustaŕ bat dabela, gorputz eta gogoaren antzeko dirala eta egitea egitik aldendu ezkero, ez egitearen antzeko, egite ila da-

la, arimabako gorputzaren antzera, ezertarako gai ez dana. Au baña, geure eretxi bat da, *itxorkunzaleai* erabagigaitzat itxiten dautsogu.

*Zintsotasuna, beařekoa da*

Gizarte-bizitzarako, egia adimenaren bizitzarako beařa dan lez. Zintsotasun barik egizko gizařterik ezin leike izan, ařtu-emon gustien oñařia zintsotasuna da-ta.

Gizařterik onena beraz zintso geyen dagozanena da.

Auxe dala-ta, gauř egunean, azalez gizabidean gorengo mal̄an dagozala dirudien eřietan, zintsoak uřituez doazalako ainbeste basatikeri ikusten da.

*Zintsotasuna ta gizatasuna*

Zintsotasuna, bařu ta azal, bat agertzea da, eta ori egiten dabena *gizon* dala esan oi dogulako, gizatasuna ta zintsotasuna egiaren seme bikiak dirala esan geinke. Azal eta bařu, bat agertzen ez dana, erdikindutako gizona da, eta gizon erdikiña ez da *gizon....!*

Orixe dala-ta azalguzuřa dana baño iguingařiago ez yaku iñorbe egiten.

Yesus gure Yaun maiteak otzanikotzanena, eta obendi andienakaz ain biguna izan ařen, azalguzuřak ziran parixetařai itz zořotzak esaten eutsezan; eden suge endakoak, ustelkeriz beteko il̄obi azal zuriak zirala eta obendarì aundienak auřea artuko eutsiela zeruko bakalderian esaten eutsen (Matt, XVIII,3).

Euren zintsotasunařen bařiz, umeak ain maite zituan, (Ib. XXIII, 25) eta Natanael'en zintsotasuna goraldu eban, (Yon, I, 47).

*Zintsotasuna beti goraldua izan da.*

Zintsotasuna edonok edo edonon, eta edonoz, goraldua izan da. Bere auřean gizadiak burua makuřtzen dabela esan lei. Eredu bi aitatu daiguzan, Regulo eřomatařa Kartago'tařen menpean yausi zan. Eta Eřoma'ra bialdu eben, bakea eskatzen; lořtzen ezpaeban bařiro biurtzeitza emonda. Eřoma'ra eldu zanean ango aldun batzařekoai, ezelan be bakerik ez egiteko esan eutsen, olan bařiro espetxera sartuko ebena yakin ařen. Bere lagunak emondako itza betetako beařturik ez egoala esaten eutsoen, indařez emondakoa zala-ta. Baña berak erantzun eutsen: «Ondo dakit, itza bete ezkero oñaze ta eriotzak itxaroten daustala, baña itza emon dot, eta nire eginbeařa itza betetea da».

Makabeotařen II'n idaztian VI'n atzalburuan, Eleazar agure adoretsu ta zintsoaren edestia irakurten da. Eleazar larogetaz urtedun agurea, eriotzaz sematuta egoan, Yaunaren legea auziten ezpaeban. Bere lagunak oin esaten dan lez «papela eiteko» esaten eutsoen, baña berak erantzun eban ez zala egoki larogetamař urteko agureak, gasteai ez zan gauzarik adiraztea eta nekeetatik iges egin ařen, Yaungoikoaren eskuetatik ez bizirik eta il̄ik ezin igesi zeinkela, eta legeen aldez sendotasun ikasbidea emonda nayago ebala bizia emon. Eta alantxe egin eban. Onango ikasbideak beti besteen yařaibidetzat idaztietan ipinten dira.

*Zintzotasuna ta apaltasuna.*

Eta zintsotasuna ain adoretsua izan ařen, ařokeriaz ez da alkartzen. Adorea ta apaltasuna, batera ez dirala aurkitzen irudiařen, apaltasuna ařokeria baño adoretsuago da. Ořexegaitik zintsotasunagaz alkařtzen da.

Terese Deunak diño (1) Yaungoikoak

zer dala-ta apaltasuna ain maite eban gogoratzen egoala, auxe bururatu yakola: «Yaungoikoa egi osoa dalako eta apaltasuna egiz ibiltea dalako, ainbeste apaltasuna maite ebala». Auxe dala-ta, apala zintsoa izan oi da eta adoretsua; eta aŕoa, baŕuan argala ta zerbait txaŕago... Gizonik zintsoenak deunak izaten dira, apalak diralako, eta baŕiz ludi onetako naste gustiak aŕokeritik sortzen dira -ta, aŕoari Jaunak uŕiñetik begiratzen dautso... Yesu-kristok parixetaŕ edo zergalari irudipean au edeŕto irakatsi euskun; parixetaŕ aŕoa iguingaŕi etsi eban, eta burua yasoten asaŕtzen ez zan publicanu apalari, pekatu gustiak parkatu eutsozan, zuzentzat dagoan aŕoa baño, obendari apala maiteago ebala adiraziaz.

*Gaurko egunean.*

Zintsotasunaren yagola diran maitasun eta apaltasuna uŕi ikusten dira bazteŕetan, eta euren ordez guzuŕa ta aŕokeria nagosi diralako, zintsotasunak, gauza edeŕen antzera, begia poztuten dausku.

Gaur, dan lez iñor ez dabela agertu gura esan lei. Gizonak oloak baño argalago agertzen dira, umeak andi, eta andiak soñeko ta gusti ume, gasteak zaŕ, eta zaŕak gaste, aberatz diran baño geyago, eta beaŕtsuak aberatz, umeak etxean agintzen, eta gurasoak iñon bez... ume ez diran umeak, gizon ez diran gizonak eta tximiñoa baño aldakoŕago diran emakumeak eta... kristiñau ez diran kristiñauak ¿nok ez dituz ezagutzen?

Ori gustiori zintsotasunik ezetik sortzen dala nok ez dakus? Len aitatu doguzanak ikusita, ez gara aŕitu beaŕ uŕea ez dan uŕea, gari-urun bako ogia, seda ez dan sedea eta... pabrikan egindako olo aŕautzak saltzen ikusteaz... zintsotasunik ez daukanak egiteetan ezin agertu-ta.

*Beraz*

gaur egunean baño zintsotasun beaŕizan geyago gitxitan izan dalako, zintsotasunaren sustrai, Kristiñau-ikasbideko egiak zabaldu eta *egiten* alegintzea, Jaungoiko-Zalen zeregiña, gauzarik beaŕekoena dala esan beaŕik ez da.

Egia autortu, egia maitetu, egia egin eta eragin... eta Paul deunak diñoskun lez, *Veritatem autem facientes in caritate:*... (Eph, IV-15) «Egia maitasunean egiñez, buru dan Kristo'gan gauza gustietan azi gaitezan...»

Zintsotasun aldez ba ekin eta yaŕai!...

GAMA

---

(1) Moradas XI, X'n autz-7.

# Andik eta Emendik

*Dirua deunen irudiaz*

Auxe toki askotan ez da ikusten, eta aŕitzekoa da izan be, dirua Papini'k diñon lez «deabruaren zimauŕa», dalako, deunakaz ez da eŕez alkaŕtzen-eta. Baña «zimauŕa» be lora pitxi politari indaŕa emoteko gai izaten da-ta, diruak gauza on askotarako balio leike. Oŕexegaitik, alde oŕetatik begiratuta, deunen irudiaz agertzeak ez dirudi txaŕto be.

Eta auxe egin dabe Italia'n dagon eŕepublika txiki *San Marino*'ko agintariak. Lateŕi txiki onetako biztanleak 13.000'ra ez dira eltzen, eta *San Marin* deunak irazi ebanezkero, (VI'n gizaldi inguruan) azke dirau bere txindi ta gusti.

Oraintsu 20 lirako uŕe-txindi baŕia egin dabeta, bertan lengo txindietan lez, alde batetik lateŕiko ikurdia ta bestetik deunaren irudia ipiñi dautse. Olantxe an diruak ia domiñetzat be balio dautse. Tira, polito dago deunen izen eta usaiña beste toki batsuetan kentzen alegintzen diranai ikasbidea emoteko be.

Eta gai au darabilgun-ezkero zertxobait esan daigun. Txindia berez txaŕerako erabili leikelako eta erabilten dalako, oŕetarako ez dala zelanbait bertan adiraztea egoki da; bide batez zetarako dan adiraziaz.

Eta Aita Santuak euren txindia ebenean auxe egiten eben, itz egokiak bertan ipiñiaz. Ara batsuk: XII'n Inozentzio'nak auxe eukien: *Ut detur, Emoteko;* XII'n Benedito'nak: *Solatium miseris, Beartzuen laguntza;* IX'n Kelemente'nak: *Quis pauper? Avarus. Txiroa nor? Zikoitza.* XIII'n Kelemente'nak: Ne *obliviscaris pauperum; Txiroetzaz ez aztu.*

Oraintsurarte Prantzitaŕak au erabilten eben: *Dieu protége la France*, Baña Kal̄aux'ek kendu eban.

Il̄e bete dala irakuŕi dogu orain egin daben emengo erlegin baŕian «por la G. de Dios» eta «Const.» izkiak ez dituezala ipiñi ta... San Marino'tik uŕin bizi gareala adirazteko ta batez be lenengo izkiok ez ipinteak *grazirik* ez dauskula egin esateko au idatzi dogu.

*Beethoven katoliko zintso*

Aurten ereslari ospetsu onen eriotzaren eungaŕen urtea dala-ta, bere aintzaz eta goralbenez lateŕi gustietan zerbait eginda. Ondo irabaziak dituz goralbenok berelango ereslaririk, oŕetan aituak diñoenez, gitzi izan diralako. Guk bere katolikotasunatzaz zerbait ipiñi gura dogu. Ara ezaugaŕi batsuk: Bere *Missa Solemnis* idatzi auŕetik «lau urtean yaupa adiraldu ta aztertzen igaro zituan, bere gogo ereslaria Eleiz sentzun eta liturgiaz asetzeko. *Kristo'ren Antz bidea,* bere oeburuko idaztitzat euki oi eban; barikuetan aragia izten eban, eta yai auŕegunean barau egiten eban, goiz gabetako otoitzak ainbeste naigabe emon eutsozan bere l̄obeagaz esaten zituan. Eta Kristiñau ikasbideatzaz ara zer idatzi eban: «Kristiñau-Ikasbidea oñaŕitzat ipiñita bakaŕik, gizona mendu ta ezi leike».

Ilteko zegoala eleizakoak eraspen andiz aŕtu zituan eta abadeari esan eutson: «Abade yauna, zuk baŕengo poza ekaŕi daustazu».

Zertzelada oneik Bingen Indy'k egiztuten dituz eta yakiña da idazle onek ziur ez ekian gauzarik eta egiztu barik ez ebela idazten.

Paris'en egin zan eleizkizunean itzaldi gustiz edeŕa egin ei eban Lande abak, gizon au goraltzen. Ziñesteak gizonari egoak emoten dautsoz eta, gizatasunean eta yakidietan gal̄endu diranak berez lez goiruntz begiratu beaŕ... Eta pozgaŕia da, ori egiten gizon entzutetsuak ikustea.

*XI'n Pio goraltzen.*

Yakiña da gure Aita Deun gurgaria, Ambrosiana deritxon Milan'go idaztitegi ospetsuko buru ogeitaka urtietan izan zala. Bere gomutaz eta goralbenez, Epalaren 20'n Gualtrini ertilariak egindako irudi eder bat ipiñi dabe bertan. Yarita dago eta idazti bat eskua luzetuta artzen dagola. Irudi au Tossi kardenalak onetsi dau, eta bertara agintariez gañera, bere sendikoak eta atzerietako yakitun asko eldu dira.

*Emokun begikoa*

M. Lou-Tseng-Tsiang atzeri arazoetako ministro izandakoa, katoliko zintsoa da. Lateri ordelari edo diplomatiko ospetsuenetarikoa da eta bakea egiteko egin zan batzarean Txiñar ordelarien buru izan zan. Ba orain bere zeregiñak iztean, Aita Santuari lanen gomutakirik ederenak, «kondekoraziño» ugari ta ederak, gustiak eskiñi dautsoz. Aita Santuak abegi onez eskintza semekoi eta begiko au artu dau, eta zartada andia egin dau diplomatikoan artean. Izan be txinoak-eta saritan europatar katolikotar askok baño biotz eder eta katoliko sentzun geyago agertzen dabe.

*Suezia'ko erege Batikano'n.*

Suezia protestantetar aldera yausi zan ezkerotik, katolikotarak zearo baztertuta iru gizalditan bizi izan dira. Euren aurkako legeak zerbait 1860'n bigundu ebezan. Euren agintarien eruz Eromatik aldendu zan eria, bariro biurtzeko gurariz aurkitzen dala esan lei. Urte deunean ainbat protestante ibildeunez Eroma'ra eldu ziran, eta orain, iru gizaldi ondoren lenengoz, bertoko erege V'n Gustavo Aita Santua ikertzen yoan da. Oso abegi onez artu dabe ta berak artu daben pozaz ikertze onek ondoren onak izango dituala uste dogu. Orain iru urte bertara ostera bat egin eban Van Rossum kardenalak eta ederto abetaldu eben. Oneik gauza pozgariak dira eta bearizana be baidago, zerbait egiteko.

Ondiño egunokaz, bertoko katolikoak eregeri eskatu dautse, katolikotarai azkatasun geyago emoteko, batez be gopatz edo lekaime-lekaide ordenai, orain arte debekauta dagoz-eta.

Eta gaur bertan, yayotza, eskontza ta eriotza izendegi liburuak protestanten eskuetan dagoz, eta katolikotar abadeak eta gotzañak berak, protestante baten aurean izen abizenak artu bearean aurkitzen dira, legez ezertarako izango ba'dira. Uste dogu ba, ointxe legeok bigunduko dabezala, Aita Santua bertako eregen ikertzeak zerbait adirazten dau-ta.

*Katolikotarak Yapon'en*

Yapondar katolikoak Yaunari eskerak aurera doaz. Orain Aita Santuak bertoko Gongotzain Txambo'n yaun pantzetara izentau dau. Eta Van Rossum kardenalak esan dabenaz, oraintsu Txiña'n antzera an be bertakoak gotzain aututeko asmoa dabela, eta gotzaintza artzeko aren antzera Eroma'ra etoriko dirala. Oraintsu andik biurtu dan Giardini Aita deunaren ikerlariak izpar pozgariak ziñeste zabalkundeatzaz ekari ditu.

Aldi gitxi da, bertako emakume gopatz bari bat Ikerkunde izenaz ipiñi dabela. Lekaime gustiak yapondarak dira. Baita pozez irakuri gendun ango mixiolari bateri Radio Tokyo'k eskatu eutsola katolikotar ziñesteatzaz, itzaldi bat egiteko, eta al ebanik ondoen egiten alegindu zala. 250.000 entzule inguruk entzun izango eben itzaldia. Onek adirazten dau, gure ziñestea begiko egiten asi yakela, ta ori lenengo oinkadea da.

*Milan'go Irakastetxe nagosia.*

Italitar katolikoak aro egon leitekez euren laguntzaz irakastetxerik ederenetarikoa sortu dabelako.

Urte batzuk dira Gemelli pantzeskar abaren alegiñak zirala bide irakastetxe eder au idigi ebela. Gemelli aba, len sozialista osagile ospetsu ta yakintsua izan zana, gaur Europa'n yakitunen artean galentzen dana da. Bere idazti ederak bazter gustietako yakitunak aintzat artzez dituez. Ikastetxe edo irakastetxe oneri katolikotar euren emokunagaz eutsiten dautse eta ederto egin be. Ara zenbaki batzuk: 1923'n. 1.000.000 lira inguru emon ebezan: 1924'n 1.3000.000; 1925'n 1.924.000; 1926'n 2.378.000. Au ezaugari edera da; baita beste batzuentzat ikasbide txalogaria.

**M'lar G.**

JAUNGOIKO-ZALE'ren Irarkolan. — Zornotza'n.

# POZTU GAITEZAN..!

Oŕil̄an gagoz, poztu kistaŕak;
gure Amaren omenez
abes samuŕak, otoitz sutsuak
eskiñi biotz-biotzez.

Oŕil̄an danak poztu beaŕ dau:
Ortze goyetan izaŕak,
itxasoetan aŕañak eta
luŕen gain izaki danak.

Egil̄earen Ama'ren il̄a
dalako apain-apaiñik,
agertzen yaku Izate dana
pozaŕen birloraturik.

Argitasunik gozoenagaz
eguzkiaren izpiak,
alaitasunez betetzen ditu
luŕeko bazteŕ gustiak.

Piri-pirika aize leunak
loren usain gozoena,
bere altsoan aŕtuaz dabil
goraltzen Ama onena.

Txoritxo danen abesti samuŕ
eztitsu, zoragaŕiak,
Amaren il̄an poztuten dituz
ibaŕ, zelai ta mendiak.

Abestu zeuk be, kistaŕ maitea,
goraldu Ama kutuna,
Nesgaŕbi danen Bakaldun bikain
kistaŕ gustion zoruna.

GABIREL.

# ANDIK ETA EMENDIK

*Izotz arteko gotzaña.*

Egiz deitu geinkio, Sortzez Garbiaren anaidiko Grouard, mixiolari ospetsuari. *Larogetasaspi* urtedun agure adoretsu au oraintsu, Paris'era eldu da, Anaidiak saspi urterik, saspi urtera egiten dituan batzaŕetara. «La Vie Catholique» asteroko edeŕak, beronegaz egin daben yardun aldia dakaŕ eta ementxe zertxobait ipiñiko dogu.

Orain *irurogetasaspi* urte Parantzi'tik Kanada'ra yoan zan, lateŕi aren ipaŕ aldean dagozan Atalaska, Mackensie ta Eskimal luŕaldeetan gure ziñesteko egiak zabaltzeko. 60° zero azpitik otz egiten daben toki aretan iñoz ogirik yan barik, yateko sikuaz «benetako sorukia» eta nozik bein barazki leoŕagaz bizi ta sendo iraun dau.

Toki aretan mixiolariak lenengo eragozpena bertako izkuntzetan aurkitzen dau. Lenen inditaŕ kri ta menditaŕen izketak ikasi zituan. Izketa aŕigaŕiak ei dira. Ikasten dabezan mixiolariak gustiak aŕitzen ei dira arein aberaztasuna ikusirik, batez be «kri» deritxon izkuntzarena. «Sustrai» batzuk arauz alkartuta bakaŕik 32.000 itz eraldu leikez. Izkuntza oneik ondo ikasi ondoren bestiei irakurten eta idazten irakasten alegintzen dira. Menditaŕen izketan *Biblia* Idazti deuna gertau eban, eta irarteko, Paris'era egindako ostera baten iraŕkintza ikasi eta iraŕkolatxo bat lenengoz toki baztertu areitara eroan eban, kistaŕ ikasti, otoi eta abesti-idaztiak bestientzat egiteko. Grouard yaun agurgaŕiak diñonez, era gustitako lana eginbeaŕa izaten dabe. Arotz, argin, eŕementari, lugin, eguŕgin, margolari, ta arkiteto be bai. Berak diñon lez zetan lan egiten eban itandu ezkero zer erantzun ez ebala yakingo. Eta alantxe da, gotzain gurutza agirian dabela, trontzeagaz zugatz bat ebaten agertzen da ikusi dodan argazki baten... Ortik igaŕi geinke zerbait...

Basati oneik adimen arauzko ziñestea bai dabe. Bein baten gizon gaste bateri Yaungoikoatzaz itz egin eutson eta berak esan eutson: «Aita, nik Yaungoiko bat dagola bai'dakit. Egun baten eizan nenbiĺela, ikuskizun edeŕa begien auŕean neukalarik, uleŕtu neban gure artekoa ez zala, zugatzak, zelayak, mendiak eta eŕekak egin zituana. Euron egiĺea ingalandaŕa be ez zan izan, oŕenbesteko trebetasunik ez daukiela bai'dakit eta... Beraz, neurekautan esan neban; *norbaitek* izan bear dau.....

Toki oŕeitan Grouard yaunak, ikastolak eta gexo-etxeak egin ditu; zortzi lekaime-etxe be bai, eta uri asko irasi be bai, euron artean oin berogetamaŕ urte bedaŕtza zan tokian Winnipeg uria, 200.000 biztanle dituana eta bere izeneko uria be bai.

Eskimaletzaz diño, aiztoa ibiltaldietan eskuan eroateko oitura txaŕa dabela, eta asaŕetu ezkero, bilduŕgaŕi dirala. Oraintsu mixiolari bi il eutsiezan olangoxe asaŕe aldi baten. Yanari gordina yaten ei dabe, eta ikustekoa izaten ei da, aŕaña aŕtu ta burutik bustaneraño ezeŕtarako gertakizun barik, gordiñik yaten. Emakumeak piztien naŕuak... agiñekaz ondu edo kurtitzen dituez, eta biguntzeko txistuaz busti eta maskau (ausnaŕtu) egiten dabez.

Zenbatzeko, atzamaŕak erabilten dabez, baña 10'tik 20'ra beatzakaz, eta ogeitik auŕera... auŕean daukienen esku ta oñetakoak beaŕ izaten dituez... Gizajoai, ez yake otuten, baŕiro euren eskuekaz zenbatzen yaŕaitzea be... Grouard yaun aguŕgaŕiak egin dituan lanak Yaungoikoak bakaŕik dakiz, eta gizon bikain goragaŕi onen lanak zelanbait saritzeko prantzetaŕ agintariak *Legión* dé honneur» kurutza emon eutsoen.

Amaika onen antzeko giza-guren ba'da mixiolarien artean, Yaungoikoagaitik bakaŕik egin leikezan lan izugaŕiak geure anaya gaxoen alde egiten egizko ziñeste ta gizabidera ekarteko eta gizonen eskaŕ barik!..

*D'Harbigny yauna Mosku'n*

Len iñoiz aitatu doguz Rusia'ra gizon ospetsu onek egindako osterak. Oraintsu berak Eŕoma'n bere yoan-etoŕietzaz itzaldi bat egin dau, bera Buru dan «Sarkaldeko Ikastetxe»an. Bere zeregiña eleizkoi utsa izan zala diño, Rusia'ra lengo urtean egin zituan iru yoan-etoŕietan. Pantzetaŕ agintarien agiriekaz yoan zan, eta muga igaro arte eŕusiataŕok ez eben yakin gotzain zanik, uzkurtz ikastietzaz ostera bat egiten yoyana baño.

Auŕeko osteretan lez, al izan eban gustia egin eban, laguntza barik aurkitzen ziran ainbeste biotz pozez betetzen alegindua. Yazokun asko

azaldu zituan eta euron arteizan, bultz eta zalpurdiz asko ibiḹi ondoren, Saboya'taŕ Pantzezke emakume gaxo bateri eleizakoak emon eutsozala. Emakume onek lenago egunoro yaunartzen eban, eta 1917'tik bera eldu arte abaderik ez eban ikusi. Dagoniḹa'ko Andra Mari egunean gotzain - yaupa gizoste andiaren auŕean emon eban. Asko eldu ziran iñoz katoliko gotzañik ikusi ez ebenak. Yaunartze ugariak izan ziran eta mesa amaituta autoŕtzak entzuten yaŕi zan eta pantzeraz, eŕuseraz, alemaneraz, ingalanderaz eta italeraz asko autortu zituan.

22'n Kepa ta Paul deunen eleizan mesa nagosia egin eban eta 29'n Koldobika deunarenean. Iraḹa'ren 5'n ibildeun edeŕa eraldu eban. Iḹaren 3'n gabaz eldu ei yakon sovieten ordelari bat, begiko ez yakela egiten eta bereala urteteko esaten. Agiriak eskatu ta ordu bi baŕu gertu egoteko esan eutson, baŕiro ekaŕiko eutsozalata. Ordu biok luze zamaŕak izan ziran iraḹaren 6'arte iñor ez yakon etoŕita, bitaŕtean ibildeun edeŕa eleiza inguruan eralgu eban. Soviet bazkunak uŕean egozan eta bertatik begira egon ei ziran baña ezertako eragospenik ipiñi barik, eta azkenean gure Yaunagaz gustiak onetsi zituan. Onantxe bere ostera onuratsua amaitu eban.

Rusia'ko katolikotaŕak etsai gogoŕ artean bizi dira, baña alan da be, Mosku'n italitaŕ ordelari dana oraintsu Eŕoma'ra eldu da, eta adirazten emon dau katolikotaŕak goŕiak ikusi beaŕ izan dituen aŕen, bertako gotzain Neven eta Maletski yaunak euren arasoak bete eta eleizkizunak be bete al izan dituela orain arte, Mosku ta inguruetan. ¡Albait lasteŕen azkatasun osoa elduko al yake!

*Ingalanda'ko katolikoak*

*Catholic Directory* urte oneri dagokionak diñonez, Ingalanda'n eta Gales'en 2.055.860 katoliko dagoz. 1926'ko urtean 100 abade il ziran aŕen, ondiño 2.665 abade eta 1460 lekaide dagoz, 18 eleiza baŕi ta 4 eleizatxo idigi dira, eta lenengo ta bigaŕen maḹako 11 ikastola baŕi, baita egunokaz Bourne kardenalak lekaimetxe baŕi bat onetsi dau.

Bide zuzenera datozenak ainbat dira, Yaunari eskeŕak, 1926'n Wemnster'ko eleiz baŕutian bakaŕik 1727 katoliko biurtu dira, beste 4 goterkitan, 1.000'tik gora bakoitzean; eta Ingalanda'ko 18 goterkietan, 12048 protestante katoliko egin dira.

*Mexiko'ko yasarpena*

Eleizaren etsai amoŕatuak gogoŕ diardue, baita adoretsu ango katolikotaŕak euren eskubideak aldezten.

«L'Osservatore Romano'k» diñonez Yalisko'n Eleiza Amaren aldez egin dabelako beste barik, Gonzalez Anakleto, Luis Padiḹa, eta Eriberto Navarrese lege gizon argiak eta beste anai bi Edmundo ta Yorke Vardas gogorkeririk andienaz erail dituez. Baita Guadalajara'n era berean beste anai bi Prantzizko ta Ezekiel Huerta erail dituez.

Gotzañak erbestetuak izan dira, ta yaupari batsuk be erail dituez, ta bitartean katolikoak euren aldetik gogoŕ diardue, naiz agintariak euren kaltezko yazokunak estaltzeko alegin gustiak egin. ¡Otoi dagigun Eleizaren garaitz aldez

*Gotzain baten kemena*

Egunokaz gertatua. Jare gotzain Mac Lasekey, ipaŕ amerikaŕa, baltzen kistaŕ taldeak ikertzen yoyala, bera yoyan «Heitxinhg» eritxon ontzia ondatzen asi zan.

Gotzain onek beste gustiak ontzitik urten eta gaizka bidean yaŕi arte ezeban gura izan urten eta alegin gustiak egin zituan besteai laguntzeko, estu aldi aretan Beste gustiak txalopatxuetan yaŕi ziranean ontziko burua ta gotzaña, eurentzat ez egoan tokirik-eta, uretaratu ziran, eta kaxa bateri oratzeko soria euki eben, arik eta lokaŕi bat beste ontzi batetik yaurti eutsen arte eta alantxe eriotzaren esku-artetik iges egin eben.

Luŕeratu ziranean gustiak, gotzaña buru ebela Yaunari eskeŕak emoteko Silay'ko eleiza batera yoan ziran.

**M'iaŕ G.**

# ANDIK ETA EMENDIK

*Txiña'tar Gotzañak*

Epala'ren 7'n. Pekin'era eldu ziran. Gure Aita Santu agurgari XI'n Pio'k, bertako semeak gotzain eitea erabagi ebanean, txiñarai biotzean ikutu eutsela, orain gotzain barioi egin deutsen arereak agertu dau.

20.000 txiñar baño geyagok gora ta txalo artean artu dituez; eta Aita Santu, gotzain eta Txiña goraka ez dira aspertzen izan. Gizosteak inguruturik eleizara zuzendu ziran, euren oneskuna emoteko. Aratsaldean, Tchao gotzañak, itzaldi edera egin eutsen Aita Santuak Txiña oso maite ebala adiraziaz. Onetan txiñar *ziñesge* bat ureratu yakon eta kurutze erako ari bitxi aldintsu bat gomutakitzat emon eutson, idazkun begiko bat bertan irarita ebala.

Txiñan non lan egin ba'dago. 400.000000 biztanle dituz gitxienez, eta ia gustiak ziñesgeak. Ointxe lan ederto egiteko erea eldu yake bertako gotzañei, baña ango aitu ezindako naspil eta gudakaz zerbait atzeratu egingo da. Yauna lagun, alan da be, katolikotar mixiolariak orain arte baño sutsuago euren lan bikañari yaraituko dautse.

Lan ugari ta langike gitxi dagozala ikusteko ara zenbaki batzuk: Gotzañak, erbestekoak 56 dira; bertakoak, 6; abadeak, bertakoak 1184; erbestekoak, 1.628. Abadegeyak, nagosiak 741, txikiak 1.969.

Lekaideak bertakoak 941; erbestetarak 2.834. Lekaide anayak erbestekoak 248; txinarak 271.

Katolikoak 2.337.951. Kistar - nayak 451.559. Urte baruan bateautakoak 384.499.

Txiña'n katolikoak dauken etsairik andiena protestanteak dira. Txina'n bakarik 6.353 mixiolari daukez, bertako 23.395 laguntzalegaz. Lan onetan dirua eruz eralgiten dabe, euren zabalkunderako ba urtean 38.922.000 dolar eralgiten dabez. Eta yakiña diruaz, izenez beintzat, yaraitzaleak egiten ez da zail be. Gure mixiolariak bariz beti uri dabiz bear diran gauzetarako be, eta ori geuk al dogun giñoan laguntzen ez dautoegulako. Ori lotsagaria da, baña egia... Ziñestearen edertasuna ondo ezagutuko ba'gendu...

Eta amaitzeko Txiña'tzaz diardugun ezkero, beste izpar bat ipiñi daigun. Oingo naspil onetan ainbeste galendu dan Txen Eugenio, Lateri arasoetako ministro, katondaren artean dana, *L'Osservatore Romano*'k London'go izparingi batetik artuta diñonez, katolikoa da, eta Pilipinetan lekaide ikastetxean ikasia. Oraintsu il yakon emaztea be katolikoa zan, baita bere seme bi ta alaba biak be. Obe da katolikotarentzako, eurok dirala ta ez dirala aspaldian goriak ikusi dituez eta.

*«Propaganda Fide»n III'n. gizaldia.*

Izen oregaz orain irureun urte irasi zan Eroma'ko ikastetxeak, urte au ospatzeko Aita Santuaren aurean yai bat egin dau. Yai oretan 15 kardenalegaz eta 22 obispo inguruan dituala Aita Santua egonda. Baita España, Prantzi, Belgika, Baviera,

Rumani ta Yugoeslabia'ko ordelariak be.

Aita Santuak, ikastetxe onen asieratzaz zeŕbait esanda, ziñestea zabaltzeko bideatzaz itz egin eban. Onein artean yoan etoŕietarako eŕeztasunak eta radio uŕutizkiña aitatu zituan. Izan be, egunokaz Ameriketatik Europa'ra egazka etoŕteaz, aldi gitxi baŕu mixiolarien yoan etoŕiak eŕeztuko dirala esan geinke. Radio uŕutizkiñak baŕiz, ikasbidea zabaltzeko eta izpaŕak bialtzeko dauzan onurak gero ta obeto ikusiko dira. Oraintsu, Alaska aldean dan izotz artean dagozan mixiolariak, urtean biŕitan idazkiak artzen izan dituezanak, orain Pittisburg'ko radio-bidez astero edo beintzat saŕitan izpaŕok eta nagosien aginduok yakiten dituez.

Aitatu dogun itzaldian, Aita Santuak, mixiño eŕitarako bertako abadeak ugaritu beaŕ zirala esan eban, eta Ikastetxe arek oŕen ardurea Eleizak beti izan dabela adirazten dabela.

Txiña'ko naspil̄ak aitatu zituan, bertako yazoeran atsekabea agertuaz, eta oso maite dabela esan eban, berez eŕi ona dalako. Orain nasteak atzeŕitik eroandako azi txaŕetik soŕtu dira, eta azi txaŕ eta irakatsi galgaŕiok sartzen diran toki gustietan gizabide, erlejiño gustien eta batez be katolikoen etsairik andienak dira.

Baita mexikotaŕ katoliko kemena goraldu eban ia ezagutu ez dan yasaŕpen gogoŕ onetan euren ziñestea zintso agertzen dabelako.

*Gaspaŕi kardenalaren goralbenez.*

Amaikatxo lan, Eleiza'ren aldez egin daben kardenal goragaŕi onek, lenengo mesa emon ebanetik aurten 50'n. urtea betetan dauz. Epal̄a'ren 31'n. egun ori ospatu eban, ixil̄ik berak nai eban lez,
baña ez dirudi beste-batsuk oŕegaz na
kotu diranik eta andikiroago oril̄a'r
30'n. ospatutea erabagi dabe. Aita Sa
tuak, Ritxard Paris'ko kardenal deuna
azken urteetan erabil̄i eban mesa-ont
edo kaliza emon eutson idazkun gorag
ŕi bat ipiñiaz.

Beronetzaz ara bizitz izpaŕ batsu
1.852'n. oŕil̄aren 5'n. yayo zan. 1.877'
epal̄a'ren 31'n. pilosopi, teoloji, eleiz L
gedietan txapeldun, edo doktor zala esa
eban.

Eŕoma'n iru urtean irakasle izan za
1.880'n. Paris'ko «Institut Catholique»
Eleiz-Legedi irakasle autu eben. 1.89
arte toki oŕetan yaŕaitu eban. Ordua
Peru, Bolivia ta Ecuador'era bere ord
lari XIII'n. Leon'ek bialdu eban, eta Go
gotzain eginda iru urte baŕu baŕiro bi
tu zan. 1.907'n. X'n. Pio'k kardenal eg
eban, Eleiza'ko Legedi baŕia eraldute
batzordeko buru egiñaz. Lan ikaragaŕi
ta astuna benetan, onetan aituak on
dakien lez. 1.914'n. dagonil̄aren 20'
X'n. Pio il zanean, lan ori asko auŕe
tuta egoan, eta 1.917'eko oŕil̄aren 27'
bera Aita Santuaren idazkari zala, Leg
di beaŕeko ori, gustien goralbenez i
gaŕi zan.

Benedito XV'nak bere idazkaritzat
nengo Feŕata yanskorduna autu eba
baña au Batikanora aldatzeko asti ba
iru aste baŕu il zalako, Gaspaŕi yau
onetarako au eban. Eta 1.922'n. XV
Benedikto il zanean, bere ondorengo g
re Aita Deun aguŕgaŕi XI'n. Pio'k, be
terik ez eban autu, lengo tokian bere
guntzal̄e izatea nai izan eban. Auxe
goralbenik edeŕena, eta bere lana zela
goa izan dan be ezaugaŕirik onena. ¡L
te askotarako izango alda! **M'iaŕ G.**

JAUNGOIKO-ZALE'ren Irarkolan.— Zornotza'n.

# ZER EDO ZER

## ZUZENZALETASUNA

Egiak zintsotasunera lez, onek, gizona zuzenzaletasuneraa daroa. Egiak zintso, *zuzenzale* egiten gaitu. Lengoan zintsotasunaz zerbait esan gendun lez, gaurko yarduna zuzenzaletasunatzaz izango da.

*Zuzentasuna.*

Itz edeŕa, gustien txaloz goraldu ta gizon gustiak eskatzen dabena, aoz beintzat. Itz au era askotara erabilten da; baña batez be, onoimen gustien batza adirazteko, alan, onbidetsua danari zuzena saŕitan esaten dautsogu. Baña berariz, geideagazko aŕtu-emonetan zuzentzen gaituan onoimenari zuzentasun izenaz deitzen dautsogu.

Bere mamiña zein dan zeatz adirazteko, saŕitan yakitun eta ez diranak be, «bakoitzari berea» emotea dala esaten dabe. Oŕeixek «berea» zer dan yakiteak emoten dau zereginik asko. Saŕitan «beretzat» aŕtzen da iñorena dana, eta ori «zuzentasun okeŕa» litzake.

Anbortzi deunak argiro ta edeŕto diño, zuzentasuna bakoitzari bere izatea zaintzea dala. Au da, bere izatetik sortzen diran edo bakoitzaren izateari dagokiozan eskubideak zaintzea dala.

Esan beaŕik, ba, ez da zuzentasunaren edeŕtasunak eta onurak zelangoak diran, ortik bake, zorion, eta on gustiak sortzen dirala eŕez igaŕi geinke-ta.

*Zuzenzaleak berez,*

Gizonak, egia lez, zuzentasuna be berez lez maitatzen dau, bere aldez bultz egiten dautson lera, igaŕi barik bere baŕuan sortzen yako.

Zer dan yakin baño len, eta zergaitik gauzak zuzen diran yakin auŕetik, okeŕ dagozan gauzai igaŕi egiten dautse, eta min aŕtuaz asaŕea agertu eragin. Eta ori gizonik basatienak be bai. Yoan gaitezan euren artera eta ezertako zio barik batsuei txera ona eta besteak gogorkeriz aŕtu daiguzan, eta ikusiko dogu bereala euren asaŕea agertzen dabela. Ori *zuzen*

ez dagola *igaŕi* dabe. Umeak be euren adimen-izpiak sortu orduko orixe egiten dabe. Norbait zio barik zigortu edo saritu egizue, eta bardin irabazi dabenari ez emon; ikusiko dozue zelako «protesta» zintsoa euren biotzetan sortzen dan. ¡Oŕexegaitik ain begiko egiten yakuz!

Zegaitik dan ori? Yaungoikoak egizaletasunaz zuzenzaletasuna giza biotzetan erein dabelako. Zegaitik dan ez dabe yakingo, baña zuzen ez dagoala bai.

Onetan eresiaz gertatzen dan antzera yasoten da. Zerbait «belaŕi ona» daukana, okeŕ abesten zerbait entzuten dabenean, musikarik yakin ez aŕen, berealaxe artegatuko da; zergaitik txaŕto dagon ez dau yakingo bear ba'da, baña ondo ez dagola bai.

Alan da be, egizko

### *Zuzenzale gitxi*

ikusten da gizartean. Gustiak izan beaŕ leukiela esan leike, baña gitxi dirala, begien auŕean daukogun egi samiña da. ¿Ori zegaitik ete da?

Rousseau'k, beste kirtenkeri batsuen artean, gizona on eta lera txaŕ bako yayoten zala esan eban eta gizaŕteak gaizto egiten ebala. Eta ori ez da egia. Gizona lenengotan Yaungoikoak zuzen egin ebala, egia da, baita ziñesteko egia, yatoŕizko obenaz zuzentasun-bidetik aldendu zala, eta txaŕera makuŕtuta gelditu zala. Baña bere izatea ez eban galdu, eta andik *yausitakoan* antzera, Yaungoikoa'gandik datoŕena dala igarten yako. Baña griñak, bere gizatasunaren aurka yagiten diralako, ardura andiz zaindu ezik, bere ontasun eta zuzentasun landarea, arantzaŕtean itota lez gelditzen da. Beraz gizonak zuzenzale egitez izateko, bere griñakaz buŕuka gogoŕ egin beaŕ dau, gustiz bezau aŕte. Eta ori egiteko, gizon lez yokatu beaŕ, eta ori egiten dabenak gitxi diran artean, zuzenzale gitxi izateaz ez gara aŕitu beaŕ.

### *Guzuŕezko zuzenzale asko*

Nai aña ta geyago, non nai aurkitu geinkez. Bidean, kalean ta non nai aurkitzen doguzan gustiei zuzenzaleak diran itanduten ba'dautsoegu, ezetz erantzungo dauskunik bat ez dogu aurkituko. Ijitoak esan oi daben antzera «*gustiok zuzenak gara*»... Onen ondoren kontu egin daigun beaŕtsu bateri bidebagekeri bat egiten dautsoela. Zuzenzale dirala esan dautzuen gustiak ekaŕi egizuez, batak «*ori ezta ezer*» besteak «*zer dotsa ba*» eta irugaŕena okeŕkeri ori berari ondo ba'datorkio, iŕibaŕetxo bategaz aldenduko da, eta norbait egiz zuzenzale, txindi ta egitez beaŕtsuaren alde urteten ba'dau, *benetako* gizontzat eukiko geunke. Onek zer adirazten dau, egiz zuzenzaleak gitxi dirala baño? Baña egin daigun bidegabekeri ori gizon aldun edo aberats bateri egin dautsela; orduan bai bere alde zuzenzale (?) ugari... Izan be, dirua eta indaŕa norberagan daukazanak *eŕesoya* eukiteko askoren beaŕik ez dauko... Ondiño geyago. Len iŕibaŕe eginda aldendu danari, beaŕtsuari egindako iraña egiozue, eta arteak aŕtu ezinda aŕituta gelditzuko da, zeru ta luŕak bere aldez yaŕtzen ezpadira.

Itz baten askoren zuzenzaletasuna auxe dala esan lei: «Gustia neuri zor yat; eta zuzentasuna bakoitzari berea emotea dalako... gustia neuretzat eta bestela ez dago zuzentasunik».....

Ori esan, ez da ain garbi egiten, baña esanda baño obeto egiteetan eŕi ta lateŕi artean, eta gizartean ikusten da... Oŕexegaitik beti gudaldietan *auzokoak* eŕu-

dun izaten dira... Geuri «zuŕean txurik» ez daiguela egin...

*Egizko zuzenzaletasuna*

oŕen antzeko be ez da. Besteren eskubideai itzalez begiratu ta zaintzeko agintzen dausku; beraz Yaungoikoari, geure eŕiari eta lagun urkoari zor dautsoguna ordaindu bear dautsogu. Eta oŕetaraxe zuzendu beaŕ dira batez be umiatzazko guraso ta irakasleen lanak.

Bakoitzari berea, eta gustiok Yaungoikoari zor dautsoguna emonaz, egizko «zuzentasun zuzena» saŕi ikusten dan «zuzentasun okeŕa»ren ordez giza-bioyabetuko da.

*Eta egiñean be*

Yaungoiko Zale'n arazo edeŕa orixe da. Yaungoikoa'ri zor dautsogunagaz, —«bakoitzari berea ta euskaldunei eus-



Foto Axubita

LEKEITIO: Austria'ko Enperatriz Zita, bere semiakin atzeŕituta bizi dan jauregia.

Itzalez zaindu menpekoen eskubideak, eta zuzentasuna itzez baño egitez obeto irakatsi, eurak Yaungoikoagandik aŕtutako izkuntza, naiz ta euskerea izan, aintzat aŕtuta, zapaltzeko bidebagekeria egin barik. Olantxe Yaungoikoak umeen biotzetan erain daben zuzentasun-azia, asi ta mardulduko da. Orixe da gizon zuzenzaleak ugaritzeko bidea...

kerea» emoten irakatsi. Biotzetan goiko egizaletasunaz, zuzenzaletasuna zabaldu, itz baten Yaungoiko-zale egizkoak ugaritu, orixe da gure Yaun maiteari berenez dagokion Eŕegetza biotz gustietan zabaltzeko biderik onena-ta.....

Zuzenzaletasun aldez ba, Ekin eta Yaŕai....!

GAMA.

# ZORITXAR, ALA ZORION BIDE?...

Atsekabean
biotz samiñaz
dakust nik saŕitan
gogo gaxoa,
negaŕ malko beroz,
arpegi goŕiaz
naigabez beterik
bere gogoa.

Yaunaren auŕean be
belaunbikoturik,
eskatuten dautso,
laguntasuna,
ezbeaŕ latz batek,
naigabe samiñak,
ostu dautsolako
bere zoruna.

Luzaroan ekin
aŕenka eskatzen,
gure Yaun onari
beren eskaŕa,
baña ez dau lortzen
*berak nai* dabena;
geriza lez lagun
dau zoritxaŕa.

Ziltzaldi azpian
orduan yausten da,
tamalez saŕitan
gogo gaxoa,
usterik otoya
alpeŕeko dala,
galduŕik zertxobait
bere itxaroa.

Ez al daki baña
gogo argal oŕek,
Yaungoikoa bere
Aita dabela,
ta maitasun utsez
poztasun, nekeak,
bizitza onetan
nastu dauzala?

Ziñesgogoŕ oŕek
ez ete daki ba,
erbestea dala
bere bizitza,
eta besterako
beaŕeko daula
gogoz maitatzea
*bere* kurutza?...

GABIRE

# BETHLEEN ABADEA IDAZTI LIZUNEN AURKA

Bethleen abadea, Paris'en argitaltzen dan «Revue des Lectures» aldizkingi ederaren zuzendaria da. Bertatik lan gogoŕ egiten dau, baña langile sutsu, zintso ta adoretsu onek, irudiz apaindu edo obeto zikinduriko irakuŕgai lizunen aurka beste bide bat aŕtu dau.

Kiosko ta geldokietan ainbeste kalte egiten daben irakuŕgayak agirian ikusirik, eta galerasteko iñok ezer ez ebala egiten, auxe bide zuzen au aŕtu dau: yoan, dagozan tokian aŕtu ta apuŕtzea. Bide latz xamaŕa ta *olakizko* kristiñauentzat apuŕ bat *zera*... baña zerbait egingo ba'da, ortik asi beaŕko da.

—Nik—diño berak—iñok galerasteko ezer ez ebala egiten eta olako irakurgayak agirian dagozan tokian aŕtu ta apurtzea otu yaten. Gaitza auŕera doa, aurka iñor ez da yagiten, gai onetzaz itz egiten danean, gustiak lozoŕoan dagozala esan lei... katolikoak be bai... Umeak batez be ondatzen dituan eden edo *bereno* dira irakuŕgayok, beraz... lan egin beaŕ da...

Zortzi aldiz yoan toki oŕeitara oste andia zegoan aldian, agirian egon diran irakuŕgai lizunen iyeki batsuk aŕtu ta apuŕtu egin ditut. Saltzaleak ez dauste gogoŕik egin baña, epaikariak beragana deitu daust... Nik auxe erantzun dautset:

«Iñoren ondasunetan kalte egin dodalako deitu deustazue. Nik ori autortzen dot, baña nik egin dodan ori egiteko *beaŕkuna* edozein gizon zintsok dauko. Esaterako: Nik gizon bat kalean aurkitzen dot ume bateri berenoa emoten dautsola ta yoanda kendu ta ezereztuten dot. Besteen ondasuneri kalte egiten dautsot. Alan da gusti be, ori egiteaz, gizartea zaindu beaŕ daben agintarien txaloak irabaziko nintuala, eskubide osoz ziñestuko neunke.

Oin ipiñi dautzuedan adibide onek, nik egin dodanaren antz andia dauko. Nik uste dot, apuŕtu ditudan, eta erea eldu daitenean apurtuko ditudan aldizkingi ta idazti lizunak, beneno, eden gustiz kaltegaŕiak dirala. Nik au ziñesten dot... Saint-Etienne endore Soulié ta Lion'go dan Heŕiot yaunak emondako epayaz bat egiten dodalako. Idazti oneik Yaungoikoaren irudira egindako gogoak pozoi edo berenotu egiten ditu. Berak erositako gogoak eta zerurako egin dituanak».

Eta irakuŕgai ondatzaleok, eŕia, abendea ta oitura ondatuten dituenok, agindu beaŕ dabenak galerazten ezpaditu, gizon zintsoak, eskubide ta beaŕkuna dauke, aren utsak betetako».

Eta amaitu eban esanaz, edo legeak bete eragin edo bera buŕuka onetan yausi arte yaŕaituko dabela.

Itzok bertan egozanak txaloka aŕtu ebezan, eta bere aldezlariak agertu zituan zioak be entzun ebezan aŕen, epaikariak bi franko ordaintzera zigortu

eban. Oŕeri baŕiz zuzentasuna deituko dautsie...

Eta izan be, norbaitek esnea berenoaz nastauta dakaŕela beste batek ibaira bota ezkero gustiak txalotuko leukie, eta gogoak ondatzeko (eta gorputzak be bai) gai diran irakuŕgayak apuŕtzea zigoŕtu....?

Ori Paris'en egin ebanean lenengotan batsuk aratu ziran, geroz Bethleen abade zintso au begiko egin yaken, eta orain asko beragana eltzen dira zorion-aguŕa emon eta bere lana txalotzen.

Berak ezertako bilduŕ barik auŕera yaŕaituko dabela diño. ¡Edeŕto!

Irakurgai onek an eta *emen* be egiten dituen kalteak izugaŕiak dira, gasteri gustia lizunkeriz usteltzeko gai dira-ta alan da gusti be, ¿zer egiten dabe eŕietan agindu beaŕ dabenak?, ¿zer gurasoak? ¿zer katolikoak? eta geuk be zer egiten dogu? Egin beaŕ genduken gustia bai..? Bayetza pozik entzungo geunke.

Gaya gaŕantzitsua da, geuk apuŕtzen ezpadoguz, eurak gure lan gustia ondatuko dauskue. Au ondo ezagutu dabe Eŕoma'n ete Aita Santuaren aginduz ointxe erabagi gogoŕak aŕtu dauz Eleizak, gotzañak eta gustiok batera irakuŕgai lizunen kaltez, lan gogoŕ, gogoz eta sutsu egiteko.

Ekin ba....!

GAMA

# ANDIK ETA EMENDIK

*Prantzitaŕ katolikoak.*

Langil̃e ta eraŋak dirala ezin leike ukatu naiz ta askok ori uste ez izan. *L'Action Francaise*'ko lendakarien irakatsi gaizto ta *abertzalekeri* burugogoŕak batsuei, Aita Santueri, katoliko dan eta izan gura daben edonok, zoŕ dautson menpetasuna galdu eragin dautsen aŕen, zintsoak alkaŕtzen gogoŕ diardue. Arek, auzi au baño lenago Merzier kardenal ospetsuaak Mauŕas'eri esan eutson lez, «Eleizea, euren asmoak auŕera eroateko laguntzat gura dabe, eurak Eleizearen menpean lan egin beaŕean», baña zintsoak euren asmoak Eleizearenakaz bat eginda Kristo'ren gudari zintso lez yokatuteko gertu dagoz, emen ipiñiko doguzan zenbakietan ikusi geinkenez.

Igandero gizonen batzaŕak eginten diardue eta eurotan batu diranak il̃e bian onexek dira:

| | | | |
|---|---|---|---|
| Epal̃a'ren 27'n | Fougeres'en | 7.000 | gizon, |
| Epal̃a'ren 29'n | Rodez'en | 2.000 | » |
| Yoŕal̃a'ren 3'n | Carcasona'n | 10 000 | » |
| » » | Lunevil̃e'n | 10.000 | » |
| » » | Orleans'en | 7.000 | » |
| » » | Aire-sur-la-Lys | 2.500 | » |
| Epal̃a'ren 18'n | Argentan'en | 10.000 | » |
| » » | Uztaritz'en | 1.200 | » |
| Epal̃a'ren 24'n | Folgoet'en | 60.000 | » |
| » » | Revel'en | 2.000 | » |
| » » | Mirecourt'en | 3.000 | » |
| Oŕil̃a'ren 8'n | Annecy'n | 25.000 | » |
| » » | Epinal'en | 15.000 | » |
| » » | Vernon'en | 3.000 | » |
| » » | Rouen | 3.000 | » |
| » 15'n | Arras'en | 20.000 | » |
| » » | Besançon'en | 20.000 | » |
| » » | Nevers'en | 6.000 | » |
| » » | Bourg'en | 20.000 | » |
| » » | Chaumont'en | 6 000 | » |
| » » | Limoges'en | 2.000 | » |
| » » | Vilny le François'en | 1.500 | » |
| » » | Chatellerault'en | 1 500 | » |
| » 25'n | Ivetot'en | 22.000, | » (17 m. giz. ta 5 mil̃ (emakume) |
| » » | Lous le Sauvier'en | 18.000 | gizon |
| » » | Puy'n | 15 000 | » |
| » » | Gordon'en | 10.000 | » |

Uste dogu ba, zerbait egingo dabela, ekiñaz beti egiten da-ta.

*Izpaŕak.*

Il̃a onen 26'an egun gomutagaŕia Bilbo ta Bizkaiko katolikotaŕentzat izango da. 45 metro ertilan edeŕaren gañean gustiz uŕeztutako Yesus-Biotz irudi edeŕa onetsiko da, eta Bizkai gustia Berari eskiñiko yako gustion yaube autortzen dogularik, Bere egizko eŕeñua geuregandu daigun.

* * *

Eŕoma'ko Koliseoa'n oraintzu onetsi dabe, Kurutze edeŕ bat, bere aldez toki aretan ainbeste odol edeŕ izuŕi eben kistaŕ zintsoaren gomutaz. 1874'n Eleizaren etsayak kendu egin eben eta orain agintarien baipenaz baŕiro ipiñi dabe.

* * *

Baita Laterono'ko eleiz edeŕaren auŕean Asis'taŕ Prantzizko deunaren irudi edeŕa onetsi dabe, bere eriotzaren VII'n gizaldia ospatzeko.

* * *

Il̃a onen 15'tik 19'ra, Madrid'en Irugaŕendaren Batzaŕ andi bat egingo da, Pantzezka'tar gustiak eralduta Gustiz edeŕa izango da iragaŕkietan ikusten danez. M'tar G.

JAUNGOIKO-ZALE'ren Irarkolan. — Zornotza'n.

# ANDIK ETA EMENDIK

*Protestanteak eta Lourdes'ko mirariak*

Lourdes'ko alatz edo mirariak dirala-ta amaikatxo kirtenkeri esan eta idatzi dira. Bederatzi milatik gora dira mirari oneik asteŕtu dituezan eta ontzat emon dituezan osagile yakitunak; baña ba'dira orain sortu dan Lafora'n antzera, yakitun (?) izateko olango gauzak aintzat ez artzea beaŕekoa dala uste dabenak...

Baña, euren yakituri usteaz *leloturik* dagozanak gora bera, egiak egi ta egiteak egite izango dira. Eta egi ta yazokunak, gogo itsuai ez aŕen, gogo onekoai begiak idigi eragiten dautsez.

Mirari edo alatzak *al dirala, izan dirala* eta *ba'dirala,* egi bila dabilenak ukatu ezin leikena da, naiz ta yakitun ez diranen artean izen oŕegaz deitzen dautsen asko, mirari ez izan.

Eta alatzak izan eta ba'dirala egiztuteko Goizpaŕki edo Ebanjeliokoak ain edeŕak alde batera itxita, deun egiteko Eleizeak eskatzen eta aintzat aŕtzen dituanak ukatzeko, yakitunen mugatik *beste aldera* igarota egon beaŕ da. Baña ba'dira beste batsuk iñok ukatu ezin leikezanak, Lafora ta lagunak aurka yaŕi aŕen. ¡Protestanteak be egitzat emoten asi dira-ta.. zerbait izango da!

Ara autortze bat. Wimbledon (Ingalanda'n) oraintsu egin dan batzaŕ baten, Rankin yosulaun abak, Lourdes'ko mirarietzaz itzaldi bat egin eban entzule geyenak protestanteak zituala. Itzaldia amaitu ebanean, Sherry osagile protestantetaŕ yakintsua yagi zan eta gustien auŕean autortu eban Lourdes'ko osatzeak miraritzat eukazala.

Berak bere begiz ikusi zituala Lourdes'en olango osatze bi, bata azuŕetako txantxaŕa, eta bestea anditu aritsua (tumor fibroso), eta biak bapatean gustiz osatuta gelditu zirala. Osatze biok aŕetaz azteŕtu ei zituan, eta eurok bapatean osatzea mirarizko zala ezin leikela ukatu, esan eban.

Bederatzi milatik gora izan dira Lourdes'ko gertaerak aztertu ta ontzat emon dabezan osagile yakintsuak, alan da be beti agertzen dira, gau txorien antzera, aztertu barik, argitik iges egin ta ukatzen azaŕtzen diranak. Gau txoriak zer esango dau ba, eguzkiatzaz....!

*Mexiko'taŕ Gotzañak.*

Izpaŕingietan, guzuŕ asko, ta egiaren laurenik etoŕi ez aŕen, ia iñon ezagutu ez diran basatikeriak Kales'ek-eta egiten dituezala, bertan egon diranen bidez eta idazkiz yakin dira. Katolikoa izan ezkero, erailteko aitzaki gitxi beaŕ dabe, eta ainbat dira oraintsu be, Kristo'ren alde adoretsu bizia emon dabenak. Gaur baña gotzañen baŕi bakaŕik emon gura dogu.

Oraintsu lengoez gañera, Agiŕe, Ramos ta Palomar gotzain yaun aguŕgaŕiak erbestetuak izan dira. Baita Yukatan'go gongotzaña be. Mexiko'ko gotzain gustiak 33 dira, eta eurotatik 16 be.girune barik erbestetuak izan dira. Enparau 17'etatik, 7 eŕi buruak zaintzalepean daukez, 6 eskutauta dagoz; 4 bakaŕik dagoz euren tokietan, Vera cruz, Chiuhauha, Colima ta Oxilapa'koa. Baña oneik be dirudienez laster erbestetuak izango dira. ¡Benetan eŕukaŕi dira mexikotaŕ katolikoak, artzain bako artalde gaxoen antzera otso amoŕatuaren agin artean aurkitzen dira-ta! Otoi euren aldez!

Mexiko'ko gora-berak dirala-ta, ango ordelariak, agintarien aginduz, guzuŕ biribilak zabaldu dabez, yazokun ikaragaŕi ta ankeŕen baŕiei gaŕantsia kenduaz; alan ba, Kales'ek lagatzen dabena bakaŕik esan leikie izpaŕingi ta uŕutizkiñak, eta esan beaŕik ez da zortzigaŕen agindua aintzat ez dabela artuko, Yaungoikoari ain lotsa gitxi dautsoenak. Alan da be egiak bideak zabalduko ditu. Eskuartean daukogu «Las Catacumbas de Mexico» Michoac'eko txaunburuak, batez be Madrid'eko mexikotaŕ ordelariai erantzuteko idatzia, eta agiriekaz goitik bera guzuŕtauta izten dau.

*Kardenal baŕiak.*

Il onen 20 ta 23'n (1) egingo dan Konsistorioan Aita Santuak kardenal baŕi bi egingo ditu. Bata, Yoseph Ernest Van Roey yauna 1874'n. yayo zan, eta 1897'n. yaupa emon eban. Lovaina'ko irakastetxe ospetsuan sei urtean teoloji irakasle izan ondoren, Merzier yaunak bere laguntzat autu eban, eta 20 urtean lankiderik onen lez euki eban. Bestea, Kakowski, Gnezmo ta Poznan'go gongotzain polonitaŕaren ondorengoa, 1881'an yayo zan, eta berau yanzkordun gazteena izango da. Salestaŕa da. Yaupa 1905'n. emon eban, Aldi baten gopatzako erki-buru izan zan, eta 1925'an Gongotzain egin eben.

**M'tar G.**

(1) Bagilean idatzia da idazki au.

JAUNGOIKO-ZALE'ren Irarkolan. — Zornotza'n.

# Andik eta Emendik

*Ikasi umeak... eta ez diranak*

Arjel'ko gongotzaña, oraintsu bere ikertaldia egiten Isserville Kabylia'ko eŕira eldu zan.

Eŕitaŕak oi diran ondo etoŕiak emoten eldu yakozan eta euron artean 17 urtedun neskatiḻa batek, beragana eldu ta beste barik, Bateo deuna eskatu eutson. Baita adirazi eutson egunoro bere lanak amaitzen zituanean, gau gustietan kristiñau ikasbidea ikasten ekiten eutsola.

Bakaŕik ikasi ta uleŕtzeaz, Leynard yauna aŕitu zan, eta azteŕtzeko itaun batsuk egin eutsozan, eta baita neskatiḻa zintso onek ederto erantzun be. Au ikusirik itxaron barik, gongotzañak (arzobispoak) Bateo, Sendatza eta Yaunartza sakramentuak emon eutsozan.

Bere adiñeko amaika «kaskamotz'eri» ikasbide edeŕa emoten dautse «basati» izan aŕen, Europa'ko buru arin askok baño sentzun geyago daben neskatiḻa txalogaŕi onek!...

*Txina'ko mixiolariak.*

Txikago'ko izpaŕingiak diñoenez, Txina'n 6.000 mixiolari «protestante» dira, eta eurotatik euneko larogeik, aurtengo urtearen azierarako alde egin eben. Katolikotaŕak ainbeste ez dira, baña bai langiḻe adoretsu ta gogotsuagoak. Ango naspiḻak gora-bera besterik ezean euren tokietatik aldendu dira. Askok eriotz gogoŕ eta neke samin asko iruntzi dituez, euren tokitik urten barik, menpekoen gogo aldez bizia emoteko gerturik...

Txiña'n lan egiten daben katolikotaŕ mixiolariok onexek dira: Prantzetaŕak 642; Italitaŕak 266; Beljikaŕak 214; Españaŕak 176; Olandaŕak 134; Amerikaŕak 75; Alemandaŕak 56 eta Irlandaŕak 29. ¡Albait lasteŕen bakea elduko al yake orain arte lez ekiteko!

*India'tar katolikoak.*

Indietan, Birmania ta Zeylan'en 3.242.000 katoliko dagoz. Mixiolariak, 3.444 dira 2.277 abade ta 1.167 lekaide. Oneitatik 2.000 bertakoak.

Urtean 50.000 katoliko egiten dira, eta Yauna'ren laguntzaz beste iru bider geyago egingo litzakez, langiḻe geyago ba'legoz. Tamalez mixiolari gitxi dagoz. 690.000 tokitan banandutа dagoz kristiñauak, eta oneitatik 1.500 toki bakaŕik dira euren txaunburua dabenak, au da 452 tokitatik batek. ¡Tamal andia! Otoi dagigun Yaunak langiḻeak ugari bialdu daizan.

*Egazkiñak ziñestea zabaltzeko bide.*

*L'Osservatore Romano*'k diño, Pinedo'n egazkada aŕigaŕiak dirala-ta, batez be gizon ospetsu onek ikertu ondoren, Aita Santuak egazkiñen yoan-etoŕiai aŕeta andiz begiratzen dautsela, onetan auŕerapideak egitea ziñestearen zabalgunderako egoki etoŕiko dala uste dabelako. Ara Bere itzak: «Kolon'en itxasontziak Kristo'ren Agintzea, ezagutzen ez ziran toki uŕiñetako eŕietara eroateko bide izan ziran lez, bardin egazkiñen egoak mixio lanak eŕeztuko ditu eŕietan,

batez be guzuŕezko il̄umpean bizi eta egiaren argia ikusi gurarik dagozanen artean».

*Louŕdes'era ibildeunak.*

Garai onetan beti oi dan lez, Lourdes'en lateŕi gustietatik gizozte ugariak biltzen dira, ziñestea autortu ta Ama Eŕukitsuagan dauken uste osoa agertzen. Egin diran ibildeunetatik edeŕenetarikoak Kataluñatik lengo il̄aren azken aldian, eta il̄ onen azieran Euskaleŕitik egin diranak izan dira. Andik 10.000 bidezti 600 gexogaz, emendik 5.000, bidezti, 400 ingurugaz. Eta ostera onetan be Ama Samuŕak bere almen altsua agertu dabela esan lei. Beintzat Pasajes'ko bost urtedun neskato elbaŕitu bat gustiz osatuta etxeratu da; eta Barzelona'ko bidezkundian be, belaun-azuŕa auzita eukan mutil gazte bat, bapatean osatuta, ikotika eta iñon geldi egon eziñik bidezti gustiak ikusi dabe. Auzitako azuŕa bapatean sendatzea, eta belaun azuŕa atan be, ez da osagil̄eak egunoro egiten dabena gero!...

*Aurtzaro deuna.*

Ziñesgeen umeai goiko bidea irakasten laguntzeko umeen artean batez be zabalduta dagoan bazkun edeŕ au auŕera doa. Il̄ean txakuŕ txikika igesko urtean 20.961.492'92 pranko bialdu ditu. Iñozko urtetan ainbeste ez da bildu. ¡Yaunari eskeŕak!

**M'laŕ G.**

# Andik eta Emendik

*Mexiko'ko yazokunak.*

Ango katolikotaŕ gaxoak kurutzbide latzean auŕera doaz, agintari gaiztoen amoŕua dala-ta. Katolikotaŕak edozein aitzakigaz, batez be abadeak izan ezkero, gogoŕkeririk andienaz erailten dituez, uŕengo izpaŕetan ikusi geinkenez.

Yoŕailaren 25'n, Leon'en J. Trinidad Rangel, abadea, Sola Ander, aba, M. B. S. ta Leonardo Perez kistaŕ laua ankeŕkiro erail dituez. Gaiztakeririk baltzenak ezaŕi ta bultzi ondatzale lez zigortu zituezan. Euren nekaldia eroapen andiz igaro eben eta alkaŕi ta alboan eukiezan gazteari azkitza (absoluziñoa) emonaz bereala pusilez zaurituta luŕera yausi ziran.

Bagilaren 16'n abade bat bizirik eŕe ta beste 17 izkiluz il dabez. Toiuka'n Manuel Bonillas gastea kurutzan yosi ondoren pusilez erail dabe. Guadalajara'n Sabas Reyes yauparia benzinaz busti ta bizirik eŕe eben. Baita egun gitxi diraia Leon'go katolikotaŕ ikastetxeko nagosia beste inguruko txaunburu eta laguntzaleagaz il dabe.

Eŕukaŕiak dira, ba, ziñez mexikotaŕ gure anayak azkenengo orduan be eurak aŕenka eskatuaŕen ondo ilten laguntzeko abade barik aurkitzen diralako, kurutziari mun egin eta obenak gustien auŕean autortzen bein baño geyagotan ikusten dira. Uste osoz itxaron geinke Yaunaren eŕukiak ez dautsela utsik egingo, baña eŕukaŕiak benetan dira!...

Gaiztakeriak eskutau eta an ezer ezpalitz gertauko lez, guzuŕ zabaltzaleen aurka naiko da Aita Santuak emondako berarizko eŕeztasunak gomutatzea.

Mesa deuna, gotzañei ondo eretxi ezkero, yaupariak esan leikie oi diran yantzi ontzi ta emparau gauza barik. Eta beaŕeko atalak eskintza, oteuntza ta yaunaŕtza bakaŕik izan leitekez, besterik ezin danean. Ilten dagozanai edozein gizon, emakume naiz umek Yauna eroan leikioe ontzitxo baten!... Eta naikoa da gaxoak zelan dabiltzan igarteko. Lotsagaŕia da gero XX'n gizaldian Tarsizio deunaren aldietan lez ibili beaŕa, eta lotsagaŕiago gizabide (zibilizaziño) zaintzale lez agertu gura daben lateŕiak olango basatikeriak ikusita, zirkiñik egin barik egotea. ¡Ondiño basatikeri andiagoai begira ete dagoz?...

*Ipaŕ Amerikatik.*

Azkenengo zenbatzak diñoenez Lateŕi Batzan 24 990 abade dagoz; 17.651 eleiza; 6.905 eleiz-ikastola eta ostantzeko lekaide ta lekaime (monjanak) 737, neskatilentzat, eta 218 mutilezkoentzat, eta goragoko malako 2.000 ikastola. Katolikotaŕak igesko urtean 61 ikastola baŕi bigaŕen malakoak idigi dabez 201.000 ikaslegaz. Eleiztaŕak 741 erietxe ta eŕukietxeri eutsiten dautse. Eta igaŕirik izpaŕingiak gauŕ egunean zabalkundea egiteko beaŕekoak dirala, oŕetarako be dirua bialtzen asi dira, eta ez gitxi be. Aurten katolikotaŕ izpaŕingien eguna egiten asi dira, eta egun oŕetan 12.126.324 laurleko batu dabez; Dirutzea da gero!...

*Egazkiñak mixiolarientzat.*

Lengo zenbakian aitatu gendun, gure Aita guŕgaŕi XI'n Pio'k egazkiñak mixiolarien lagungaŕi onak izan leitekezala adirazi ebala. Ba egin-egiñean be egunokaz Berlin'en ango katolikotaŕ mixiolari bazkunak egin daben batzaŕak, Stxulte abaren eskariz, mixiolarientzat egazkin mordoa egiteko erabagia aŕtu dau. Stxulte abak egazkiñak erabilteko agiria ba'dauko.

Esan beařik ez da ain langiĪe gitxi dagozan artean yoan etořietarako, eta toki uřin eta bazteřtuetan dagozan kistařai laguntzeko egazkiña egokia izango yakela.

Ořez gañera radio uřutizkiñen bidez alkařen bařì eřez yakin leikie, eta itzaldiak egin be bai. Beintzat Atabaska ta Mackenzye inguruan dagozan mixiolariak, len bidaria urtean biřitan artzen ebenak, oin noizik noizera, sařitxotan euren nagosien izpař eta aginduen bařì radio bidez yakiten dituez.

*Yapondař gotzain bařia.*

Yakiña da Gure Aita deun XI'n Pio'k eři bakoitzean bertako gotzañak egiteko asmoa ařtu ta gogotik betetzen dabela. Gustion gomutan dago sei gotzain txinařak ondiño urte bete ez dala autu zituala. Orain yapondař bategaz orixe egin dau. Nagasaki'ko gotzain J. Hayasaka yauna autu dau. 1885'n yayoa, bere ikasketak Eřoma'n egin zituan, eta Yapon'go Aita Santuaren Ordelariaren idazkari izan da. Gotzain au Yapondařetan lenengoa dalako Aita Santuak berak gotzaintzea emon gura dautso, eta dirudienez eleizkizun ori uřiĪaren 28'n izango da; orduantxe XI'n Pio Varsovia'n gotzain egin ebela 8 urte betetan diralako.

*Izpař txořta.*

Bordeaux'en 90 urtedun il da Anjelika Kamau pantzetař goř-itzgeen bazkunako lekaime burua. 1837'n Bayona'n yayo zan eta oso gazterik Nevers'ko lekaimeetan sařtu zan. Andik urte bi bařu len aitatu dogun bazkunan sařtzeko urten eban eta baita bertan iraun eriotzararte. Bere adimen argia eta biotz edeřa goř-itzge gaxoai laguntzeko erabiĪi zituan. Itali, Belgika, Olanda ta Alemania'n ibiĪi zan, gaxo onei laguntzeko erarik onenak aztertzen, erarik onena aukeratzeko eta *ponetika* bidezko irakaskintzaren onurak zabaltzen alegindu zan eta onetan bera izan zan lenena. Guda aldian zaurituak zaintzen lan asko egin eban.

Agintariak eurak, Loubet alditik asita, *Legion d'honneur*'ez gañera beste sari asko emon dautsoz, eta 1878, 1893, 1900 eta 1909'ko Erakusketan uřezko domiña irakazitakoa da. Eta alan da be askok ezin ikusi dituez!...

Oraintsu Octavio Kajiano Azevedo kardenala il da. 1845 yayoa, 1915'n kardenal egin eben. Kardenal au ez da gotzain izan, banaka batsuk gotzaintza ařtu ez dabenak izaten dira-ta.

Egun gintxin bařuan Beljika'n gotzañik zařena ta abaderik zařena il dira. Gotzaña Hubert Rutten Lieja'ko gotzain ospetsua, 86 urtedun. Igaro dan ořiĪan bere gotzaintzako 25'n urtea eta abadegintzako 60'na ospatu zituan. Egun batzuk lenago il zan abaderik zařena, Yean Edouard Lamal, 101 urte lepoan zituala. 1850'n lenengo yaupa egin eban, eta 100'n urtean sartu zanean, Merzier kardenal ospetsuak kanonigo egin eban.

**M'tař G.**

# Andik eta Emendik

*Prantzitaŕ Katolikoak.*

Etsai askoz ingurututa dagozalako edo berez langil̄e ta erañak diralako, arek beintzat euren batzaŕ edeŕak egiten gogoŕ diardue. Len be aurtengo batsuk aitatu genduzan eta ikasbidetzat oraintsu egin diranen zeŕenda ipiñi beaŕ dogu:

Ara ugari ta edeŕak:

| | | | |
|---|---|---|---|
| Oŕil̄aren 22'n. | Klermont Perreud'en | 20.000 | gizon. |
| » » | Nongent le Rotron'en | 6.000 | » |
| » » | Bressuire'n | 4.000 | » |
| » » | Meaux'en | 3.000 | » |
| » » | Carnaux'en | 3.000 | » |
| » » | Dunkerke'n | 3.000 | » |
| » 26'n | Ivetot'en | 22.000 | » |
| » 29'n | Voiron (Iser) | 50.000 | » |
| » » | Puy'n | 15.000 | » |
| » » | Sous – le Saulnier | 18.000 | » |
| » » | Gourdon | 10.000 | » |
| » » | Murat | 1.000 | » |
| Bagil̄a'ren 6'n | Perigueux'en | 5.000 | » |
| » » | N. D. de Siene (Aisne) | 7.000 | » |
| » » | Parmiers'en | 5.000 | » |
| » 12'n | Clermont de l'Orne'n | 10.000 | » |
| » » | Moulins'en | 8.000 | » |
| » » | Cuers'en | 5.000 | » |
| Bagil̄aren 26'n | Aubenas'en | 6.000 | » |
| » » | Saintes'en | 28.000 | » |
| Garil̄a'ren 3'n | Tours'en | 12.000 | » |
| » » | Montfort'en | 4.000 | » |
| » 10'n | Bourdeaux'en | 30.000 | » |
| » » | Lille'n | 90.000 | » |

Eta ondiño Iñaki deunaren egunean Bayona'n 15.000 Prantzi aldeko euskaldun katoliko sutsu bildu ziran. Batzaŕok ziñestearen aldezkoak diralako, ango katolikoak lotan egoteko ez dirala adirasten dabe; ondo igaŕi dabelako *lotan* dagozan katolikoak euren beaŕkuna ez dabela betetan.

Olantxe beste toki gustietan egingo ba'lebe...?

*Antzokitik Yaungoikoagana.*

Il̄a onen 25'n Eleiza deunak Jines deunaren eguna ospatzen dau. Gauza bakana dan aŕen, antzokian bertan kistaŕen kaltez eta iŕiz euren eleizkizunak antzeztuten egoala egiz eta benetan Yaungoikoa'gana biurtu zan, baita Diokleziano ankeŕaren aginduz bere Odola Kristo'ren aldez ixuri be.

Yaungoikoa'ren bideak eskutuak dira-ta, non, noz eta zelan Beragandik uŕinduta bizi diranak zuzendu leikezan ezin leike yakin, Yaungoikoaren eskaŕak usterik gitxien dogun tokian be lan egiten dau-ta.

Ba, deun ospetsu onek bere yaŕaitzal̄eak izan ditu, lenago eta orain be bai. Ainbeste goralben eta txalo artean ospetsu izan dan Madalon la Varre, Ingalanda'n eta Ipaŕ Amerika'n oso ezaguna dan antzezlaria oraintsu bertan hera laga-ta, Albany'ko karmeldaŕ lekaimetxean saŕtu da. Egun atan bertan bere aizkide miiss Berenice Col, oin Yaunagana biurtutakoak Bateo deuna aŕtu eta lenengo yaunaŕtza egin zituan.

Baita Battistini, abeslari ospetsua, Europa'ko antzoki andienetan ainbeste txalo irabazitakoa, lekaidetxe baten saŕtu da. Oraintsu 70 urte bete ditu.

Eta antzokiak aitatu ditugun ezkero, beste izpaŕtxo bat ipiñi daigun.

*Kristo'ren Nekaldiaren antzezkundea.*

Oberamergau, Alemania aldetik Alpes'etan dagon eŕi txiki baña ospetsua da. 1.540 biztanle bakaŕik ditu, eta bere ospe gustia 10 urterik 10 urtera bertan, bertokoak bakaŕik egiten daben Kristo'ren Nekaldiaren antzezkunde ospetsutik

datořkio. Oitura edeř ori 1.633'n, ixuři andi bat zala-ta, egindako eskintzatik datoř. Antzezkundeok guztiz itzal andiz egiten dira, eta 700 antzezlari, bakoitzak bere ařloa ondo egiteko asmoaz, biltzen dira. Ia eři gustia. Ementxe lez Nancy'n antzezkunde ori egiten izan da, eta orain itxasoz andik be yařaitzaľeak agertu dira.

Jeronimo deuna deritxon Montreal'ko uri txikian 1.925'n, Oberammergau'n antzera, Kristo'ren Nekaldia antzeztuten asi ziran, eta lenengo antzekundera 30.000 lagun inguru bildu ziran. An 500 antzezlari ta 100 abeslarik lan egiten dabe. Idaztia bertako txaunburu Elhcer abak egindakoa da. Gogo andiz eta erazpenez antzezkunde ori egiten dalako onuratsua dala ikusirik, beren-beregi areto bat 3.000 ikuslentzat egin dabe. Oitura onak yařaitzaľeak eukitea pozgařia da, batez be kirtenkeriak - eta bakařik zabaltzen diran aldi onetan.

*Izpařingilaria deun...?*

Gauza bakan xamařa uste izan leikio norbaiti, baña zer dala-ta arazo ori, deun izateko eragozpen izan ete leike? Eguzkia nora... dabiltzan asko izan ařen zeregin ořetan, ba'dira zintsoak be ugari ta on asko egiten dabenak.

Onetarikoa izan da Josue Borsi plorencitař izpařingilaria, zeregin ořetan zoriondun izateko bidea aurkitu ta lortudabena. Baita aita bitxi ez zan kristiñau ikasbidea erakustekoa Karducci olerkari ospetsu ta gaiztoa izan zan-eta. Berau be len gaiztoa izan zan, baña bein bere okeřbidea ezagutu ta katolikotař zintso egin zanean, alegin gustiaz onbidean auřera egin eban. Azkenengo gudaldian ařigařizko eřuki-egintzetan gogo gustiaz ziarduala, eriotza elduy akon. Bere deun-ospea edozelakoa ez da izan-eta, izpařingilari goragaři au deunen izendegian ipinteko auzia asi da.

Ia beingo baten egiten daben, zaindari ta ikasbide beařizana ba'dabe gauřko izpařingilariak eta.

*Burdin-bidetakoak be bai?*

Oneik be zaindaria eukiteko bidean dagoz. 1.911'ko lotaziľa'ren 22'n il zan Paul Pie Perazzo burdin bidelari (?) edo feřoviarioa, esan oin dan lez. Gizon zuzena egiz eta benetan izan zan. Bere ziñeste zintsoa zala-ta, naigabe asko yasan beař izan eban, baña Yaunaren gurariaz berea bat eginda bizi zan. Eriotzarik ikaragařienaz bere bizitzako 62'gn urtean, txakuř amořatu aginka egin eta nekerik ikaragařienak baretas andiaz igaro ondoren, erbeste onetatik yoan za

Bere ontasuna andia zala-ta, Turin'go gong tzañak bere onbide gurenak aztertzeko lane asteko agindu dau.

*Bide oneratuak.*

Oraintsu katoliko biurtu da, len Eleizaren ka tezko idazle amořatua izan dan Manuel Ribe portugaldařa. Idaztiño asko argitaldu izan di len, eleizaren kaltez, eta oin esan beařik ez d beste askoren antzera, gogo gustiaz egiaren a dez lan egingo dabela.

Vecchio Jorke, eřoma'ko Irakastetxe nagosi buru dana oraintsu yudař ziñeskerea itxi ta kat liko egin da.

Baita zarata andia atara dau Noruega'n orai tsu katoliko egin dan Lars Eskeland'ek. Oin u te bi inguru Sigrid Undset'en antzera, egizl Yainko-guřtza katolikotařena dala igaři ta oso autořtu dau. An berak irasitako ikastetxeak d tualako, bere biurtze ořek sařtada andia eg dau, irakaslerik onenentzat bera euki dabe-t

Itzaldi baten katoliko egiteko zioak azal ditu, eta amaitu dau: «Katolikotař Eleizan ge tza aurkitu dot, emen Kristo'tzaz ez da eztaba darik. Eta neuri indař egin daustan zioetatik b auxe be izan da; ezin neintekean egon autořtz ko sakramentu barik».

Ikuřton edeř eta beařeko onetik igeska dab tzan gixajoak berberori ezagutuko ba'lebe... ze bakea...!

*Ikasbide edeřa.*

Piliberto Saboyatařa Italia'ko bakaldunar ľoba dana, igaro dan gariziman Luka deritx uria ikertzen yoan zan. Bere omenez Giglio a tzokian yai bat gertatu eben eta berak erantz eban: «Garizima'n gagoz, eta aldi onetan antz kira ez naz yoaten eta dantzarik be ez dot e ten».

Ainbeste sasi matasa artean loratxu bats agertzen diranean be... poztuteko da.

**M'tař G.**

JAUNGOIKO-ZALE'ren Irarkolan. — Zornotza'n.

# Andik eta Emendik

*Gotzain baten eriotza edeŕa*

Igaro dan Gariĺa'ren 10'n bere bizitzako 63'n. urtean, Santander'ko goteŕkiko gotzain aguŕgaŕi Juan Plaza Garcia il zan. 1887'n yaupa esan eban eta 1913,n Kalaoŕako gotzain arduradun egin eben. An 1921'arte egon zan, eta aŕezkero Santander'en. Adimen argidun eta biotz edeŕdun gitxi lakoa izan zan eta egon dan tokietan gustiak aitatzat lez maite izan dabe.

Bere onbideak ezin geinkez emen azaldu, baña zerbait ipiñi gurarik, *Sal Terræ* aldizkingitik aŕtuta ementxe yazokun batsuk ipiñiko doguz.

Jesu-kisto zan! esan oi eban emakume txiro batek bere apaltasuna ikusirik, bere antzera on egiten bizitza igaro eban-eta. Ume, gexo ta beartsuak bere kutunak izan ziran, eta euren aldez al eban gustia egiten eban, eta orixe zala -ta txiro il zan ezertako ondasunik itxi barik.

Eleizaren etsayak bere otzantasunak beragantzen zituan. Ara yazokun bi: Kalaoŕa'n zegoala gotzain ikeŕtzea egiten eŕi batera yoanik, eŕi gustiak aŕera edeŕa egiteko urten eutson. Endorea *sosolistoa* zala ta ez zan eldu. Baña alan beaŕean, gero bera yoyan bide ondotik igaro zan, eta orduan gotzain yaun onek beragana yoan eta esan eutson: «Ni agurtzen urteteari endoreak ondo eretxi ez dautson ezkero, neuk bera agurtu ta besarkatzeaz atsegin andia aŕtzen dot» eta biotzez besaŕkatu eban.

Beste bein eŕi baten udaleko batzaŕera dei egin eutsoen, buru egiteko; amaitu zanean gustiei gotzain-ereztuna emoten egoala, eŕepublikano zan ziñegotzi (konzejal) batek osoan esan eutson: «Gotzain yauna; nire eretxiak, beoŕen ereztunari mun egitea debekatzen dauste». Eta berak maitasunez erantzun eutson: «Ba zure eretxiak mun egitea galearasten ba'dautzue, nire ziñesteak zu besarkatzea ez dauste galerasten». Eta alantxe egin eban. Esan beaŕik ez da abadeak berariz maite zituala eta euren pozaz poztu eta atsekabeetan gustiz naigabetzen zala. Beste batsuk itxita ara yazokun batsuk: Santander'en ikeŕtzea eŕi batetik bestera egiten yoyala, aldapa igoteko zaldi bat bialdu eutsoen; baña beragaz abade zartxo bat yoyan eta berari zaldi gañera igoteko esan eutson, eta lenengotan gura ez eban aŕen, gotzañaren esana egin beaŕean aurkitu zan, eta bera baŕiz buzti ta lokatzez beterik eŕira eldu zan.

Beste baten txaunburu bat eztu aurkitu eban beste eŕi baten bigaŕen mesea esateko zelan atondu ez ekialako; eta gotzañak esan eutson: «Zoaz beste eŕira, eta au neure ardurapean geratzen da, txaunburutzea neuk egingo dot». Eta alantxe mesa esan eta igandeko itzaldia be egin eban.

Bere lanean ziarduala bapateko gexoa eldu yakon eta berealaxe eriotza deun bat egiteko gertau zan. Berak euki eban gexoaz sena galdu egiten da baña berak azkenerarte buru argia euki eban. Azken igortza aŕtu ebanean esan eban: «Luŕeko aintza olantxe igaroten da», ta yaŕaitu eban: «¡Betikotasuna dan edeŕa! ¡Yaunaren bakean iltea dan pozgaŕia! ¡Une onetan neure burua iñogaitik eta ezergaitik ez neunke aldatuko!» Eta oŕen antzeko itz edeŕak aotan zituala, bere azken arnasa emon eban. (Goyan bego). Egiz eta benetan eriotza edeŕa izan eban gotzain goragaŕi onek.

*Yesu kristo'ren goralbenez*

Emen mendi gaiuretan gurutza deunaren irudia ipinteko oitura edeŕa ba'da, baña ba'dira oitura edeŕ ori gogotsu artu daben eŕiak. Brasil'go izpaŕingi batek diñonez Alpes'etako mendi ospetsuetan orain arte Kristo'ren ogei irudi dagoz. Ara mendi onein izenak eta itxas ertzetik dauken goibeagaz. Monviso (Saluzzo) 3.843 neurkin (metro) itxas ganean; Gran Sasso, 2 900; Maiella 2.795; Vetore (Umbria) 1.960; Gugliermo (Lombardia) 1.950; M. Amiata (Toscana) 1.734; Catria 1.702; Matajor (Veneto) 1.643; M. Capreo 1.477; M. Altios (Napoles) 1.258. Guadagnolo 1.218; Cimino 1.066; Ortobene 800; S. Guiliano 277; Belvedere 501; M. Albano 453; Maggio 350, Italitar katolikoak, ikusten danez, ardura andia dauke Kristo, ludi gustiko bakaldunaren irudia mendi erpiñetan ipinteko, eta ardura begiko au euren ziñestearen agerkai edeŕa da.

*Luŕeko irudi deunik andiena*

Orain arte egin dan deunen irudirik andiena, Boŕomeo'taŕ Karlos deunaren aintzaz, Italia'ko uri Arona'n ipiñita dagoana da, 23 neurkin (metro) goibe ditu eta gustia burdin-orizkoa.

Baña auŕerantzean brasildaŕ katolikoak onetan txapeldun gelditzeko asmotan dagoz. Kristo gure Yaunaren aintzaz berarizko gauza edeŕ bat egin gura izan dabe eta, oŕetarako Corcovado deritxon mendi gañean, 7 neurkiñeko eleizatxoen gain 30 neurkin edo metro goibe izango dituan Gure Yaunaren irudi edeŕ bat ipintea otu yake. ¡Asmo begikoa ziñez! Rio Janeiro'ko izpaŕen-gañean egongo dan irudi eder au uŕiñetik, itxasoz batez be, ikusiko da. Bertan, ur eta luŕen yaube dan ezkero, besoak zabalik agertuko da gustiai beragana deitzen lez.

Irudi au saltzaŕi edo zementozkoa izango da, gañetik maŕgo bateko mosaikoz yantzita, edeŕago agertu daiten. Irudi bakanau egitea Paul Landowski pantzetaŕ eŕtilari ospetsuari agindu dautse. ¡Kristo Eŕege goraltzen txapeldun izan gura daben eŕiak txalogaŕiak dira!

*Baltzak egi-bidera*

Oraintsu Txikago'ko Elisaabeth deunaren eleizan 107 baltz ugutzau dira, euren artean buruñuŕdunak egin daben mixiño ondoren. Baita Virginia'ko lateŕian Norfolk'en 103 baltz ugutzau dituez mixiolarien lanak dirala bide. Dirudienez azala baltza euki aŕen baltzok biotz zuri ta garbidunak dira, egiak euren biotzean tokia ain eŕez Yaunaren laguntzaz egiten daben ezkero. Ez dakit zegaitik, baña onexek baltzok begiko egiten yakuz. Beaŕ ba'da izan leiteke azal zuria euki aŕen, arima baltza daukien asko egitik iges ikusten ditugulako. Dana dala, baltzen artean anai baŕiak eukiteaz asko poztuten gara.

*Egipto'ko eŕegea Aita Santua ikeŕtzen*

Aita Santuari itzal andia dautsela agertzen dabe katoliko ez diran agintarien ikertzeak. Ondiño aldi asko ez da Suezia'ko bakaldun Gustavo V'k ikertu ebala eta ointsu oŕetarako eldu da Eŕoma'ra Egipto'ko Fouad eŕegea. Katoliko ez diranak abetaltzeko egin oi diran zeremoni gustiekaz aŕtu eben, eta eŕege ouak poz aŕtu eban Aita Santuak egin eutson aŕeraz, Beragaz itz egiten yoan zanean. L'Osservatore Romano'k ikertze au dala-ta, gomutaratu dau, Eŕege onen zuŕtasuna dala-ta katolikotaŕak azkatasun andia daukiela Egipto'ko lateŕian.

*Eskaŕ oneko ta esku zabaleko*

Stuart P. West, katoliko biurtu zan protestantea, oraintsu il da. Bere ilburukoan 3.000.000 ogerleko New York'eko ikastola katolikoentzat itxi ditu, batez be erbestetik eltzen diran katolikotaŕai euren ziñestean yaŕaitzen laguntzeko. Eta il baño len berak agertu eban emokun au egiten ebala, Yaungoikoari eskeŕak emoteko, bera ta bere emazteari katoliko ziñestea aŕtzeko egin eutsen eskaŕagaitik.

**M'taŕ G.**

# Giovanni Papini

Giovanni Papini italitaŕaren izena baz-
er gustietan zabal dabil, bide onera biur-
ı zan ezkerotik, eta *Yaungoiko-Zale*'ko-
k bein baño geyagotan bere idazti atal-
koak euskeraztuta ikusi dituez.

Biurtuta lenengo idatzi eban idaztia
Kristo'ren Edestia» izan zan. Bere go-
lbenez naiko da lenengo urtean 15 iz-
untzatara itzulita argitaldu zala esatea,
a Lateŕ Batza'ko idaztitegietan 1925'n
eyen irakuŕiak izan ziran 10 idaztietatik
at auxe izan zala yakitea.

Berak idaztiaren saŕeran bere katoli-
otaŕ egiteaz zerbait ba'diño, zergaitik
gin zan eta abaŕ, baña an ez dakazan
rtzeladatxo batsuk, geure irakurleentzat
intea ondo deritxogu.

Idazle ospetsu au, berak autoŕtzen da-
en lez, Kristo'ren etsai amoŕatua zala,
kontzeko asmoaz neskatiḹa bat begiz
eban eta bere guraria agertu eutson.
eskatiḹea ona eta kristiñau zintsoa zan,
a esan eutson: Nire aldetik ez da era-
ozpenik, baña Eleizaz izatekotan, bez-
a ez. Papini'k lenengotan, gogoŕ egi-
ı yakon eta, ez eban gura izan, baña az-
nean be Eleizaz izango zala bayetza
ıon eutson. Orduan besteak esan eu-
on: Oin beste baldintza bat: «semerik
yoten ba'da, batiau eta katoliko lege-
astekotan». Papini'k onetan be, burua
akuŕtu eutson, eta alantxe bere emaz-
zat aŕtu eban.

Seme alabak izan zituezan, eta ama zintso onek, etxean algiñak egiñez gañera, lekaimeetara, gure Yauna aŕtzeko gertatzen bialtzen zituzan. Bere gogo bizia baña, senaŕa Yaungoikoa'gana biurtzia zan. Onetarako bein baño saŕiagotan, mutikoak Kristiñau-ikasbidetik biurtzen ziranean, amultsu esaten eutson:

«Giovanni, ¿umeai kristiñau-ikasbidea zegaitik ez dautsezu aŕtzen? ¿Ez dozu ikusten zeregin asko daukodala? Tira, apuŕ bat lagundu egidazu».

Papini'k lenengotan ez eban gura izan baña, azkenean bere emazte onaren eskariak entzunaz, kristiñau ikasbidea aŕtuta umeai leziñoa aŕetaz aŕtzen asi zan. Idazti txiki atan egozan egi sakonakaz aŕituta, bere burua argitzen asi zan eta bere aŕokeri gustia, len yakitunen idazti gustiakaz makuŕtzen ez zana, Kristiñau Ikasbidearen egiakaz apaldu zan.

Osoan katoliko egin zan, lenengo yaunaŕtzea bere umetxoakaz batera egin eban, eta gauŕ bera «Yesus'en yopu apala dala esanaz» bere yakituri ta azkaŕtasun gustia Eleizearen goralbenerako erabilten dau.

Begira emazte on baten bidez Yaunak zelan Beragandu daben gizon ospetsu au!

G.

# Andik eta Emendik

*Iŕatizkiña eta Kistaŕ zabalkundea.*

Saŕitan aitatu dogu «radio» iŕatizkiña kistaŕ egia zabaltzeko, batez be beste erarik ez danean, aukerakoa dala. Asmakizunak berenez naiz txaŕerako naiz onerako erabili leikez; baña egiak bakaŕik eskubideak daukazan ezkero, onetan txaŕai auŕea aŕtzeko ardura geyago euki beaŕ litzake. Yaunari eskeŕak, onetan toki askotako katolikoak oaŕtu dabe eta itzaldi ta abaŕ iŕatizkin-bidez zabalkunde edeŕa egin be bai. Gauŕ onetzaz izpaŕ pozgaŕi bat daukogu.

Lasteŕ asiko da, Madrid'en «Radio Española» izendun iŕatizkiña, katolikotaŕ zabalkunderako bakaŕik izango dana. Ango gotzañak bere baimena emon dau, eta uste dogu onura asko egingo dabela.

Asmakizun onek, gexo ta eleizaratu ezin diranei asko laguntzen dautse. Bloemendael (Olanda) txaunburu batek eleiz-toŕean «radio» tramankulu bat ipiñi dau, elbaŕi, argal eta eleizaratu ezin diran gexoei laguntzeko. Eta alantxe etxetik urten barik eleizkizunei yaŕaitu ta itzaldiak entzuten dabez, euren poz eta onura andiaz.

Amsterdan'en, Andra Maria'ren Erietxean, bertako eleizan egiten diran eleizkizunei, gexoak yaŕaitu al izateko 64 «altavoz» ipiñi dituez.

Mixiolariak be lo ez dagoz. Arsene Turketil aba Hudson itxasbaŕeneko gotzaña, urte bete Montreal'en egin ondoren, baŕiro mixiñoetara biurtu da. Berau radio-zalea da, eta berak, itz egiteko radio bat eroan dau, bere menpekoei agintzak emon eta itzaldiak egiteko. Iges New York'etik onexek egin eutsen itz euren izketan, bere menpean daukazan Eskimalai, eta edeŕto entzun eutsoen, gustiz uŕin egon aŕen. Azila'ren 19'tik auŕera laguntza bialdu, anayak alkaŕtu ta egi ta maitasuna zabaltzeko lan egiten asiko dira.

*Mexiko'ko yasarpena.*

Izpaŕingiak batez be ezkeŕti antzekoak eta, ango gora-berai gaŕantzirik emon ez aŕen, *L'Osservatore Romano'k* diñonez ango yasaŕpenak auŕera daŕai eta gogoŕ atan be. Kales eta lagunak erbestetuta dagozan gotzañei dei egin dautse baŕiro euren abeŕira biurtzeko; eta Obregon gudalburua be onetan alegindu da, baña gotzañek erantzun dautse, ezin leitekezala baŕiro euren gotzain-lanetan asi, Aita Santuaren baipen barik ta Jainko-gurtzan kaltezko legeak bazteŕtzen ezpadituez.

Au alan dala-ta be, yasaŕpenak auŕera daŕai. Iragaŕi dabe euren orain arteko politikea aldatzen doazala, eta oŕetarako espetxeratuta euki dituezan katoliko batsuk azkatu dituez. Baña alde batetik oneik amabi inguru bakaŕik izan dira, eta buru danik bat be ez, eta bestetik eurok be baldintza gogoŕen azpian. Oŕek damutasun gitxi agertzen dau, eta gitxiago bitartean egin dituezan ankeŕkeriak. Ba ori esan daben egunatan 43 espetxeratu dituez, *Controversia* deritxon izpaŕingi katolikotaŕa ataratea debekau, eta katolikotaŕ alkaŕtasuneko asko aŕapau dituez. Euron artean 75 urteko lekaidea Diaz aba aguŕgaŕia, gobernuaren guŕtza-legea auzi dabela-ta beste barik, erail dabe.

Jose Elizate katolikotaŕ gaztediko lendakaria beste lau lagunegaz espetxeratu dabe. Esan beaŕik ez dago zer itxaron leiken otso arein erpa artean.

Oraintsu agintariak emon daben agiri baten, txinelai agintzen dautse, erlejiño egintza guztiak

etxeetan be galerazota dagozala, eta oŕetan aŕapatzen dituezan abade gustiak zigoŕtuteko.

Ortik, eta toki ezagaitik itxiten doguzan beste askotik, igaŕi geinke aren bake-eskeintzak zelangoak izango diran. Bitaŕtean otoi dagigun gustien aldez.

*Liberia'ko agintari - burua Vatikano'n.*

Charles Denbor Burgesse King, Liberia'ko lendakari dana Aita Santua ikeŕtzen yoan da. Iľa batsuk dirala Suezia'ko bakalduna eta oraintsu Egipto'koa lez artu dabe. Batikano'ko bilbelak bera egoan «Excelsior» yatetxera yoan ziran andik Batikano'ra eroateko. Ikeŕtze oneri gaŕantzi andia emon dautse. *Italia* izpaŕingiak diñonez baltzen saldu-erosi lotsagaŕia bazteŕtzeko bide edo izango da. Onek politikan gaŕantzi andia euki ez aŕen, oitura arasoetan gaŕantzi andia dauko, batez be toki eta lateŕi gustietan Aita Santuari dautsen itzala argiro agertzen dalako.

*Lenengo katoliko ta gero endore.*

Walker yauna, New York'eko endorea (alkatea) Eŕoma'ra ostera bat egiten yoan da. Eta an oitura da lenengo bertako agintariak ikertzea eta gero Aita Santua aguŕtzea, katolikotaŕentzat egokia ez dana, baña beintzat oitzen dana.

Ba, New York'eko endore zintso onek, beste agintariak ikeŕtzea alde batera itxita, lenen Aita Santua ikeŕtzeko asmoa agertu dau.

Bere burubide edeŕ au kentzeko alegin andiak egin dituez, baña berak auxe erantzun dautse: «Ni lenengo katoliko naz eta gero alkate, beraz neure lenengo beaŕkuna Aita deuna ikeŕtzea da eta orixe beteko dot».

Edeŕto esana! ta obeto egiña!... Au alkate Jauna ez eze «gizon yauna» be bai dala esan geinke. ¡Tamala da onango gizonak ugari ta Amerika'ra yoan barik ez aurkitzea!...

*Betikoak.*

Eleizaren etsayak; egi biľa ez dabilz, egitik iges egiteko aitzaki biľa baño. Lekaide ta lekaime edo monjak dirala-ta zenbat aldiz esan izan dabe: «Oŕek zer egiten dabe? ¿Zetarako dira gauza?...

Eurak eta beste askok uste daben baño lan neketsu ta onuratsuagoak egiten dituezala agertzeko, eta lan edeŕ oŕetan laguntzera bultz egiteko zine-mintzan egiten dituezan lanak azaltzen asi dira. Au ikusirik esan leike ba, zertarako diran itanduten izan dabenok, okeŕa autoŕtu, burua makuŕtu ala gitxienez ixildu egin beaŕ leukiela. Baña bai zera!...

Bayet idazleak praľeen irañak-eta zinean ikusirik idatzi dau; non da oŕen apaltasuna?... Len alpeŕak zirala, eta orain apaltasunik ez dabela?...

Bera beintzat apala balitz, egiari burua makuŕtu beaŕ leuskio, eta autoŕtu azaltze ta agertze ori egiten ba'dabe euren gurariz eta aintzaz ez dabela egiten, nagosien aginduz eta Yaunaren aintzarako baño Eta... *ikasi gura dabenak* yakin dayen... Baña begiak itxi gura dituenentzat, argiak onurarik ez!...

**M'laŕ G.**

# ZER EDO ZER

## AGURTZA (EŔOSARIO) DEUNATZAZ

*Zer dan.*

Ama Birjiñaren aintzaz Yesu-Kisto'ren bizitzako ziñeiskairik garayenak gogaltzen diran bitartean egiten diran otoi txortari *Aguŕtza* deritxogu. Izen au *Aguŕ Maria* saŕitan esaten dalako aŕtzen dau. Erderaz «rosario» esaten yako, agozko otoi eta gogaŕteak alkaŕtuta, gogozko laŕosa-txorta antzera Andra Maria'ri eskintzen yakozalako. Aguŕtza osoan, 150 *Aguŕ Maria* esaten dira, amabost amaŕekotan banandutа, eta amaŕeko bakoitzaren auŕetik *Aita Gure* bat, eta gogaldu beaŕ dan ziñeskaya aitatzen da. Gauŕ geyenez oitzen dana bost amaŕekoko Aguŕtza da, Ama Neskaŕbiaren Aŕentzak azkenean esanaz.

*Noztikoa dan.*

Aguŕtza antzeko otoyak au da, era batera edo bestera *Aita Gurea* ta Andra Maria'ren aintzaz esaten ziran otoyak askotan esateko oitura, ta eurak zenbatzeko aletxoak alkaŕi lotuta edo kordel korapiĺotu bidez zenbatzea, Eleizaren lenengoetatikoa dala esan leike. Onangoak nonbait izango ziran idazle askok aitatzen dituezan, Birgite Deunaren koroya deritxona V'n. gizaldian ta Beda deunak Ingalanda'n VIII'n. gizaldian zabaldu ebana. Auxe berberau agertzen dabe, XIII'n. gizaldi auŕetik Ama Neskaŕbiaren irudiak eskuetan eta samatik agurtzakin edo eŕosario antzekoa eukienak ezagutzeak. Baña onetzaz dana dala, Aguŕtza gaurko eran edo antzera, irasi, eraldu ta zabaldu ebana, Aita Santuak aintzat aŕtu daben abitzak diñonez, Guzman'daŕ Domeka deuna da. Berak, Albi'taŕ ziñausle gaiztoak garaitzeko alegiñak egin aŕen, onura gitxi ataraten ebalako, gogaituta lez otoi egiten ziardualа, abitzak diñonez, Andra Mariaren agintduz, ziñausleok biurtzeko, bidetzat Aguŕtza deuna irasi eban. Eta ez alpeŕik gero, berak bakaŕik 100.000 baño geyago bide onera biurtu zituan-eta.

Gero oitura edeŕ au kistaŕ artean galduez yoyala, XV'n. gizaldian Alano Ruperto domekataŕ ospetsuak bazteŕ gustietan zabaldu eban, eta berau da idaztiz esan ebana, Aguŕtzaren iraslea Domeka deuna izan zala.

Batzuk urte batzuk lenago diñoen aŕen, dirudienez, Domeka deunak Aguŕtza zabaltzeari 1.210'tik 1.214'ra ekin eutson.

*Aguŕtza deunaren bikaintasuna.*

Aguŕtza deuna Mesa deunaren uŕengo

kistaŕen artean gaŕantzitsuen eta zabalduena da. Auxe dala ta, Aita Santuak estu-aldi gustietan aguŕtzaren bidez goi-laguntza eskatzeko aginduteko oitura euki dabe. Mesa deunaren uŕengo kistaŕ eŕiak bere Yaun eta Yaungoikuagaz itz egiteko biderik egokiena dala adiraziaz.

Bere bikaintasuna, ba, eŕez ikusi geinke. Zeruko Amarentzat eskaririk begikoena da ta beraz esan beaŕik ez da, Ama maite onek bere eskuetan dituzan goi-ondasun eta laguntzak geureganduteko aukerakoa dala. Otoya, kistaŕ bizitzan, beaŕekoa da eta zeruko ateak idegiten dauskuzan uŕezko giltza. Agozko eta gogozkoa izan leiteke eta Aguŕtza deunan biak alkaŕtzen dira.

Yesus eta bere Ama Maria'rentzat otoirik onenak, begikoenak eta indaŕtsuenak Yaungoikoak irakatsitako *Aita Gurea* eta *Aguŕ Maria* dira; beraz Irutasun deunaren goralbenez esaten dan *Aintza*'z batera ainbeste bideŕ Aguŕtza esatean, beŕesaten diralako, argiro dago bere bikaintasuna.

Oŕez gañera kistaŕen zeregiña Kristo ezagutu ta Berari yaŕaitzea da, onetantxe dago gure betiko zoriona-ta. Eta egin-egiñean Aguŕtza deuna esatean bere bizitzako ziñeskairik garayenak gomutatzen doguz; pozezko, nekezko eta aintzazko ziziñeskayak gogaltzen doguzanean. Beraz Aguŕtza, Yesu-Kristo ezagutu ta Berari zintso yaŕaitzeko laguntza lortuteko, aukerakoa da. Auxe dala-ta, Kistaŕ zintsoenak Aguŕtza-zaleak izaten dira, sendi onenak Aguŕtza deuna batera egunoro esateko oitura edeŕa dabenak, eta eŕi zintso ta Yaungoiko-zaleenak, gure eusko-eŕi maitearen antzera, Aguŕtza-zaleak izan diranak.

Epelkeriak yoten asten danean, naiz kistaŕ, naiz sendi, naiz eŕia izan, lenen itxiten daben oitura edeŕa Aguŕtza, geyenez, izaten da. Bere edeŕtasunaren ezaugaŕi ona ez ete da au?

*Aguŕtza deuna ta Aita Santuak.*

Ez gara aŕitu beaŕ ba, Aita Santuak Aguŕtza zabaltzeko ainbeste alegin egin dabela ikusteaz. Gizaldirik-gizaldi ikusi geinke VI'n. Alexandeŕ'tik batez be, XIII'n. Leon aguŕgaŕiaren aldirarte, baña ez luzatzeko, batzuen itzak bakaŕik aitatuko doguz: «Egunero aguŕtza bidez kistaŕ eŕiak aŕtzen dituan ondasunak neuŕigabeak dira». (VI'n. Urban'ek) «Aguŕtza, iĺak biztu, gexoak osatu ta osasuntsuak zaintzen dituen bizitzako zugatza da». (V'n. Nikolas'ek) «Aguŕtza mundua zematzen daben gaitz-zoriak bazteŕtzeko irasia da» (X'n. Leon). «Aguŕtza txeŕenaren zigoŕa da» (VI'n. Adriano). «Aguŕtza Eŕoma'taŕ Eleizaren aintza da». (III'n. Julio). «Aguŕtza-bidez ziñausleen iĺuntasunak ayenatu, eta katolikotaŕen ziñeste argiak bere indaŕ guztiaz dis-dis egin eban». (V'n. Pio). «Aguŕtza-bidez Maria'ren laguntza loŕtu ta Yaungoikoaren asaŕea bigundu zan». (XIII'n. Gergori). «Aguŕtza, Domeka deunak goteunaren argiz ipiñia da, katoliko-ziñestearen onurarako». (V'n. Sixto). Eta batez be XIII'n. Leon'ek beste iñok ez lez bere ia urteroko idazki edeŕetan Aguŕtza'ren edeŕtasun eta onurak azaldu zituan. Eta amaitzeko XI'n. Pio aguŕgaŕiak egunokaz emon dau kistaŕak yakin beaŕ daben parkamen edeŕa.

Aurtengo iraĺa'ren 4'n. Bolonia'n egin dan Eukaristi batzaŕa zala-ta, bertan Domeka deunaren gorpuzkiñak dagozalako, domekataŕen buru danen eskariz XI'n. Pio aguŕgaŕiak emon dau «toties quoties» (egiten dan gustietan) irabazi leiken parkamen osoa, Aguŕtza deuna gure Yaunaren auŕean, naiz agirian dala, naiz oteun-

degian itxita dala, esaten daben bakoitzentzat.

*Agurtza deuna ta gizon ospetsuak.*

Agurtza, ain laua dalako, au da edozeñek esan leikelako, uste izan lei, eta askok orixe esaten dabe, ez yakin eta kistar apal eta emakumeentzat dala. Ori uste izatea tentelkeri ta ez yakiñaren ezaugarria da, olan ez dalako izan eta ez dabelako izan bear be. Gai gustietan galendu diran gizonak Agurtza-zaleak izan dirala, ipiñi geinkez *olo* antzeko kistaren ikasbidetzat; baña banaka batzuk baño ez doguz aitatuko.

MIKEL ANJEL margolari ta ertilari ospetsua, gogoz Agurtza esateko oitura eukan; bere agurtzakin (erosario) bi Florenzia'n gaur egunean be erakusten dabez. HAYDN ereslari ospetsuak esaten eban: «Eres-lan batek ondo urteten ez daustanean, agurtzakiña artu ta batera bestera *Agur Maria* batzuk esaten asten naz, eta bereala burua argitzen yat». MOZART'ereslari bikañak be oitura orixe eukan. GLUK KRISTOBAL ereslariak berberori egiten eban.

Gudalburuak eurez izan dira Agurtza-zaleak: SIMON MONTFORT, LEPANTOKO garailariak, SONIS, MARCEAU ta LAMORICIERE ta HOFER tiroltar gudalburu ospetsuak. Baita TILLY mariskal ospetsua be.

Yakidietan galendu diran yakitunen artean, Ampere, Ozanam, Chevreul ta Recámier osagile ospetsua, Europa'n bere aldian ospetsuena izan zan. Gustiok Agurtza edozeñen aurean esateko lotsarik ez eukienak.

Politikan ospetsua zan O'Connell, Irlandar-azkatasun alde lenen yaiki zana; ba, bere itzaldietan baño Agurtzan itxaropen geyago eukan gizon guren onek, Ingalanda'ko lege-etxean egiten zituan itzaldi sutsu bitartean Agurtza otoizteko oitura edera eukan. Herman Von Mallinrodt, alemandar katoliko alderdiaren buru izan zanak, aldundien itz egin auretik, Agurtza esaten eban. Eta amaitzeko

*Yasokun bat. Agurtza antzokian.*

Napoleon, eleizkoitasunean eredu izan ez aren, txikitan-eta ikasitako aburu zuzen asko bere bizitzan agertzen zituan, gustiz Yaunagana biurtu auretik be. Bein baten, bere andigureak eskatzen eutson gustiak arira urte en eutson aldian, Paris'ko antzoki batera, bere kutun eban Rohan-Chabat erege-sendiko laguntzaleaz, yoan zan. Napoleon'ek antzerkiari yaramon egin barik batera ta bestera begira ebilela dukea zan bere laguntzalea oldostun egoala oartu eban. Bere eskuak belaun gañean estalkiaz eskutauta eukazan.

Bapatean Napoleon'ek yagi ta bere lagunari eskutik oratu eutson, eta bere eskuetan agurtzakin (erosarioa) aurkitu eban. Orduan olango gauzak aintza andirik emoten ez ebelako, dukeak uste izan eban agiraka egingo eutsola; baña Napoleon, bere gauzak euki aren, *gizon* zan, eta esan eutson: «Ointxe arapau zaitut! Ez dakizu onek zelango poza emoten daustan. Antzerkian aretarik ipinten ez dozulako poztuten nozu; biotzdun gizona zara eta egunen baten on asko egingo dozu»...

Eta agurtzakiña emonaz, esan eutson: «Yaraitu zeinke, bakean itxiko dautzut-eta». Au oartu ebenak barerik egiten ez ziran asartu, Napoleon'ek agurtzari itzal andia agertu eutsolako.

A gastea gizon andi egin zan eta on asko egiñaz Besanzon'go Gongotzain eta kardenal zala il zan... *Ez da ba, emakumeentzako bakarik*...

GAMA

# Andik eta Emendik

*Lourdes'ko bidezkundeak.*

Lourdes'ko Amak bere agerkunde baten esan eban: «Bidezkundez gizoste andiak ona etortea gura dot». Ařezkero Ama maite onen guraria betetako alkařen leyan katolikotař semeak dabiltzala esan leike. Urte gustietan eta ludiko bazter gustietatik gizoste izugařiak eldu dira Lourdes'ko Ama samuřaren oñetara. Eta ara doanari guztioi gertau yakuna gertatzen yako; bařiro yoateko len baño gogo geyagogaz urtetea. Alan ba urterik urtera gizoste andiagoak eltzen dira, eta argirik ikusi gura ez daben *gautxorientzat* auxe da erantzunik onena. Biotzak beragantzeko goi indařa daukela zenbaki oneitan ikusi geinke.

Garila'ren 27'tik Dagonila (Agustua)ren 31 arte, 218.450 lagun bidezkundez eldu dira. Iralaren 1'tik 14'ra, 67.000. Beraz ileterdian 285.450 bidezti izan dira Lourdes'ko Ama ikertu dabenak. Ořez gañera, Yořalaren azkenetik, Garilaren 20'arte, bultziz (trenez) bakařik eldu diranak 295.000 izan dira. Beraz lau ilabeteterdian 580.450 bidezti, ori bilbel edo autoz-eta eldu diranak sartu barik... Amaren guraria betetako, mirari barik ainbeste gizatalde Lourdes'era ekařtea naiko mirari ez ete litzake izango?...

*Aurtzaro deuna.*

Bazkun eder onek, ainbeste on ziñesgeen umeei egiten dautsien onek igaro dan urtean auřerakada edeřa egin dau. Igesko urtean 20.961.432 pranko bildu dituz. 1925'n 19 miloa bildu ziran eta 1924'n 14 miloa bakařik.

Anayekanako maitasunez biltzen dan diru au 388 mixiñoetan banantzen dau. Eskeřak batzař onen laguntzari iges, 561.289 ziñesgeen ume batiauak izan dira; eta bere laguntzaz 713.929 umek kistař aziera ařtzen dabe.

Yaumaitasunez ume gaxoai laguntzeko bide edeřa: Aurtzaro Deuna deritxon Bazkunari lagundu ta bere onurak zabaltzen alegintzea.

*Beljikař Gaztedi Katolikoa.*

Beljikař Gaztedi Katoliko Batzak, igaro dan Dagonila'ren 27 ta 28'n Lieja'n egin daben batzařak gustiak ařituta itxi ditu. Zuzendariak eurak be ařituta gelditu dira, eta etsayak, sosialista ta komunistak be, katolikotařen gurenda euren izpařingi-bidez autořtu dabe.

Batzař orokoř onetan 50.000 gazte bildu dira, gai gařantzitsuenak adiraldu eta erabagi onuratsuak ařtzeko. «Kistař sendiaren bařiztatzea» gaitzat ařtu dabe ta esan beařik ez da gai ori gaurko egunean lenen egin beař dan gauza dala. Gaztedi onen bařuan bada talde bat «Katoliko langile Gaztedia» deritxona. Oneik be lan edeřa egin eben eta euren lanak amaitzean «Kristo Langile»aren yaya ipinteko Aita Santuari eskaria egitea erabagi eben. Talde onetan lateři gustian dagozanak 40.000 langile gazte dira.

Batzař onen azkenean egin eben agerkundea izugařia izan ei zan. Izan be 50.000 gazte adoretsu «Beljika Kristo'rena» izan beař dabela autortzen ikusteak, gaurko eguneko gazte buru ariñentzat, eta katolikotař epelentzat ikasbide edeřa emoten dau.

Eralguntza gauza edeřa dala ikusten da. Batasunak indařa dakařela ondo dakie, eta indařa eraldu barik kaltegaři izan leitekela be bai. Auxe dala-ta, al daben pařoki gustietan euren Bazkuna dabe, eta orain arte 851 pařokietan, eta gustiz daukiezan Gaztedi Batzak 1694 dira.

Langile taldeak 375 atal ditu, eta lan asko egiten dabenak.

*Bil̄ot kardenala.*

L. Bil̄ot aba yosulauna da, eta 1911'tik kardenal izan da. Teoloji-ikastietan oso yakintsua eta gai oŕetzaz idazti sakon eta edeŕak idatzi dituana. Bere gaitasun andiaŕen, X'n. Pio'aguŕgaŕiak kardenal egin eban, eta orain bere bizitzako 82'gn. urtean kardenal izatea laga egin gura dabela Aita Santuari agertu dautso, eta, tamal andiz izan aŕen, XI'Pio'k bere baipena emon dautso. Gitxitan gertatzen dan gauza da, baña ointxe eun urte beste yosulaun batek orixe berori egin ebala Aita Santuak bere autualdian agertu eutson.

Orain Lagundiko lekaretxe batera yoango da, eta zeŕ egingo daben itandu dautsenari auxe erantzun dautse: «Neure idaztiak beŕalgitaltzen lan egin, eta ondo ilteko gertau». ¡Orixe da egizko yakitunaren erantzuna!...

*Komunisten gauzak.*

Yakiña da oŕek gauza gustiak gustienak izatea gura dabela, eta ori, ezer ez daukanentzat eta arlote xamaŕentzat edeŕto etoŕiko litzakela be bai, besteen lepotik biziteko.

Eta ori ames edeŕa izango litzake, pral̄e ta monjen antzera, gurariz txiro egiteko gustiak gertu balegoz, eta euren antzera apal eta onbidetsuak izan ezkero... baña ortxe dago untzia!.. Alan da be, badira Eŕusi'ko aizeak zoratuta ori egin leikela eta beaŕ dala uste dabenak, ez dakigu zorakeriz ala gaiztakeriz... baña bai benetan. Ara aletxo bat. Sei bat il̄abete da Txile'ko agintariak komunista talde bat, Juan Fernandez deritxon ugarte batera bialdu ebala, eurak nai eben eraz biziteko. Komuniste bizitza egiteko gobernuak etxe, tresna, eŕeminta ta beaŕ eben gustia emon eutsen, eurak euretara biziteko, iñoren aginpide barik.

Ba sei il̄ebete igaro dira, eta an euren sendiakaz egon aŕen, komunistok, aspeŕtuta, baŕiro lengo tokira biurtzea eskatu dabe... Ori baŕiz egingo ebela, yoan baño lenago ez igarteko, naiko lelo izan dira!...

Noz buruan sartuko ete yake, pral̄etarako gauza ez dana komunista izateko gauza ez dala, egizko komunismo ori gizon onbidetsuen artean bakaŕik izan leitekelako?... Baña, bai zera, orain baño lenago be olako urteyeratxoak egin dituez, ezerezean gelditu be bai, oingo antzera, baña eurenetik urten?.. Oŕetarako kaskagogoŕ xamaŕak dira...

*Izpaŕak.*

Sintoiska, budataŕ eta beste ziñeskera antzera, laster Yapondaŕ agintariak emongo daben legeak, katolikotaŕ ziñestea aintzat artuko dau. Azkatasun onegaz gure ziñesteak auŕerapide andiak egingo dituala uste dogu.

* * *

Lyon'en oraintsu Bolonia'n ta Lisboa'n lez, Eukaristi Batzaŕa egin da. Gauza ikusgaŕia izan da. Iru kardenal, zortzi gongotzain, eta ogetamabost gotzain izan dira, danak pantzetaŕak, eta azkenengo egunean egin zan ibildeunean 150.000 lagun bildu ziran.

* * *

George Trollope ingalandar antzezlari ospetsua katolikotaŕ egin eta Eŕedentoristen lekaretxean sartu da, Perth'en, Eskozia'n. Jines deunak ba'ditu oŕaitio yaŕaitzal̄eak.

**M'laŕ G.**

**O A Ŕ A :** *Geuk gura ez dogula, zenbaki au atzeratu egin yaku. Parkatu beiskue irakurliak, oker au zuzenduten alegindukо gara-ta.*

# ZER EDO ZER

## AGURTZA DEUNA

### II

Agurtza Deunatzaz lengo zenbakian esan gendunari zerbait osogaritzat ezari bear dautsogu. Eraspen eder onen yatori, ta edertasunatzaz zerbait esan ondoren, Aita Deunak irakatsi dabena, eta yakitun askok euki dautsen maitasuna aitatu gendun. Orain beste zerbait ezarteko akatz bateri erantzunaz asiko gara.

*Zer dala-ta beti gauza bat?*

Agurtza Deuna aitatu ezkero, ziñeste gitxi dabenak esan oi dabe: Zer dala-ta ainbeste bider *Agur Maria* esate ori? Gogoak ez al ditu egoak? ¿Zertako ditu egaz egiteko izan ezik? Eta ori olan dalarik? zer dala-ta lotu jira-biraka erotarriaren antzera?...

Itaunok egiten dituenak alde batetik tentelkeri andia ta bestetik gizonaren biotza ez dabela ezagutzen agertzen dabe.

Gizon yakintsu batek—Coubé abak—diñon lez, gizonak bere biotzeko naikun eta biotzkada sakonak, naiz asarre naiz poztasun, goroto, naiz maitasunezkoak izan, zeatz garbi ta laburkiro azaltzeko eraenbat aurkitzen dabenean, poztu egiten da, erabilliaz atsedendu, eta beti gomutaratuten dau.

Eta onetan sentzunez dabilela argi dago. Zer dala-ta? Ba, bere oldozkuna sartu daben itz edo itz txorta ori darabilenean, era batera edo bestera esan, biotzketa bat edo beste somatu, iñoz be ez ditualako osoan ulertzen, nai daben bestean sakontzen eta bere gurarien neuriz agortzen.

Zuzena da ba, bein eta barriro esatea, itxi, ta barriro artzea, zerbait gozotasun barri artzeko, bere eritxiak sendatu, gogalbenak argitu ta geyago maitatzeko. Auxe dala-ta, Lacordaire itzlari yakintsuak esan eban «maitasunak itz bat bakarra daukala, eta beti esan arren, ez dabela iñoz beresaten».

Egizko maitasuna biotzean dabenari, ez yako gogaikarri izango ainbeste bi-

daŕ *Agur Maria* esatea, eta esaten daben bakoitzean *baŕi* egingo yako, beti bat izanda dabe.

*Aguŕtzaren Eguna.*

Eleiz Amak, Aguŕtza deunaren onurak ikusirik, yai bat beretzat izentau eban. Yai au Turkotaŕak Lepanto'n Aguŕtzaren bidez azpiratuak izan ziralako, eskaŕ onez V'n. Pio'k *Garaitzeko Andra Maria'ren* izenez ospatzeko agindu eban.

Urte bi geroago 1573'n XIII'n Gergoriok Agurtzadun Ama izena ipiñi eutson, eta Uŕila'ren lenengo igandean ospatzeko agindu eban. Oin eleiz egutegian Uŕila'ren 7'n ipiñita dago, baña uŕengo igandean andikiro ospatzeko aldatzen da. Yai au lenengotan, Aguŕtza'dun Andra Maria'ren oindi edo altara zegoan Eleizetan bakaŕik ospatzen zan, XI'n Kelemente'k 1716 ludi gustira zabaldu eban arte. Azkenez XIII'n Leon'ek 1887 ta 1888'n yai andien malan ipiñi eban.

*Aguŕtza Deuna ta parkamenak*

Eleiza Ama'k Agurtza deuna parkamen askogaz aberastu dau, kistaŕak zale-zale egin daitezan. Agurtzak era askotakoak dira ta bakoitzak bere nekazka edo parkamenak ditu. Esaterako, Birgite deunaren aguŕtza sei amaŕekokoa da, ta parkamen bereziak ditu, ta pantzeskataŕen saspi amaŕekoko aguŕtzak be bai, ta abaŕ. Baña emen, labuŕtzeaŕen, eŕian geyen oitzen danatzaz, domekataŕen agurtzaz zerbait esango dogu. Onen bost amaŕeko eskuetan ezer barik esanda, 5 urte ta 5 beŕogeiko irabazten dira; eta yaŕaituan esan beaŕik ez dago, egun baŕuan esatea naikoa da.

Astelenetan eta eguenetan pozezko ziñeskayak gogaltzen dira, astearte ta barikuetan nekezkoak, eta eguazten larunbata ta igandeetan aintzazkoak, baña au, oitura on bat izan aŕen, parkamenak irabazteko beaŕekoa ez da. Aita Deunaren eta Bazkunakoen parkamenak ez doguz aitatzen asko dira-ta.

*Agurtzakiña ta nekazka (parkamenak).*

Ezerbe barik irabazi leikezan parkamenez gañera, aguŕtzakin edo eŕosarioa eskuan dala esan ezkero, irabazten diran batsuk aitatuko doguz. Domekataŕak ala eskubidea dauken yaupari (abadeak) onetsitako agurtzakiñaz esan ezkero, parkamenok irabazten dira: egunero eŕezau ezkero, urtean parkamen oso bat, autoŕtu, yaunartu ta otoitz eginda, eta onez gañera *eun eguneko* nekazkak *Aita Gure* ta *Agur Maria* bakotxeko.

Onez gañera *kruziferoak* deritxoen oneskuna ezaŕi ezkero *500 eguneko* parkamenak *Aita Gure* ta *Agur Maria* bakoitzeko, banaka esanda be bai, eta gogarte barik. Len aitatu doguzan domekataŕenak irabazteko amaŕeko bakoitzean aitatzen dan ziñeskaya gogaŕtetu egin beaŕ da. Parkamen onein gañetik Birgite deunarenak eta abar ezaŕi leikioz eta Doipuruak emoten dituanakaz batean, gure obenen zoŕa arintzeko parkamen ugariak irabazi geinkez, ain onuratsu dan Agurtza deunaren bidez.

*Zelango Aguŕtzakiña*

Parkamenok ezarteko agurtzakiñak gai gogoŕekoak izan bear dabe baña, berun eta kristalezkoak be izan leitekez aleak gogoŕak edo eŕez ez apurtzekoak izan ezkero (S. C. I. 1839'ko Epal 22'n)

Eleiz Legediko 924, 2.° diñonez aguŕtzaki eta enparau gauzak parkamenak galtzen dituez, bakaŕik, gustiz apuŕtu ala saltzen diranean.

Katetxoa zatitu aŕen, nekazkak aleai ezaŕtzen yakez eta, aguŕtzakin edo eŕosarioak parkamenak ez dituez galtzen. Beste gauza asko yakingaŕiak esan lei-

Nagosiko Eŕomar Elizti irakasle ezagunak Agurtza Deunatzaz auxe idatzi dau:

«Eleiz liburu bat dazaut gustiz egokia



ОÑАТЕ. Antxiñako ikastetxe Nausiaren auŕaldea. *(Foto Ojanguren)*

kez gai onetzaz baña, oingoz naiko dala uste dogu ta, lantxo au Agurtza ta aguŕtzakiñaren goralben edeŕ bategaz amaituko dogu.

*Egger yakitunaren itz edeŕa*

Egger yauna Munster'ko ikastetxe

dana, andiegia ez da ta txikiegia be ez, ta sakel gustietan saŕtu leikena. Oŕez gañera oso merkea da; besterik erosteko dirurik ez daukanak be ezpai barik erosi leike. Aldi luzean bere ingiak apuŕtu ta loitu be ez dira egiten. Agurak eta ikusmen argala daben gustiak, betauŕe-

koen premiña barik erabiḻi leikie, eta gaba iḻunez be edozeñek irakuŕi leikena da. Eta bere indaŕa gustiz andia dalako, saŕitan irakurten dabenak, beaŕ izan gustietan laguntza, eta artegaldietan bakea idoroten dabe. Idazti onek beste, eriotzaz oldostu eragiten dabenik ez da, eta ordu aretan lagun zintsoa izango yaku. Une laŕi atara eltzean zure eskuetan ixan daitela, eta eriotzako otzaz otzituta dagola obian euki dayela, eta eskuartean dozula berbiztu zaitezala, eta epai aldian Aitaren auŕean mirarizko pitxi au barik ez zaitezala agertu. Diñogun idazti au besterik ez da aguŕtzakin edo eŕosarioa baño».

Biotz eta agoan erabiḻi daigun ba, ainbeste on egiten daben eta ain onuratsu izango yakun Aguŕtza Deuna!

GAMA

# Andik eta Emendik

*Aita Santua ikeŕtzen.*

Ingalandaŕ txinel katolikotaŕak euren bazkuna dauke ta 1.000 bazkide dira. Eurotatik 90 oraintsu Aita Santua ikeŕtzen yoan ziran. Aita Deunak, esan beaŕik ez da abegi on-ona egin eutsiela eta, euren arazo onurakoŕa goralduaz itzaldi polita egin eutsen.

Baita, lengo gudan ibilitako amerikaŕ gudariak aurten Parantze'ra egin daben osterea dala-ta, eurotatik 400 Aita Santua ikeŕtzen yoan dira, Wolfe euren kapil̃aua buru dabela, gustion auŕean seme-biotza agertzeko. Gustiei eskua mun egiteko emon eta euren asmoa goratu eban, poz-pozik ikusten zituala adiraziaz.

Oraintsu itsuak batzaŕ bat egin dabe Eŕoma'n, eta oneik be ez dabe aldendu gura izan Aita Santua *ikusi*, edo obeto, ikeŕtu barik. 150 itsu gixajo Aita Santuaren auŕean aurkeztu, eta Berak samuŕkiro abetaldu ta itzaldi edeŕa egin dautse, egizko argia gogokoa dala azalduaz.

Levine amerikaŕ egazkari ospetsua be, baŕiro bere eŕira yoan baño lenago, Aita Santua ikertzen yoan da. Aita deunak bere yoan etoŕietzaz zorionak emonaz aŕtu eban, eta yardun aldi bat eginda urten dabenean, bere poza agertu dau egazkariak, Aita Deunak egin dautson aŕeraz ez dala iñoz be aztuko adiraziaz.

Ikeŕtze oneik agertzen dabe argiro Aita Deuna benetan Aita dala, eta berez lez biotzak bultz egiten dautsiela Ikertzeko, bere seme katoliko, eta baita saŕitan ez diranai be bai.

*Yapondaŕ gotzain baŕia dala-ta.*

Iragaŕita egon dan lez, il̃a onen 30'n. Nagasiki'ko gotzain yapondaŕ Hayasaka yauna Aita Santuak berak Vatikano'n egingo dau. Berau enda aretako lenena izango da. Nagasaki'ko goteŕkian 60.000 kistaŕ dagoz, au da geyenak, Yapon gustian 90.000 dagoz-eta. Urakami deritxon urian abade ikastetxea dago, 53 ikaslegaz. Gotzain baŕi onek bere menpean izango dituan yaupariak 40 dira, eurotatik 30 japondaŕak. Lenengoz gure ziñestea ara eroan ebana, gure endakide ospetsua Xabier'taŕ Pantzezka izan zan. 1.547'ko Dagonil̃aren 15'n Yapon'era eldu zan, bere lagun bigaz, zeruko argia zabaltzeko. Lenengotan, bere itzaldi sutsu ta mirariakaz asko onbideratu zituezan, eta Nobunaga agintaŕi ona il zanean, 1.882'n, 200.000 kistaŕ egozan Yapon'en.

Baña yasarpen gogoŕak be lasteŕ eldu ziran. Hideyoski'k, bonzoak atsipetuta, gogoŕ aŕtu zituzan eta 1.597'n, 26 kistaŕ, euron artean euskotaŕ ospetsu M a r t i n deuna, kurutzan yosi ebezan. 1.614'n, 1.624, 1640'n, baŕiro askok Kisto'ren aldez bizia emon eben; eta ondoren Jeyassu agintari ankeŕak auxe agindu eban: «Eguzkiak luŕa berotzen daben artean, iñongo kristiñaurik Yapon'en oñik ipinten ez daitela asaŕtu. Agindu au austen dabenak bere buruaz ordainduko dau, naiz da España'ko eŕege, kristiñauen Yaungoiko, naiz Buda berbera izan».

Agindu gogoŕ au emon ezkerotik ango kristiñau gixajoak al eben eran, baña euren ziñestean, *beŕeun eta ogetabost* urtean ixilik eta zintso yaŕaitu eben, otoi eta bateoaz bakaŕik, eta Ama Birjiñaren gomuta galdu barik, yasokun onetan ikusi geinkenez: 1.865'n. urtean Petitjean aba pantzetaŕa Yaponera baŕiro ziñestea zabaltzeko eldu zanean, 15 kistaŕ eldu yakozan, ia bera antziña kistaŕ ziñestea zabaldu ebenen yaŕaitzal̃ea zan ala ez yakiteko. Eta adirazi eutsen euren antze-

ra beste 50.000 bazirala kistaŕ ziñestea eukenak. Onetan taldetik emakume bat auŕeratuta esan eutson: «Gure biotza eta emen gagozan gustiona zeurea lakoxea da. ¿Non da ba Maria deunaren irudia?».

Petitjean aba eurakaz yardun aldia egin eta lanean asi zan, baña 1.868'n baŕiro yasaŕpen gogoŕa izan eben, askok urte batsuetan bizia ziñeste aldez emon eta 1.874'arte 8.000 inguru eŕbestetuak izan ziran.

Aŕezkero bake xamaŕean bizi izan dira eta orain ostera agintariak, lege bidez, katolikotaŕ ziñestea be aintzat aŕtu dabe, eta eleizaren ondasunak zergarik ez dabela izango erabagi be bai. Beraz ointxe dagoz lan egiteko aukera onean, eta uste dogu, Yauna lagun, gure ziñesteak auŕerapen andiak egingo dituala. Otoi egin daigun alan izan daiten.

*Bossuet'en aintzaz.*

Toki askotan, batez be Prantzian, gizon ospetsu onen goralbenez yai edeŕak egin dira, bere yayotzako irureugaŕen urtea ospetzeko. Meaux ko gotzain ospetsu au egiz yakintsua izan zan, izlaria, munduan gitxi izan diran lakoa, eta edozeñeri egiak esateko kemen andikoa. Bere yakituri aŕigaŕia, edestietzaz idatzi eban idaztian agertzen dau; protestanteen aurka idatzi eban «Protestantetaŕ Eleizaren aldakuntzaren edestian» eta beste idazti sakon eta mamintsu ta batez be bere italdi aŕigaŕietan. Edeslari gorengoa urtziztilari (teologo) sakona, izlari bikaña eta egizale gitxi lakoa zan ba.

Egizaletasuna bein baño geyagotan agertu eban. Egia apalai eŕez esaten yake, baña andiki ta batez be eŕegeai esateko, yakituriaz gañera adorea beaŕ da. Onetan baŕiz izan leiteken eŕegerik aŕoenagaz, XIV'n Luis'egaz aurkitzen zan. Bere itzaldiak edeŕak izan aŕen, edo ziralako, ez yakiezan saŕi «gustatzen», baña atzerarik ez eban egiten egia esan beaŕ zanean. Edestitxo bat bakaŕik ipiñiko dogu. Bein Fenelon ospetsuagaz euki eban eztabaida ospetsuan, bere aizkide apal eta yakintsuari gogor erantzuten eutsola-ta, XIV'n Luis'ek asaŕe antzera esan eutson: Meaux'ko gotzain yaun oŕek, zer egingo zenduke ni Fenelon'en aldez yaŕiko banintz?

Bossuet'ek erantzun eutson:

—Yauna gogoŕago ekingo neuskio...»

Orixe da adorea eukitea!..

*Kristiñauen alkaŕtasuna*

Yakiña da katoliko gustiak kristiñau izan aŕen, kristiñau gustiak katoliko ez dirala. Asko dira ba, kristiñau izena eta bateoa be aintzat artu aŕen, egizko kristiñau edo katolikoakandik aldenduta bizi diranak. Eta oneik, protestante eta zismatikoak dira. Batsuk, gure ziñesteko egi batzuk ziñestu gura ez dituelako, eta besteok Aita Santua burutzat ezagutu gura ez dabelako, eŕusitaŕen antzera. Ba, oneik gustiok batzar bat egin dabe Laussana'n, kristiñau gustien alkaŕtasuna lortzeko; eta bertan bildu dira 500 ordelari, 90 erlejiñoen izenean. *Egizko bakaŕak,* Aita santuak, ordelaririk ez dau bialdu; egi bil̄a, egia daukanak ibil̄i beaŕik ez dauko-ta, eta bai besteak baragana batu, len beragandik iges egindakoak diralako. Eta yakiña da, onango batzaŕetan burutan aña eretxi agertzen dirala, eta len bestean urteten dabela, edo txaŕago, zerbait euren ziñesteetan aldatu ezkero, saŕi gertau oi dan lez. Batasun bil̄a batasunetik iges eginda dabiltz beti... eta beti aldakor. Bossuet yakintsuak esan eutsienean baño zio geyagoz ondiño esan geinkioe: Zuek ziñesteak aldatu egiten dozuez eta aldatzen dana ez da egia...

*Pantze'taŕ katolikoak*

Lotan ez dagoz. Ara lenago aitatukoen gañera egin dituezan batzaŕak:

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Dagonil̄a | 21'n | Chalons'en | 15 000 | gizon. |
| Iral̄a | 11'n | Vitrén'n | 11.000 | » |
| » | 18'n | Chambéry'n | 15 000 | » |
| » | 18'n | Aurillac'en | 5.000 | » |
| » | 18'n | Toul'en | 40.000 | » |
| » | 18'n | Lannion'en | 2.500 | » |
| » | 25'n | Rodez'en | 25.000 | » |
| » | 25'n | Dole'n | 2.000 | » |
| » | 25'n | Havre'n | 3.000 | » |
| Uŕil̄a | 2'n | Strasbourg'en | 4.000 | » |
| » | 2'n | Beaupreau | 30.000 | » |

**M'taŕ G.**

JAUNGOIKO-ZALE'ren Irarkolan. - Zornotza'n.

# ¡GORAGO...!

Bidestia oyan-zeaŕ
gora-gorantza doa,
ta, oyu bat entzuten dau:
«¡Gora! ¡gora gaxoa...!»

Aldapetan nekaturik
biden ertzean dago,
ta, lengo abots oyuak:
«¡Auŕera ta gorago!»

Baŕiro bidezti ori
neke, loŕez leŕturik,
gorantza doa ta diño;
«Ez dago atsedenik?»

«Ez, gaxoa, ez da luŕa
atsedenen tokia;
gora beti, il artean,
ta gero... donokia».

GABIREL.

# Andik eta Emendik

*Lizunkeriaren aurka.*

Lizunkeria lotsa barik agertzen dan aldietan gagozala esan geinke. Oitura, dantza, zine, idantzezki eta aldizkingietan lizunkeria auřez agertzen da. Agertzea da bat, eta agertzen dan lez *lotsabarik* agertzea ezaugařirik txařena. Gaiztakeria burua estaldu ezinda dabil̄enean tira... baña gustien auřean agertu ta bere aurka egiteko gai danik edo adorerik daukanik agertzen ez danean, «gureak egin yok» esateko gogoa etořten da. Eta izan be, onetan alegintzen ez diran eřiak usteldu egiten dira; eta ustelduta iltea baño eriotza baltzagorik ez dago eřientzat.

Auxe dala-ta agintariak onetantxe ardurarik andiena ařtu beař leukie, onetan txařto ibil̄i ezkero eři onik eta zoriontsurik ez dago-ta. Orain arte gauza andirik ez da egin, eta egin dana be ondařezko esia egitea lez izan da, lizunkerizko uin olatuak b e r i a l a x e ondatu dau. Gogořago egin beařa egoan ba, eta nozbait gogo garbidun gustiei dei egiteko norbaitsuk gogoratu dira, gustiok alkařtuta, unetaraño eřiak ondatzen dituan gaitz onen kaltez gogoz, gogoř eta eten barik ekiteko.

Onetarakoxe Madrid'en batzař bat egingo da il̄a onen 9, 10, eta 11'n. Ori erabagi dabenak alkařtasuna ta laguntza ezkatzen dabe, gogo zintsodun gustiak aldana egin eta gaiz oři alde eragiteko. Alegindu gaitezan ba, laguntzen, eta geure euskaleři maitetik be lizunkeria bazteřtzen, sařtu yakun ixuřirik kaltegařiena auxe da-ta.

*Deunen irudiak txindi-papeletan.*

Oitura edeřa ta antziña - antxiñakoa izan da Ungria'n, txindi-ing̃i edo papeletan, Andra Maria'ren irudia ipinteko oitura. Ointxe arte Ungaria'ko txindi-ingiok Andra Maria ta bertoko zaindari Estepan deunaren irudiaz apainduta agertzen izan dira.

Ba, Budapest'eko agintariei otu yake emendik auřera, deunen irudien ordez, eřiko seme ospetsuen irudiak ipintea. Yakiña erabagi onek katolikotařai min andia emon dautse eta bapatez yaiki dira asmo ořen kaltez euren bařengo asařea agertzeko, ain begiko ta antxiñakoa dan oitura edeř ori beste barik kentzeko ziorik ez dagola -ta. ¡Ondo egiña! eta orixe egin beař leukie katolikoak beste toki batsuetan be, Yaungoikoaren izena kendu gurarik eta zeařetara baño ezpada be, Bere eskubideen kaltezko oitura, erabagi edo legerik agertzen danean.

Etsayak, Kristo'ren Eřegetasuna ez dabe gura ta guri agoz eta egitez Eřegatasun ori autortzea dagokigu.

*Bide onera.*

Yaunari eskeřak aspaldian asko dira egia ezagutu ta bide onera biurtzen diranak. Sařitan toki onetan aitatu doguz, eta ugarituez doaz. Weminster'ko goteřkian, Ingalanda'n, igaro dan urtean 487 protestante, katoliko egin dira. Baita protestantetař lekaide bat Kowley lekaretxekoa, katoliko biurtu da eta abade ikasketak, katoliko ikastetxe baten asi ditu. Lekaretxe onetan katoliko egin dan zortzigařena da berau.

Norbait ařitu leiteke protestantetař pral̄eak aitatzeaz, baña yakin eta oařtu beař dogu, aspaldi euren artean katolikoen gauza ta oitura asko zabalkuez doyazala, eta onetan be zintsoenak lekaide lez biziteari emon eutsiela; eta yakiña, zintso dabil̄enari Yaunak laguntzen dautselako, berealaxe ikusten dabe, pral̄e izatekotan katoliko izatea obe dala, ta alantxe bide onera asko biurtu dira- Orain urte batsuk onango lekaretxe oso bat katoliko biurtu zan.

*Buru iltzeak.*

Izpaŕ au, egia esateko, gogo txaŕez lez ipinten dot, baña gure ziñesteak zelango adorea naigabeak igaroteko emoten daben, agerkai antzera ipintea otu yat.

Ipaŕ Amerika'n Erenay aba domekataŕak diñonez, ilten diranetatik euneko bat ei dira bere burua ilten dabenak, eta gustiz urte baŕuan 10.000 dira bere burua ilten dabenak. Zenbatza au egiteko iru urtean lanean ekin dautso, beraz ondo gertauta argitaldu dau.

Zoritxaŕeko onein artean gizonezkoak emakumezkoak baño geyago dira. Banandutakoak eskonduta bizi diranak baño ugariago, eta protestantetaŕak katolikoak baño geyago dira.

Erbestetik eltzen diranen artean gitxien euren burua ilten dabenak españar, irlandaŕ, italitaŕ eta polonitaŕak dira. Eta Frenay abaren ustez, oneik katolikoagoak diralako, ziñesteak eutsiten dautsielako da.

*Inditaŕ katolikoak.*

Aurtengo katolikotaŕ zenbatzak diñonez, India'n 3.242.000 katoliko dagoz. 1.167 abade-lekaide, eta 2.277 bertoko diran abadeak. Gustiz India'k 325.000.000 biztanle daukoz ziñesge diranak. Ba'dago bai non lan egin. Egiz esan geinke lana ugari ta langiľe gitxi dagozala.

*Katolikotaŕ zine-bazkuna.*

«Zine» ak egiten dituan kalteak izugaŕiak dirala gustiok dakusgu. Eta geyenez «dirua» Yaungoikotzat daukenen eskuetan dagoalako, kalteok andiagoak dira, diru geyen emoten daben bidera yoten dabelako; eta yakiña, gaiztakeriko bidea dirua biltzeko zabalagoa da-ta.. ortik yaŕaitu, naizta gogoak, eurenak eta besteenak, ondatu. Eta oŕetarako eskubiderik ez dagola, edonok daki; baña olangoxe nunduan bizi gara-ta...

Ba katoliko batsuk, emengoak ez gero, prantziekoak baño; zine gaiztoaren kaltez katolikotaŕ zine onaren bazkuna sortu dabe. Bazkun begiko onen lenengo zeregiña prantzia'ko zine gustien zenbatza egitea izango da.

Gero lateŕi gustian daukiezan batzordeakaz itunduta, euren lanen baŕi emongo dabe, zeintsuk onak eta zeintsuk txaŕak diran yakiteko. Eta gero iñor ez yakiñez zine txaŕetara yoan ez daitezan, oaŕak egin, eta mintz edo pelikula onak egiten dituezan etxeai lagundu.

Gauza edeŕa ziñez, eta bazteŕ gustietan zabalduko ba'litz, lan edeŕa egingo leukena, bai dago beaŕizana be ta.

*Izpaŕ baltzak.*

Ungaria'ko gotzain-buru izan dan Csernoch Yohannes kardenal yaun ospetsua oraintsu il da. 79 urte zituan eta 13 kardenal egin ditu. Sendi apalekoa izan zan. Gudaldiko zoritxaŕetan aŕigaŕizko lanak egin zituan gotzain goragaŕi onek.

Baita egunokaz il da O'Donnell kardenal ospetsu eta irlandaŕ Gotzainburu ta abertzale zintsoa. Izlari bikaña, batez be irlandaŕen izkuntzan. Bera izan zan irlanderaz lenengo gotzain idazkia idatzi ebana. 32 urte eukazala gotzain egin eben eta beŕogei urte onetan irlandaŕak aitatzat euki dabe. Orain iru urte Gotzainburu egin eben eta irlandaŕ zintsoak agertu eben poza neuŕibakoa izan zan.

**M'taŕ G.**



## ZER EDO ZER

# GARBITOKI EDO PURGATORIOATZAZ

Arimen il̄ean gagoz eta egoki deritxogu Garbitokietzazko Eleiza Amaren irakatsiak gomutaratzea. Yaungoikoaren zuzentasuna eta Bere Eŕukitasun neuŕigabea bertan alkaŕtzen dirala esan geinke. Bere gomuteak gure biotza poztu egiten dau, gure baŕua nasaitu, itxaropenez betetzen gaitu, bera ezpalitz gure zoriontasuneko itxaropena betiko uŕinduko litzake ta. Egi au da ba, berez gure biotzak aintzat artzen dabena, geure argaltasun ugariak gora bera, zeruko bidea argitzen dauskulako.

### Garbitokia zer dan.

Ziñesteko egia da, zeruan orbaindurik ezin leitekela saŕtu. Zoriontasuna orbanakin ezin leike alkaŕtu, naiz ta txikaŕena izan. Baita ziñesteko egia, gaiztoki edo inpernura oben astunean ilten diranak bakaŕik yoaten dirala. Baña saŕitan gertatu leitekena da ain eŕez egin ditugun oben ariñagaz damutu barik edo ta, egin ditugun oben astunakaitik zoŕ doguna beaŕ dan lez ordaindu barik iltea. Eta orduan zer? Zerura ezin yoan leiteke azkenengo txurikorañokoa ordaindu arte (MATTH. V. 26) naiz ta Yaungoikoaren aizkidetasunean il.

Bere aizkidetasunean il dana baŕiz, gaiztokira ezin leiteke yoan. Ba gogo oneintzat, euren zoŕak zeruratu baño len ordaindu daikiezan Yaungoikoaren eŕukitasunak Garbitokia ipiñi eban. Bere Biotz maitiak gizonari dautson eŕukia neuŕigabearen agerkai edeŕa da, bertan zoŕ gustia ordaindu ta Yaungoikoaren arpegi edeŕa betikotasunean ikusi al izan dayen.

Garbitokia ba, Kristiñau Ikasbideak diñon lez, orixe da: *Yaungoikoaren grazian baña ondiño euren obenen zoŕa osoro ordaindu barik ildakoan arimak yoaten diran lekua.*

### Ziñesteak diñoskuna.

Gure ziñesteak Garbitokiatzaz irakasten dauskuna, eta gustiok ziñestu beaŕ doguna auxe da: 1.° Garbitokia ba'dagola. 2'gn Garbitokiko arimai gure eskari ta egipen onakaz eta batez be Mesa deunaren bidez lagundu geinkioela. Onexek biok dira ziñesteko egi lez ziñestu beaŕ doguzanak.

Aitatu digun egi bi oneik Trento Batzaŕ deunak, Lion eta Plorenzia'ko Eleiz batzaŕ ospetsuen irakatziak baŕiztauaz, ziñesteko egi lez agindu euskuzan VI'n eta XXV'n batzaldietan. Egi biok gure biotzaren baŕuko guraririk bizienak asetzen dituelako, eŕirik basatienak be geroko bizitza au, era batera edo bestera autortu dabe, eta zelanbait lagundu geinkioela be bai. Auxe da gai onetzaz, Espiritu Deunaren argiz, Idazti Deunaren irakatziz eta Eleizako gurasoen aditzez ziñestu beaŕ doguna.

## Garbitokiko nekeak.

Yaunaren aizkidetasunean ilten diranak euren obenen zoŕa neke-bidez ordaintzen dabela Lion'go II'n Eleiz Batzaŕak itz oneitan irakatsi eban: *Pekatari bat Yaunaren aizkidetasunean ilten ba'da, baña egizko oben-nekeaz guztiz zoŕa ordaindu barik, Garbitokiko neke bidez garbitua izaten da.* (Denzi ger-B. 464). Beraz, neketan dagozala bai-dakigu, baña oneik nekeok zelangoak diran, euren indaŕa, ta zenbat irauten daben eta abaŕ, onetzaz Eleizak ez dausku ziñestepean ezer agintzen.

Ziur dakiguna beintzat da, Garbitokira doazan arimak Yaungoikoaren arpegia ikusteko gurari bizi-bizia dabela eta euren zoŕa gustiz ordaindu arte, ezingo dabela zorion ori loŕtu. Onek emongo dautsen samintasuna gustiz andia izango da, eta igaroko daben nekerik andiena be, auxe izango dala, argi dago. Neke au bikoitza lez izango da; bata ain gogo biziz ikusi gura daben Yaungoiko maitea ez ikustea; eta ikusi ezin onek emongo dautsen ituntasun eta nekea. Onez gañera teoloji-yakitunak beste neke bat zentzunekoa deritxoena igaroten dabela irakasten dabe, baita sentzuneko neke au egizko suak emoten dautsena dala diñoe; au baña ziñeste-egia ez dala oaŕtuaz. Era bi onetako nekeok, gustiak igaro beaŕko dituen ala ez; ori gustion yaube dan Yaunak erabagiko daben gauzea da.

## Neke onen neuŕia.

Onetzaz be gauza ziuŕik ezin geinke esan. Gustitariko eritxiak dagoz teoloji-yakitunen artean. Akino'tar Tomas'ek diño emengo andiena, ango nekerik txikiena baño andiago izango dala. Eta Bonabentura deunak ostera ango nekerik andiena, bere maĺan, emengo andiena baño andiagoa izango dala. Dana dala, neke gogoŕak izango dirala esan-beaŕik ez dago; eta eskeŕak onexeri guk uste izan geinken baño geyago zeruratuko dirala ziñestu geinke.

Nekeok zenbat aldi iraungo ete daben? Garbitokiak azken eparirarte baño ez dabela iraungo bai'dakigu; baña bakoitzarentzat zenbat iraungo daben, ori ezin geinke yakin bakoitzaren zoŕen neuŕiz luze ala labuŕago izango dala uste izan aŕen, zoŕa ordaintzeko nekeen indaŕak, gure eskintzak Yaungoikoak aŕtzen dituzan neuŕia, ta beste yakin ezin geinkezan gauza batsun baŕi euki beaŕko geunke-ta.

## Garbitokiko gogoen pozkaŕiak.

Ainbesteko naigabe ta samin artean dagozan aŕen garbitokiko arimak, neke arein erdian poztuteko zio asko daukiez. Lenen, ziur dakie zerurako aukeratuak izan dirala, onen aurka Lutero'k irakatsi

ebana Eleizak gaiztetsi eban. Baita, beraz, geyago pekaturik ezin leikiela egin bai dakie, eta ziurtasun onek poz andia emongo dautsiela esan beaŕik ez dago. Onez gañera beste pozkaŕi batzun artean, neke gogoŕ eta luzeagoak igaro ta betiko zoriona uŕeratuez yoakela yakiteak nekeen laztasuna asko arinduko dautse. Azkenez geuk be eskari'ta egite onen bidez euren nekaldia labuŕtu ta gozatu geinkioela Eleiza Ama'k irakasten dauzku. Eta,

## Garbitokiko arimen aldez egin geinkena :: :: :: ::

Eta maitasunez egin beaŕ doguna, Yaungoikoa'ri atsegin yako; gogo gaixoentzat pozgaŕi, eta geuretzat be onuragaŕi izango da, eskaŕ onez zelanbait lagundu ta ordaindu barik geure egite ona ez dabe lagako-ta.

Batez be *Mesa deuna* euren aldez eskiñiaz laguntzarik onena eskiñi geinkioe; euren aldez *otoi* eginda, *barau, laztasun* eta *egite onak* eskiñita, eta batez be eurentzako *parkamenak* irabazita. Makabeotaŕen idazti deunak diñon lez ba (XII-43) ildakoen aldez otoi egitea egite deun eta osasunkoŕa da.

Eta amaitzeko aoŕtxo batsuk.

## Garbitokiko arimen agertzeak dirala-ta. ※ ※ ※ ※

Gai onetan zuŕtasunak ertz bitatik iges egin beaŕ dala diñosku. Ziñesgogoŕa izatea ez da ona baña edozer ziñesten daben leloa izatea ez da obe.

Garbitokiko arimak agertu *leitekezala* Yaunaren baipenaz egia da, ezin leike ukatu. Baña *agertu dala* ziñesteko mirari bat da-ta, zio astunak beaŕ dira. Agertu yakola diñoskunari egiztuteko eskatu beaŕ dautsegu; begitanduta bakaŕik, agertu yakola saŕitan uste izan leike-ta. Eta ori egingo ba'litz itzez eta idaztiz dabizen agertzeok uŕiagoak izango litzakez. Onetan, umekeri, baŕegaŕikeri eta afariketarik agertzeetan nastetan ba'da, egizkotzat ez dogu euki beaŕ; benetasun zerbait, onura gogoentzat eta oartzen ba'dogu, orduan aintzat aŕtu geinkez asteŕtzeko, baña beti ziria saŕtuko ete dauskuen bilduŕaz. Onetan txindi-papelaz egiten dana egin beaŕ da. Txindi-papel txaŕak dabiltzazala zabaltzen danean, gustiak ardura andiz begiratzen dautse *paltsorik* sartu ez dayoen; onan etsairik andiena, onan antzeko papel-txaŕa izaten da-ta. Agertze oneikaz be zuŕak eta arduratsuak izan beaŕ gara egizko agertzeen etsairik andienak guzuŕezkoak izaten diralako.

Auxe da kistaŕ-sentsunak irakasten dauskuna. Egia dana zintso ziñestu; egia ez dana bazteŕtu.

**Gama.**

Lasteŕ Aŕgitalduko da

**1928'gko**

JAUNGOIKO - ZALE'REN

EUSKEL - EGUTEGIA

**Beti lez dotore, txukun eta gozo**

# ¡Maitasun batez alkaŕtu!

¡Gora Euskera maitegaŕia! Auxe da euskaldunen artean saŕi entzuten dana. Biotzetik sortzen dan oyua ete da? Alan izan beaŕ leuke, baña zoritxaŕez oyutan aña egite Euskera aldez ez da ikusten. Didaŕ gitxiago eta lan ugariago. Erea datoŕenean oyu egitea ondo da, baña eskutuan eta ixil̄ean egiten dan lana obe ta onuratsuagoa da.

Ama'ren aldez lan egin barik bere edeŕtasunak goraltzen ibil̄iko litzaken semea erotzat eukiko geunke; eta berberau geure izkuntza maiteaz ez ete da gertatu?.. eta gertatzen?..

Orain artean naiko goraldu dabe itzez gure Euskera, baña bere aultasuna osatzen ez dira arduratu; bere etsayen kaltez ez da guda egin, eta egunerik-egunera etsai geyagok inguraturik dagon Ama gaxo au laguntasun barik itxiko ete dogu? Ez lotsaren izpirik eta maitasunaren txingaŕtxorik gure biotzean ba'dogu beintzat...

Maitasun geyago, gure eretxiak dirala-ta, banandutа gabizen anayoen lanak batera yo dagien. Il-agiñean dago amari aldan era gustietera lagun beaŕ yako. Bestela zelan lagundu geinkion alkaŕegaz ezpayan gabizen artean gure ele maite au etsayen eskuetan ilten ba'da, eŕua norena izango da? Geurea, beste íñorena ez.

Alkaŕtu ta lan egin, gaŕantzirik ez daben eztabaidia alde batera itxirik bakoitxak bere beaŕkuna betetako al doguna egin daigun...

Eta norbait, goralben andiak egin aŕen, itz eta idazkietan erdera dariola ba'dabil edozeñen itzari baño—egiñenari begitu—ezpadogu nai askotan-iruxuŕtuta gelditu... benetako maitasuna egiñetan bakaŕik agertzen da-ta.

Eta amaitzeko oin urte batsuk dirala argitalduko itzok ipiñiko ditut:

Baña obe ta egokiago
Izan leike nire ustez,
Yardun gitxi ta zail edo eŕez
Idatzi gogoz ta auŕez.

Bakoitzak egin al dabena-ta
«¡Maitasun batez alkaŕtu!»
Danon lana be geyegi ez
Nai bou euskera sendatu.

Alkaŕ zirika ibil̄i barik,
¡Bazteŕtu moŕmoxetea!
Itz euskeraz ta idazti gogoŕ
Goŕotau alperkeria. (1)

**M'taŕ G.**

---

(1) «Euskera zal̄a ta... Alpeŕkeria eŕaza» Oleŕkia 1921'g. Azil̄a 15'ko *Jaungoiko - Zale.*

# ANDIK ETA EMENDIK

### Sidney'ko Eukaristi Batzaŕa (1.928'gn.)

TXIKAGO'ko Eukaristi Batzaŕ ospetsuan erabagi zanez, uŕen Eukaŗisti Batzaŕ osokoŕa, Australia'n Sidney'ko urian izango da. Oŕetarako izentau dabezan egunak, 1928'ko Iraḻa'ren 6, 7, 8 ta 9'an. dira. Australia ta Zelanda-Baŕi'ko Gotzañak Batzaŕ au iragaŕteko argitaldu daben idazkian diñoe: «Guk Txikago'ko Batzaŕaren maḻara eldu gura dogu, batzaŕen anditasun eta Mundelein'go ibildeunaren edeŕtasunean ezpada be, berotasun gaŕ eta eraspen (debozîñoan) bai beintzat».

Sidney, Gales-Baŕi'ko uri buru eta Australia'ko uririk andiena da. Bere kaya edeŕ eta izugaŕizko andia da, bertan eundaka itxasontzi nagosientzat toki nasaya dago.

Kai edeŕ onen baŕuan ibildeuna egingo da. Aita Santuaren ordelariak, Gotzain eta bidezti katolikotaŕak lagun dituala itxasontzian Gure Yauna Manly'tik Andra Maria'ren gotzain-eleizaraño eroango dabe. Kristiñauak ontzi txiki ta andietan ugari lagunduko dautse, eta kayaren beste ertzera eltzean, itxasotik urtenda kalerik-kale Katedraleraño yoango da. Gauza edeŕa izango dala argi dago.

Batzaŕak, datoŕen udabaŕian amaituko dan Andra Maria'ren Katedral baŕian izango dira.

Ipaŕ Amerika ta Kanada'ko Gotzain askok yoango dirala, iragaŕi dabe

Australia'n 1.319.449 katoliko dira. Gales-Baŕian bizi diranak 482.487. Gongotzain edo Artzobispoak 7, Gotzañak 17, 11 Aita Santuaren Ordelari (Vicario Apostólico) ta 1.779 abade. Ikastoletan ango katolikoak lan egin dabe. Irakasletzat 9.604 lekaime (monja) ta 913 lekaide anaya daukiez.

Eraltzen diarduenak uste dabe Batzaŕ onetara 200.000 bidezti atzeŕitar elduko dirala.

### Contardo Feŕini zoriondun? ✠ ✠ ✠

USTE danez, Aita Deunak zoriondun baŕirik ez dau iragaŕiko 1929-1930'arte. Orduantxe bere abadegintzatik 50'gn. urtea betetan da ta yai andien artean zoriondun iragaŕteak izango dira, lanak gertatzen diardue-ta. Onein artean Contardo Feŕini izango ete da? Legez ain arin ezin leiteke izan, il zala 25 uŕte baño ez dira-ta, 50 beaŕ baña Aita Deunak zioak dagozanean epe ori labuŕtzen dau Teresetxo deunagaz egin eban lez.

Beintzat, oraintsu Aita Deunari eskiñi dautse Contardo Feŕini'tzaz idazti bat bera zoriondun egiteko beaŕ diran agiriak azteŕtzeko, eta Uŕiḻaren 25'gn. Kardenalak eta Teologoak egin eben batzaŕa, bere onbideen gurentasun eztabaida bidez azteŕtzeko.

Auzi onek auŕera urtetzen ba'dau, gauza bakana ikusiko dogu: Ikastetxe Nagosigoko irakasle prakadun bat deun, eta XX'gn. gizaldian.

Contardo Feŕini au, Pavia'ko Ikastetxe Nagosiko irakasle izan zan. Irakasle yakintsu eta idazle bikaña, baña batez be kristiñau zintso eta onbidetsua. 1.902'ko Iraḻa 17'gn. deun entsuteaz il zan. Berau zoriondun egiteko auzia, X'gn Pio aguŕgaŕiaren aldian asi zan, eta Aita benetan deun onek «prakadun bat» deun egiteko gurari bizia agertu eban.

Feŕini Contardo, XI'gn. Pio agurgaŕiaren ezaguna zan eta maitasun andia eutsonez pozik ikusi dau bera zoriontzeko lanak legez auŕera eroan al izan dirala ikusteaz.

Ia ba, lasteŕ, irakasleak Zaindari bat eukiten daben, zerbait baño beaŕizan geyago daukie-ta!

**Lizunkeriaren aurkako batzaŕa.** ✠ ✠

IRAGAŔITA egoan lez iḹa onen 9'tik 11'ra egin da. Itzaldi edeŕak egin dira eta erabagi onuratsuak aŕtu be bai. Agintariei beintzat eskatu dautse ipuin-idazti lizunen aurka gogoŕ egiteko, iraŕkariei eta egiḹeai zigoŕ gogoŕak ezaŕiaz. Ainbeste kalte egiten daben zineatzaz lege baŕiak emoteko, amasei urtetik berakoai saŕera galeraziaz, eta zine mintzak argitaldu baño lenago aztertzeko batzoŕdea sortuaz.

Baita auŕeztik asteŕtu radiotik esango dana. Eta beste erabagi edeŕ asko be aŕtu dira, auŕera eroan ezkero on asko egingo dabenak.

Uste dogu agintariak be bertan izan dira-ta, zerbait egingo dala. Onango gauza asko ta asmo edeŕak lendik be egon dira. Agintariok eurok izenbetu ebezan gai onetzaz 1923'ko Iraḹaren 12'gn, Jinebra'n egin zan itunbena, eta antxe erabagi zana bete ezkero lan edeŕa egingo leuke. Eta onetan gustiori dagokiogu ta gustiok batera yoan beaŕ gara. Biderik onena baŕiz lizunkeriaren aurka «eguŕa» dala ba'dakigu, gaiztakeria zabaltzen dabenentzat.

Yaunak lagundu dayoela erabagiok auŕera eroaten; eta Pasko-aldiko asmo askoren antzera ez al dira ezerezean geldituko

**Yapon'go Gotzain baŕia.** ✠ ✠ ✠ ✠

HAYASAKA yaun agurgaŕia, Aita Santuak berak gotzain egin dau lengo iḹaren 30'gn. Eleizkizun edeŕanetarikoa izan zan, iges sei Gotzain txiñaŕ egin zituanekoa lakoxea. Bertan ziran 15 Kardenal eta Gotzain asko, eta lateŕi Ordelarien artean Eŕoma'ko Yapondaŕ Ordelaria bere eŕikide askogaz eldu zan. Yapondaŕ au Gotzain egiteak gaŕantsi andia dauko, eta au argiro agertzen dau *Yamamoto* Yapon'go gudontzi taldeen buru edo *Almirante* dan katoliko zintsoak. «Katolikotaŕ Zinestea Yapon'en» burutzat daben idazki edeŕ baten.

*Yamamoto Almirante* ta Yapondaŕ gastedi katolikotaŕ buru danak aitatutako idazkia *La Vie Catholique*-n argitaldu dau. Bertan lengo zenbaki baten argitaldu ginduzan edesti izpaŕak ipiñi ondoren bere ziñeste zintso, itxaropen osoa agertzen dau katolikotaŕ ziñesteak auŕerapen andiak egingo dituala, alpeŕik ainbeste ziñopen odola ez dala izuri ta, baña argiro diño, ziñesgeen buru diranak eta txeŕenak bakean ez dautsiela lagako.

Bere eŕiaren gauza onak eta baita akatzak be ondo ezagutzen dituela diño, eta geyegi goraldu ten dabenak eta bazteŕeragi Yapon ipinten dabenak, bitsuok okeŕ dagozala. Baña ezin geinkio yaŕaitu bere idazki edeŕ eta luzeari eta bakaŕik ipiñi dogu Gotzain baŕi au aututzeak pozez bete zituala yapondaŕak eta berari laguntzeko egin eben eskatze baten beriala 70.000 pranko bildu zituezala eta au da aŕigaŕia, ziñesge (jentil) batek Aita Santuaren erabagiaren baŕi yakin ebanean Hayasaka yaunari laguntzeko 150.000 pranko emon zituan. Bertako Gotzaña egiteak abadegeyak ugarituko dituala diño, eta baita ixildu eragin atzeŕiko Gotzañak dagozala, lenengotan atzeŕitaŕ lez ziñestea artzen daben ziñesgeai. Bertakoak eŕikiden izakera, oitura eta abaŕ ondo ezagutzen dituezala eta onek aña gaŕantzi daukanik ez dala. Idazki edeŕa, Andra Maria'ri otoitz egiñaz amaitzen dau.

**Izpaŕak.** ✠ ✠ ✠

REIG Kardenal eta España'ko Gotzain Buru izan zanen tokirako Burgos'ko Gongotzain argi ta onbidetsu Pedro Segura yaun agurgaŕia autu dabe. Len Coria'n 1920'tik aurten arte egon da. Udabaŕian Burgos'era aldatu zan eta orain gorago yaso dabe. 47 urte baño ez ditu; ezagutzen dabenak, bere yakituri, ontasun eta langiḹetasunaz aŕituta dagoz, beraz esan beaŕik be ez da Eleizaren onura andirako izentatze au izango dala. ¡Urte askotarako!

* * *

GAU-GURTZAḸEAK Madrid'en euren 50'gn. urtea ospatu dabe. Orduan saspi izan ziran oin miḹaka asko dira, eta España'ko alde gustietatik egin diran batzaŕ eta eleizkizunetara, 6.000 baño geyago eldu dira, azkenean ibildeun edeŕ bat eginda batzaŕa amaitu dabe. Izlari gorengoak lau egunetan euki dituez, euron artean gure Gotzain agurgaŕia ta Toledo'ko Gongotzain baŕia.

* * *

KRISTO Eŕege'ri iragi yakon lenengo eleiza Ingalanda'n Alfretan'en egunokaz amaitu da. Notthingan'eko Gotzañak onetsi eban.

**M'taŕ G.**

# ¡Aguŕ, Ama Soŕtzez Garbia!



*Soŕtzez Garbi zaran Ama*
*samuŕ, ezti, kutuna,*
*nai neunke ludian bildu*
*lili oron luŕuna.*
*Zuri pozez eskintzeko*
*maitasun semekoŕez,*
*Zu zara ba gizadian*
*Orban bagea Soŕtzez.*

*Edeŕtasunez beteteko*
*lora polit, ǵuriak,*
*ludian diran onenak*
*txoŕta baten gustiak,*
*nai neunkez euki ementxe*
*gauŕ opaltzeko Zeuri,*
*Zeu bakaŕik zaralako*
*Soŕtzetik Gustiz Garbi.*

*Txoritxoen abots zoli,*
*gozo ta eztitsuak,*
*Goi-gotzonen zoragaŕi,*
*legun eta amaultsuak*
*nai neunkez euki oraintxe*
*goraltzeko Zeu Ama:*
*¡Aguŕ, Soŕtzez Garbi ori!*
*¡Aguŕ, Ama laztana!*

*Baña besterik ez daukat*
*biotz argal au baño,*
*bere leraz beti naŕaz,*
*yausita luŕeraño,*
*alan be, Eŕuki utsa*
*zarealako pozez,*
*Zeure maitasun andien*
*baŕengo eskaŕ onez,*
*biotz gustiaz diñotzut*
*seme maitetasunez:*
*¡Aguŕ, Eskaŕezko Ama!*
*¡Aguŕ, Garbia Soŕtzez!*

GABIREL.

## Eba sugeak lez, gu ludijak atzipetu

Adan eta Eba'k oben
Ein ebenetik geyago,
Gizonarentzat ez dago,
Zorijontasunik emen.
Obenagaz galdu eben
Zorijontasun gustija,
Ordutik ona ludija
Negaŕezko Eŕi bat da:
Eŕi au jasan biaŕ da
Jadesteko donokija.

Sugeak Eba eiban lez
Guzuŕagaz atzipetu,
Ludijak gu be eiten gaitu
¡Ta saŕiegi tamalez!
Ludiko gauzai azalez,
Zorijontsu eretxita,
Bide zuzena itxita
Gabiltzaz okeŕ-lekutik;
¡Gaiztokirako bidetik
Ludijak atzipetuta!—**Garbi Nai**

# ANDIK ETA EMENDIK

**Txinař ospetsu bat beneditař eginda.**

LOU-TSEN-TSIANG yauna, txinař ordelari Europa'n ainbat aldiz izan dana, eta agintari buru Txina'n aldi baten izan zana. Beljika'n beneditařak Lophen'en daukien Saint-Andre-les-Bruges deritxon lekaretxean soñeko deuna ařtu dau.

Gizon azkařa zan eta bere lateřian gorengo mal̄an lateři arazoetan ibil̄ia da, eta bertako ordelari lez 1906'n urte-ezkerotik toki askotan egona. Bere emaztea beljikařa zan eta beronen bidez katolikotař egin zan. 1926'n, 55'n urte zitualarik alařgundu zan. Ařezkero beneditařakaz ařtu-emon andiak izan ditu, eta azkenez Txina'n lekaideok beneditař lekaretxe baři bat zabaltzeak. zerbait bultz egin dautso euron soñeko deuna eskatzeko. Egun ořetan yai ospetsua egin zan, bertan gotzain batsuez gañera, Txina'n ordelari, Paris, Lisboa'n eta Beljika'n dagozanak beste txinař talde anditxoaz egon ziran. Soñeko deuna ařtzeaz bere nobiziaua asi dau gero yaupari edo abadegintza ařtzeko. Bere eskintza au Garagařil̄aren 5'n egin eban. Auxe da orain urte bete inguru Aita Deunari bere kondekoraziño edo ospekiak eskeñi eutsona.

**Olandař Katolikoak eta iřatizkiña.** o o o

RADIO edo iřatizkiña zabalkundea egiteko aukerakoa dala edonok dakus. Txařerako naiz onerako beste auřerapen askoren antzera izan leitekena dala esan beařik ez da. Zer dala ta ba onak txařen eskuetan laga? Egia zabaltzeko bide bařiak erabiltera, lengoak bazteřtu barik, sentzunak eskatzen dabena da. Auxe gogoan daukelako Olandař katolikoak, Hilversun'tik nozik bein itzaldi onak egitera gitxi eretxita eurak radio bafi bat eurentzat bakařik ipiñi dabe.

Asiera gizonik yakintsuenen artean, langil̄e arasoetako bakaltzein edo ministroak itzaldi edeř bat egin eban. M. Ruis Bererenbrouk esan dabenez beronen bidez «uřiñeko mixiñolariak laguntasun bafi bat izango dabe; beronen bidez ziñesteak biotzai itz egingo dautse gaiztakeriaren ordez, eta baita gexoak katolikotař bizitzari yařaitu al izango dautse».

«KATHOLIEKE RADIO OMROEP'EK» itzaldi, eresi ta abař katoliko arauz emongo ditu. 7'arte neuřia 1840'koa izango da eta andik auřera 1950 neurkin edo metrokoa.

Olandař katoliko'tař asmo au gotzain gustiak ao batez onetsi dabe eta Van Rossum kardenal eta ziñeste zabalkunde lendakariak idazki sutsu bat euren asmo edeřa onesten bialdu dautse: Zuen RADIO ONROEP - diñotse - Olanda'ko katolikotař bizitza aberastu ta narotu egingo dau, katolikotař ziñestearen edeřtasunak azaltzetik beraganako maitasuna geyagotuko da-ta, eta baita katolikotař zabalkunderako uřiñetako eři ta mixiñoetan, bide bafi bat izango dalako».

Onetsi dabenen artean Ruremonde'ko gotzain Schri'nen yaun agurgariak idatzi dau: «Izparingien onduan, Radioa on eta txaren zabalkunderako bide indartsu izango da. Ara zer dala ta Radio arazoetan txarari aurka egiteko, onari laguntzeko bearkuna daukogun».

Beste gotzain gustiak olandar katolikoei dei egiten dautse iratizkin oneri laguntzeko.

Gauza onik egingo ba'da gai onetan beste tokietan auxe egin bearko da.

### Peru'ko lendakaria ta "zineak" ○ ○ ○

Peru'ko lendakariak, oraintsu, agindu begiko bat emon dau. Eta onetan beste askori ikasbide edera emoten dautse.

*Zinea'k* emen lez, an be ainbat kalte egiten dabela ikusirik, gaiztakeria ikasteko ikastolarik onena dala oarturik zine-mintz gustiak auretiaz aztertzeko agindua emon dau. Eta agindu begiko au emon dau, diñonez, *agintarien lenen-lenengo ardurea, oitura garbiak zaintzeko bideak artzea dalako*. Egi andia, gitxik ezagutzen dabena ta gitxiagok aintzat artzen dabena. Lendakari begiko oreri yaraitzeleak ugari opa dautsoguz.

### Yazoera bildurgaria.

Il Terzo Ordine Francescano'k Brasil'en Juis de Fora'n gertautako yazokun au dakar:

Eriko txaunburuak (parokoak) modako soñeko txarak artu eben indaraz minduta, iragari eban egokiro yantzi barik eleizaratzen ziranai bertan egoten ez eutsiela itxiko.

Urengo igandean, aberatz baten alaba, bere aginduai gañetik eiteko nonbait, egokiro yantzi barik eleizaratu zan. Txaun-buruak era onean baña parkatu barik, eleizatik atara eban.

Bere aitak au yakin ebanean amoruz beterik asperkundea artzeko erabagia artu eban. Egunatan bertan gexorik txarto egoala-ta neskatilaren aitari Eleizakoak ekarteko eskatu eutsoen. «Gexoak» gizatxar bi oe azpian ipiñi zituan abadea eltzen zanean ilteko asmoz. Bitartean «gexoa» leyotik begira egoan txaunburua Eleizakoakaz noz etoren ikusteko.

Agertu zanean berak iragari eutsen ba'etorela eta gertu egoteko. Etxean sartu zaneko ba'eizan negara ta ulua. Oera ureratu zanean, oartu eban txaunburuak utsik egoala, eta «gexoa» leyoan auspeztuta egoala. Deitu eutson eta yaramonik ez, il da gelditu zan.

Orduan oepean egozan gizatxarak urtenik, abedeari parkezkatu eutsoen euren asmo txaraz damuturik eta sendiaren txantxetako negara benetako biurtu zan. Yazokun au aurtengo Otsala'n gertatua da. ¡Yaungoikoari ixeka egitetik ez dator gauza onik!

### Kardenal'en eriotzak.

Aspaldian urte bete onetan ainbat il dira. Csernorch, Reig Casanova ta O'Donnell Ungria, España ta Irlanda'ko gotzain buruak, baita Ranuzzi de Bianchi, Cagiano de Azevedo, eta oraintsu Lualdi Palermo'ko Gotzain eta Aita Santuaren aizkide ta ikaskidea, eta egunokaz Bonzano yaun agurgaria Txikago'ko Eukaristi Batzar ospetsuan Aita Santuaren ordelari izan zana. Beste baten esan gendunez, Billot yaunak kardenaltzea itxi dabelako, gustiz 60 gelditzen dira. Zenbakia osotuteko amar bear dira eta batsuk beintzat baleiteke Aita Santuak Gabon aureko konsistorioan egitea.

### Kristo Eregeren aintzaz. ○ ○ ○

Hayes ipar Amerikar kardenal Kristo Eregen aintzaz New-York'en eleiza bat onetsi dau Oraintsurarte eleiz au protestanteena izan da eta katolikoak 80.000 dolarean erosi dabe. Berau da Kristo Eregen aintzaz Ipar Amerika'n zabaldu daben lenengo eleiza.

### Tchae Pilipe txinar gotzaña il da. ○ ○

Auxe da iges Aita Santuak Gotzaindu zituan txinaretatik bat 1.880'n yayoa, 1.904'n abade egin eta bere azkartasun eta langiletasunaren sariz Aita Santuak Gotzaintzara yaso eban. Ondiño igaro dan Yorala'n bere goterkian sartu zan, eta gomutzen gara berau Txiña'ra eldu zanean egin eutsen arera ederaz. Eta gogo gustiaz berak esaten eban lez, lanean diarduala Yaunak Beraganatu dau.

**M'tar G.**

## ZER EDO ZER

# PARKAMENATZAZ

LENGO zenbakian Garbitokiatzaz esan gendunak, nekazka edo parkamenetzaz zerbait esatera bultzatzen gaitu: gogo gaxoai laguntzeko parkamenak berezizko indaŕa dauke ta eurok irabazteko eŕeztasun andia daukogulako.

Gaya gaŕantzitsua dala esan beaŕik ez da, eta alan da be gai onetan be beste askotan lez kistaŕ askoren ez yakiñ andia dala egunoro dakusgu, saŕitan parkamen itza entzun aŕen gitxi gora bera baño berak zer esan gura daben ez dakielako. Gai onetzaz askoren epelkeriak, ez yakiñean dauko sustaŕa. Eta auxe dala-ta batsuei gai au aitatu ezkero urteten dautsen iŕibaŕetxoa, epelkeritik sortzen dan tentelkeriaren ezaugaŕia izaten da. Egoki izango dala ba, uste dogu, gai gaŕantzitsu onetzaz Eleiza Amaren irakatsiak labuŕ eta argiro emen aitatzea. Eta gai onetzaz

**Lenen yakin beaŕ dana,**

Ondo ulertzeko, auxe da: Obenean gauza bi berezi beaŕ ditugula: *Oben eŕua* eta *oben nekea*. *Obenaren eŕuak* Yaungoikoagaz daukogun aizkidetasuna *argaldu* ala *gustiz apurtu* egiten dau. Gustiz apuŕtzen ba dau, *astuna* izango da; argaldu bakaŕik egiten ba'dau, oben *ariña*.

Irudi onetan ikusi geinke: txingaŕ baten gañera ur tanta bat botaten ba'dogu, suaren indaŕa zerbait argaldu egiten da, bertan mota baltz bat agertzen dalarik; baña tantaren ordez ur asko botatzen ba'dogu, txingaŕa gustiz amatau eta baltz-baltz geldituko da. Onango zerbait yazoten da, gure gogoan daukagun Yaunaren graziaz, oben astun ala ariñen bat egiten dogunean. Oneri *obenaren eŕua* deritxogu.

Baña bai'dau obenak beste atal bat, gerizak argitan dagon gauzari legez, *beti* yaŕaitzen dautsona. Obenak bere zigoŕa eskatzen dau, eta orixe da *oben nekea*. Obenaren bidea Yaunaren lorategian bide zuzenetik aldenduaz lora artean sartu eta ondatuaz bide okeŕa zabaltzen dau; eta gauzak len lez itxiko ba' ditu, ez da naikoa bide zuzenera biurtzea, egindako bide okeŕa ta kaltea zuzentzen alegindu bear dau, egindako




EUSKO BASETXEA

kaltea ordaindu egin beaŕ dau, eta ori neke barik ezin leikena da.

Oben astuna danean neke ori betikoa izaten da, eta betiko gaiztokian ordaindu beaŕ dana. Beraz oben astuna egin dabena *eŕu astunaz* eta *neke astun betikoaz* aurkitzen da.

### Aitoŕtza bidez parkatzen dana

Oben astuna egin dabenak, aitortza on bat egiten dabenean azkespen edo absoluziñoaren bidez, *eŕu astuna* eta dagokion *betiko nekea* parkatzen yakoz, baña *geyenez* oben-neke gustia ez yako parkatzen, eta ori Garbitokian edo emen laztasun bidez ordaindu bear dau, bere obenen ugaritasun eta gaiztakeriaren neuŕiz. *Geyenez* esan dogu; ba, *banaka* batsuetan yazo leiteke obendariak daukon damutasun biziaz eta Yauna ganako maitasun sutsuaz, *eŕu* ta *neke* gustiaren parkamena loŕzeta... Baña obenagaitik zoŕ dan neke *gustia* aitoŕtzen danari *beti* parkatzen yakola esatea, Trento Eleiz Batzar deunak gaiztetsi eban. (Ses. XII C. 5).

Beraz obenak aitoŕtu eta euren parkamena aitortza bidez loŕtu dabena *geyenez aldiko nekeen* zoŕagaz gelditzen da.

### Aldiko nekea zelan kentzen dan

Aldiko nekea kendu edo ordaindu barik, ezin leiteke iñor zeruratu, beraz emen ordaintzen alegintzen ez danak, azkenengo txurikorarte Garbitokian ordaindu beaŕko dau. Bizitz onetan aldiko neke ori era askotara ordaindu geinke. Aitortzean ezaŕitako oben nekea egiñaz, norberak egiten dituan laztasun bidez,

baita zoritxaŕ eta naigabe ta lanak eroapenez igaroaz eta batez be *parkamenak* irabaziaz. Nekazka edo parkamena oŕetarakoxe da, geure obenen *aldiko zoŕa* parkatzeko. Aldiko zoŕ au oben astun parkatutako ala oben ariñagaitik ordaindu bear doguna da, eta parkamenak oŕetarakoxe dira.

## Parkamenak zer ez daben parkatzen

*Parkamenen bidez* ez da parkatzen ñoz be pekaturik, ez andirik ez txikirik, ez bizitz onetan ez da Garbitokira yoanda gero be. Garbitokira oben ariñen damutasun barik yoan danak, *oben eŕua* oñaze bidez ordaindu beaŕko dau, emen eurentzat irabazi geinkezan parkamenak *oben eŕurik* ez dabe parkatzen-eta. Parkemenak parkatzen dabena auxe da: Parkatutako oben astunakaitik zoŕ dan *oben-nekea* eta oben ariñakaitik zoŕ dana. Eta neke au, eŕua parkatu auŕetik ez da parkatzen. Argi dago, ba, oben ariñagaitik damutasuna aŕtzea askotan uste dogun baño onuratsuago ta gaŕantzitsuago dala. Beraz,

## Parkamena zer da?

Eleiz Legediak 911'n. C.'n diñonez parkamena auxe da: «Eŕuaren aldetik parkatuta dagozan pekatuakaitik, zoŕ dan aldiko nekea parkatzea, eta Eleizako aginpidedunak, Eleizako ondasuntegitik emoten dabena bizientzat askezpen eraz eta ildakoentzat laguntza eraz».

Eleizak eskubide ori Kristo gure Yaunagandik aŕtu ebala Trento'ko Eleiz-Batzaŕ ospetsuak argiro diño (Ses. XXV, Dec. de Ind.) eta onexek dira gai onetzaz ziñestu bear dituguzan gauza biak: Eleizak Parkamenak emoteko eskubidea daukola, eta parkamenak kistar eŕiarentzat gustiz onuratsuak dirala.

## Eleizearen ondasuntegia

Eleizaren ondasuntegian, Kristo gure Yaunaren irabazi neuŕibakoez gañera Andra Maria ta euren utsai dago kienbaño oben - neke geyago egin dabenen Deunen irabaziak saŕtzen dira. Irabaziok neuŕi bakoak dira, Kristo'ren egiterik txikiena oben gustien zoŕak ordaintzeko naiko izango zala, ziñesteko egia da-ta.

Onez gañera ziñesteko egia da «Deunen Alkartasuna». Eta onen indaŕez Kristo gure buru dalarik, buru onen azpian kistaŕ gustiok gorputz bat egiten dogu, eta alan gogo onen egite onak, zelanbait bakoitzarenak dira eta euren onerako emon leikez. Ondasuntegi ori Eleizaren eskuetan dago eta bere Buru danak, batak beaŕ ez dituan irabaziak besteari emon leikioz, aita batek, beaŕizanean dagoan semeari bere anayen irabazia emon leikion antzera.

Baña au luze doa-ta, uŕengoan parkamenaren edesti eta abaŕ, Yauna lagun zerbait esango dogu.

GAMA